



ttipi-ttapa



BESTA gehigarria / 27



TTIPI-TTAPA

Gaizka Sarasola gidoilari eta antzezleari elkarrizketa / 8

Udaberriko bestak ospatuko dute Igantzin maiatzaren 4tik 6ra / 17

XI. Ahari Lehiaketa eginen dute Doneztebeko udaberriko ferian / 21



UTZITAKO ARGAZKIA

Iñaki Mihura mendi lasterkari arraioztarrarekin solasean / 50

SINADURAK



«AHAL BEZAIN LASTER IHES EGIN NUEN BAZTANDIK AMERIKETARA»

Xarre Bidegain Danboriena lekaroztarrak duela 32 urte utzi zuen sorterrria, sekretu eta estigmekin bizitzeak ito egiten zuelako. / 10

UTZITAKO ARGAZKIA

Herri-galdeketa ate joka

Malerreka eta Bertizaranako sei herritan galdeketa eginen dute igande honetan / 36

 <p>berako agenda</p> <p>www.berakoagenda.eus</p> <p>f t</p> <p>Maiatza</p> <p>berako agenda</p> <p>Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 948 012 012 telefonoan edo www.berakoagenda.eus</p> <p>BERAKOUDALA berako kultur bazterdian</p>	<p>05 LARUNBATA</p> <p>IKUSKIZUNA TXOTXONGILOAK: "ITSAMINEZ" (Txotxongillo taldea)</p> <p>12:00 Kultur Etxean Sarrera: 3 € Argibide gehiago: www.txotxongillo.com Antolatzailea: Labiaga Ikastola</p> 	<p>06 IGANDEA</p> <p>KIROLA NAFARROAKO KENPO KAI TXAPELKETA</p> <p>10:00 Toki Ona kiroldegian Sarrera doan Antolatzailea: Berako Kenpo Kai Taldea Laguntzaileak: Nafarroako Karate Federazioa eta diziplina elkartuak eta Berako Udala</p>	<p>20 IGANDEA</p> <p>LEHIAKETA XXXI. BAZTAN- BIDASOKO BERTSOPAPER LEHIAKETA</p> <p>Azken eguna parte hartzeko</p>	
	<p>05 LARUNBATA</p> <p>KIROLA XLI. FELIX ERRANDONEA MEMORIALA</p> <p>17:00 Maila: Junior Distantzia: 78 km Antolatzailea: Gure Txokoa elkarte</p> 	<p>12 LARUNBATA</p> <p>MERKATUA BERTAKO EKOIZLEEN MERKATUA</p> <p>10:00-13:30 Ricardo Baroja eskolako arkupeetan</p>	<p>12 LARUNBATA</p> <p>KONTZERTUA BEÑAT IGERABIDE</p> <p>20:00 Kultur Etxean Sarrera: 5 € Argibide gehiago: www.bigerabide.com</p> 	<p>MUSIKA ESKOLAKO EKITALDIAK</p> <p>16 / ASTEAZKENA: GANBERA TALDEA 17:30 Musika eskolan 21 / ASTELEHENA: GANBERA TALDEA 17:30 Musika eskolan 26 / LARUNBATA: BERA KANTARI 19:00 Illeketako zubian Antolatzailea: Izidoro Pagnaga (Ud) Musika Eskola</p>
	<p>MUGAZ GAIN JAIALDIA</p> <p>10-11 / ORTEGUNA-ORTZIRALEA: DBH 17-18 / ORTEGUNA-ORTZIRALEA: LH Kultur Etxean</p>			



PARETAKO ARMAIRUAK NEURRIRA EGITEN DITUGU

C/Sastrin 2,3,4 BERA | 948 630 537 | amets@mueblesamets.com | mueblesamets.com



NIRE TXANDA

FERNANDO ANBUSTEGI

Euskaltzale ≠ euskaldun

Ez naiz hiztegiari begira jarriko, baina nabaria da euskaltzale eta euskaldun hitzen arteko desberdintasuna.

Gure eskualdean euskaltzale aunitz bizi gara, baita euskaldun aunitz ere. Ez nuke jakinen erraten zein multzotan dagoen jende gehiago. Zorionez hemen, aunitz izan gara jaio ginenetik euskaratik edan dugunak, denak ez. Euskaldun garenok ere, aunitzek,

euskaltzaletasuna naturaltasunez bizi dugula erran dezaket, ez denek. Zoritxarrez, aunitz dira ere, beren burua euskaltzaletzat dutenak, baina euskaldun ez direnak. Zergatik? Bakoitzak erantzun bat izanen du. Eta zergati hori arrazoituko du, seguraski, bere burua zuritzeko.

Euskaldunen artean, dena den, euskaltzale izan ala ez, bertze multzo bat dago, euskaltzale naizen aldetik kezkatzen nauena: euskara bihotzean bai, baina mingainean nekez dastatzen duena. Zuentzat ere galdera bera: zergatik? Ez zaizue bere zaporea gustatzen? Zapora exotikoagoak nahiago dituzue?

«AUNITZ DIRA EUSKALTZALE BAI BAINA EUSKALDUN EZ DIRENAK»



EZPALA

AITOR AROTZENA

OKtik A2era... Konforme?

Estatu Batuetako soldaduek hildakorik ez zutela izan adierazteko erabiltzen hasi zen OK (zero kills) alde batera utzi eta A2 erabiltzeko kanpaina abiatu da sareetan. Pilotan kintzeka kontatzen hasi zen garaitik dator ados. 40na berdin zeudenean bi tanto segidan egin behar zituen (eta du) taldeetako batek jokia lortzeko: a dos. Milesker Tiburtzio!

NABARMENTZEKOAK



MATXUS PERUGORRIA
IKERLARIA



XABAT ILLARREGI
BERTSOLARIA

Ikerlari beratarrak gidatutako ikerketa lan bat argitaratu dute Gut aldizkari ospetsuan eta Nature Reviews aldizkariak ere nabarmendu du bere lana. Gibelego gaixotasunak aztertzen ditu Perugorriak.

Leitzarrak Nafarroako bertsolari gazteen txapelketa irabazi du, eta hortaz, ekainean Saran eginen den Euskal Herriko Eskolartekorako txartela lortu du, Ekhiñe Zapiain beratarrarekin batera.

NABARMENTZEKOAK



2008-05-15 · TTIPI-TTAPA · 470 zk.

Escoletan jantokia lortzeko borrokan

Eskualdeko eskola ttikietan jantoki zerbitzua lortzeko borrokan ari zirela adieraziz, erreportajea osatu zuen TTIPI-TTAPAK duela hamar urte. Urteetik urtera, ikastetxeetan bazkaltzen zuten haurren kopurua hazten ari zen. Eskualdeko ikastetxe gehienak jantokirik gabe baziren ere, gure escoletan ari ziren 2.331 gaztetxoetatik %43,76k ez zuen etxean bazkaltzen. Sunbilla, Urdazubi eta Zugarramurdi eta Irurritako kasuak bildu zituen TTIPI-TTAPAK, duela hamar urte, jantokia ireki nahian baizebiltzan. Ainhoa Etxebeste Sunbillako orduko zinegotzia eta gurasoak TTIPI-TTAPARI adierazi zionez, «jantokirik ez, eta haurrak Doneztebera joaten zirela ikusteak pena ematen zigun».



erran.
Mendialdeko Abisteak

TOKIKOM

Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31700 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola

Publizitatea

Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente

Berriemakileak

Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,
Koro Iratzoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maider Petirena, Markel Lizasoain,
Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain, Maitane Maritorea,
Aranbxa Iturralde, Aranbxa Gamio,
Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo,
Nerea Mortalena, Virginia Oteiza,
Pierre Bastres, Ainhoa Asitz, Itxaso Arizmendi, Xabier Maritorea,
Maialen Iantzi, Jaione Mindegia,
Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebea

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdiko Akelarre elkarte

2018ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	37€
Leitza	24€
Hego Euskal Herria	43€
Ipar Euskal Herria, Europa	77€
Amerika eta Australia	130€

Nafarroako Gobernua  Gobierno de Navarra



Bortzietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua





KOLABORAZIOAK

MIREN KARMELE GOMEZ GARMENDIA

Kutsadura isila

Gure eskualdeko txokoak edertasun handiz erretratatzeko dituzte argazkilariek. Egunez ateratako argazkietan, mendietako perspektiba bitxiak, zaldiak, ardiak, lorez apaindutako baserriak... erakusten dizkigute eta sarean zintzilik, katagorriak, txoriak, herri eta auzoak, tokian-tokiko miradoreetatik ateratako irudietan ikus ditzakegu.

Badira gaueko argazkiak ere. Mendien gainetik Ilargia dotore erakusten dizkigutenak, edota Iparrizarren inguruan biraka dabiltzan izar-lerro borobilen bitartez denboraren martxa agerian uzten dutenak. Baina gure herriak gauez agertzen direnean, ez ditut hainbertze maite. Jende guti ohartzen da argazki horietan agertzen den kutsadura isilaz.

Eguzkia lotara joaten denean, gure karriketan farolak pizten dira. Horietako gehienek, kaleak argiztatzeko argia beheeraka bakarrik zuzendu beharrean, emaria norabide guztietan hedatzen dute argi kutsadura eraginez. Halaber, erabiltzen

«ZENTZURIK OTE DU GAUEZ KARRIKAK EGUNAREN PARE ARGIZTATZEAK?»

diren kale-argien bonbilla-motak desegokiak dira aunitzetan, behar baino urdinago izan ohi direlako. Ondorioz, gure begietako zelulek argi hori egunez zeruak duen kolore urdinarekin nahasten dute eta gure gorputzari gauez gaudela transmititu

beharrean, «oraindik egunez gaudela» erraten diote eta horrek desorekak eragiten ditu.

Begietan baditugu gure barne-sistema erregulatzeko zelula espezializatu batzuk, eta horiek argi urdina gauez jasotzen dutelarik, gorputza adi eta martxan mantentzen dute atseden hartzeko garaia denean. Ez dugu atzendu behar gizakiok, gaua eta egunaren zikloaren arabera espeziaz garelako: eguna aktibo egoteko behar dugu eta gaua, atseden hartzeko. Irudika ezazue logela bat, gauez egonik ere, argiz blaiturik dagoena kaleko farola bat etxearen fatxadari itsatsita duelako. Ez badugu pertsiana behar bezala ixten gure atseden ez da erabatekoa izanen.

Zentzurik ote du gauez karrikak egunaren pare argiztatzeak? Ez ote litzake arduratsua goa soilik argiztatu beharreko tokiak neurritz argiz janztea? Gauzak zer diren... dagoeneko hasiak garelako munduan gauaren babeserako eremuak mugatzen, gure arbasoek liluratu zituzten eta pentsarazten paratu zituzten zeru izarratuaren xarma gal ez dadin.

Gure inguruan herritik mendira salto egitea eta denbora gutian gau ilunaz gozatzea erraza da, baina hiri handietan, badira benetako izarrak inoiz ikusi ez dituzten umeak, izarrak liburuetan eta planetarioetan daudela uste dutenak. Pentsa dezagun pixka bat. Argiaren kultura zabaltzeko, kutsadura isilaz ohartzea lehenbiziko pausua izanen da. Pasatu gabon.



ALAITZ ESKUDERO BERGARA

Nire ametsetako herria

Kuriositateak jota, orain hain modan dauden auto-laguntza liburu horietako bat ireki dut gaurkoan, eta hara ze ariketa dibertigarria planteatu didan: «Irudikatu zure ametsetako herria». Hasiera batean sinplea dirudi. Begiak itxi ditut eta segidan datozkit irudiak. Irudikatu ez ezik, amesteko beta ere hartu dut.

Irudikatu dut ia trafikorik gabeko bidea, txoko miressgarriz betea, hauetako bakoitzak bere istorioa gordetzen duelarik: loratu berri den zuhaitza, harriz harri ihesean doan ibaia... kiribilez-kiribil aurrera, berdez jantzitako mendien artetik argiz betetako etxe handietara iristeko.

Familia handi bat osatzen duten herritarrek bistaratu ditut. Soilik portal zenbakia jakiteaz haratago, elkarren zaletasunak, gertaerak eta bizipenak dakizkiten bizi-lagunak. Etxetik plazarako bidean, adina bikoizten digun herritarrekin izandako solasaldiak eta ordura arte sekula hitzik gurutzatu gabeko herrikideekin konpartitutako

«BIHUR DITZAGUN AMETSETAKO HERRIAK BIZITZEKO HERRI»

auto-bidaia. Sukaldari adituz betetako elkarteak, beti ondokoaren platera hobetzeko prest. Baita apuro momentuetan dendakoari eskatutako faboreak ere. Eta, nola ez, guri buruzko txutxumutxuak noraino iritsiko diren jakitearen

intriga, ahoz aho datuak gehituz, fantasiako nobela bailiran. Literatura entretenigarriarik...

Amestu dut beste herrietatik bereizten den bertako hizkuntza zaindu, maitatu eta erabiltzen duten neska-mutilekin.

Hizketak nongotarrak diren salatzen dituenen, harrotasunez erantzuteko gai diren herritarrekin. Bere festak gogotsu antolatuta eta gozatzen dakien herriarekin. Kanpotarrak bertakotzat hartzen dituenen, eta bere ohiturak zaindu eta etorkizunera begira antolatzen jakinez.

Eta konturatu naiz ametsek eta desirak badutela errealitatearen parterik. Agian ametsak uste baino errealagoak direla eta, ohartu ez arren, jadanik badudala ametsetako herri bat. Zorionekoa bezain oharkabea ni! Izan ere, amestu bitartean, asfaltozko lurretan eraikitako megadendetan galduta gabiltza, 'bio'dun produktu berdeak erosten, horrek bizitza itzuliko digulakoan. Hori gutxi ez, eta hirietan ordainezinezko alokairuak ordaintzeko prest gaude, gure ametsetara hurbildu ere egiten ez diren etxe ilunengatik. Pikutara bota dut auto-laguntza liburua. Ez da amesteko unea, ekitekoa baizik. Gure herriak bizirik mantendu nahi baditugu, bertako altxorak baloratzea ezinbestekoa dela uste dut. Baloratu, maitatu, gozatu eta bizi. Urteko egun eta ordu guztietan. Azken finean horrek bakarrik lortuko du gure herri txikiak altxor handiek bizirik segitzea. Bihur ditzagun ametsetako herriak bizitzeko herri.

11 GALDERA LABUR

ANDREW SMITH

«Ingelesez solas egin nahi dutenei aukera eskaintzen diegu»

Aurkeztu zure burua...

Zubietan bizi den gizon erretiratu bat naiz. Erresuma Batuan sortu nintzen eta Oxforden ospitaleko erizain izana naiz. Ondorik, 2006an emaztea eta biok Zubietara joatea erabaki genuen eta geroztik han bizi gara.

Zergatik aukeratu zenuten Zubietara?

Emaztea, zarauztarra izanik ere, berrogei urtez atzerrian bizi izandakoa da. Lana bukatu zuenean, bai berak bai eta nik ere Euskal Herrira itzuli nahi izan genuen. Zubietara denda, ostaldea eta taberna dituen herrixka polita denez, aukera ona iruditu zitzaigun.

Zer da faltan bota izan duzuna? Hasiera hartan hizkuntza falta zitzaidan... Pixkanaka, ikas-

ten ari naizen honetan, berriz, hango garagardoa! (irriz) **Nolakoa izan da herritarrengandik jaso duzuen harrera?**

Herritarrak bihotz onekoak dira, guri ongietorri beroa egin ziguten.


Zer zaletasun dituzu?

Eleberriak irakurtzea, lorategian eta baratzean lan egitea eta lagunekin egotea gustatzen zait.

English Conversation, ostirale-tako hitzorduan elkartzan zarete.

Bai, ostiraletan 19:00etan asteroko hitzordua izaten dugu, Errandonea ostaldea elkartzan gara. Hizkuntza aitzakiatzat hartuz, ingelesa praktikatzeko solasaldi ederrak egiten ditugu.

Nondik sortu zen ideia?



Bost urte daramatzat Solaslaguna egitasmoan. Hemen euskara hobetzeko duzuen egitasmo hori gustatu zitzaigunez, tankerako bat sortu genuen, ingelesa praktikatu nahi duten euskaldunek aukera izan dezaten.

Zenbat lagun elkartzan zarete?

Bost eta hamar lagun bitarte biltzen gara; batzuetan gehiago, besteetan gutxiago. Garagardo eta solasaldien bueltan elkartzuz, giro lasaiean ikaste-

ko aukera eskaintzen saiatzen gara.

Zerk egiten zaitu zoriontsu?

Hemengo bizimodu lasaiekin egiten nau zoriontsu.

Asteburuko plan ederrena?

Asteburuan mendian barna ibili eta gero, etxean lagunekin bazkari eder bat egitea bezalakorik ez dago!

Amets bat?

Pobreziarik gabeko mundu berdeago batean bizitzeko aukera izatea.

GORA ETA BEHERA



JUAN MARI BARRIOLA

40 urte Leitzako krosa antolatzen



Aurten 40 urte bete ditu Leitzako Aurrera Kirol Elkarteak antolatzen duen krosak. Haur, gaztetxo eta helduek, guztiek izaten dute parte hartzeko aukera. Ttikitatik kirolzaletasuna bultzatzen... eta hainbertze urtez... Bejondeizula Aurrera!

HEMEROTEKA



«Munduari lotua behar da izan, ez bakarrik gure mundu ttipiari. Goiz edo berant, denek joan beharko genuke herriz kanpo bizitzera, ikustera bes-teen bizia zer den; aberatsago itzultzen gara».

PEIO JORAJURIA (SENPERE) BERRIA. 2018.04.22



IRAKURLEAK MINTZO

Aitatxo, zer esan nahi du behartsu izateak?

XANTI BEGIRISTAIN MADOTZ

Enpresa gizon batek nahi zuen bere alabak jakitea zer den «behartsu izatea», eta horretarako, mendialdeko nekazari batzuen etxera eraman zuen asteburu bat pasatzera. Baserri apal hartan hiru egun eta bi gau eman zituen.

Automobilean, etxerako bidean, aitak zera galdetu zion alabari:

-Zer iruditu zain esperientzia...?

-Ona –erantzun zuen alabak, begirada urrutian jarrita.

-Eta... zer ikasi dun? –berriz ere aitak.

Alabak hauxe erantzun zion:

1.- Guk txakur bat dugula eta beraiek, berri, lau dituztela.

2.- Guk jacuzzi bat dugu... eta beraiek bukaerarik gabeko erreka bat, ur gardenekoa, eta arraintxoak dauzkana.

3.- Guk errektoreak ditugu geure lorategia argiztatzeko, eta beraiek bitartean, izarrek eta ilargiak argiztatzeko dituzte.

4.- Gure patioa hesiraino iristen da eta beraiena, ordea, zerumugaraino.

5.- Guk gure janaria erosten dugu; haiek beraiena erein eta bildu egiten dute.

6.- Guk CDak entzuten ditugu. Beraiek etengabeko sinfonia entzuten dute, enara, igel, ardi, kuku eta beste animaliatxo batzuen.

7.- Guk mikrouhin labean prestatzen dugu janaria. Beraiek, ordea, jaten duten guztiak, beheko suaren egur zaporea dauka.

8.- Geure buruak babesteko, alarma automatikoz jositako hormaz inguratuta bizi gara. Haiek atea irekita

dituztela bizi dira, beraien auzokoen adiskidetasunak babestuta.

9.- Gu smartphone, Facebook, Twitter, telebista eta abarrera konektatuta bizi gara, eta haiek, ordea, bizitza, zeru, eguzki, ur, mendiko orlegi, animalia, ereintza eta beraien familiara daude «konektatuta».

Aita hunkituta gelditu zen alabaren sakontasunagatik... eta orduan alabak honela bukatu zuen:

-Eskerrik asko, aitatxo, irakasteagatik zeinen behartsuak garen gu eta zeinen aberatsak baserritarrak!!!

Gauza materialak ez da dena bizitza honetan...

Apaltasuna eta xumetasuna dira handi egiten zaituztenak, ez ezazu inoiz ahaztu.



BOTA BERTSOA

ESTITXU AROZENA ALBIZU
LESAKAKO BERTSOLARIA

Gazteak bertsotan

Gaia: Irun badaukazu zerbait (Sarriegi)

*Zoaz musika eskolara
Nahiz ez gustatu sistema
Zoaz dantzak ikastera
Ongi orraztu melena
Ingelesa jakitea
Dugu garrantzisuena
Nola ez hainbertze kirol
Hemen futbola, gorena
Messiren jokaldi bikain
Ta Cristianoren txilena
Youtuben ibil naiteke
Ordu luzeetan barrera
Nahiz ta ez diren milaka
Bakoitza da garaipena
Norbaitek bertso eskolan
Ematen badu izena.*

*Bertsoa kultura bada
Historia du atzetik
Bertsoa musikak ere
Lagundu ohi du gogotik
Bertsoa hizkuntza bat da
Euskaraz ta euskaratik
Aurkaria ulertzeko
Rolak aldatzen badakit
Jendaurrean aritzeko
Autoestima dagokit
Irri egin arazten dut
malkoak sortu kolpetik
aldeko argumentuak
soberan gelditzen zaizkit
Lojidak ez baitu agintzen
Maitasunaren gainetik.*

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

Zuk egiten duzu posible

Zuri esker

Beatriz Zazpe

42 urte

Burgi

Jasotako **laguntza publikoari** esker, ikuztegi industrial bat ireki du eta lau lanpostu sortu

Maiatzaren 2tik aitzina, **OGASUN BULEGO BERRIA** zabalduko da Doneztebeko Merkatarien karrikako 6 zk.an, zerbitzu iraunkorra emateko eskualdean



2017ko ERRENTAREN ETA ONDAREAREN AITORPENA

Apirilaren 10etik ekainaren 22ra



Gaizka Sarasolaren, Mairu Antzerki Taldearen sortzaileetako baten, gidoiak dira taldeak azkenaldian taularatu dituen lanen oinarri. NEREA BAZTERRIKA

«Ezohiko egoerak ohiko giza ekintzen isla dira»

GAIZKA SARASOLA MAIRU ANTZERKI TALDEKO GIDOILARIA ETA ANTZEZLEA

Sarasolaren antzerkigintzak, absurdoaren ikuspegitik, ikusleei komunitateak dituen jarrerak ikusaraztea du helburu. Ikusleengan eragiteko, kontaketak musika eta dantzaz hornitzen ditu

NEREA BAZTERRIKA LESAKA

Trizikloan abiatu zuesen Mairu Antzerki taldeak ibilbidea, 1999aren bueltan. Urteak joan urteak etorri astinaldi ederrak eman dizkiete pedalei: itzulpenekin hasi ziren; ondotik, zazpi bakar-solasez osatutako lan bat sortu zuten; eta pixkan-pixkan, Sarasolen gidoietako tintaren norazkoa jarraitu du taldeak.

Musikari, dantzari, idazle...

Ttikitan txistua jotzen eta dantzan hasi nintzen. Ondotik txistuaren inguruan irrika piztu zitzaidanez, musika-tresna hori eta dantza uztartu nituen. Ez dut bereizketarik egiten, dena gorputz-adierazpena da. Antzerki barrenean dantza dago; dantza, hein batean, antzerkia ere bada. Batean zein bertzean musika

behar da. Batzuetan alor batek indar gehiago hartzen du, kontatu nahi denaren edo eragin nahi denaren arabera. Halere, alor batzuetan ero-soago sentitzen naiz, idazten, errate baterako, oholtza gainean baino aunitzez gehiago gozaten dut.

Antzele ere bazara... zer da antzerkia zuretzat?

Komunitateak bere buruaren isla aurkitzen duen ispilua da. Nik kalean ikusten dudana irudikatzea bilatzen dut. Fikziozko espazio eta denbora

«ANTZERKIA, DANTZA ETA MUSIKA ELKARREN OSAGARRI DIRA»

batean errealitate zatiak kokatzen ditut. Pertsonaiak eta testuingurua aldatuz, errealitatea desitxuratuz, gehiegikeria baliatuz... gure buruaz solastatzeko aukera eskaintzen duela erranen nuen. Nire kasuan, kanpora begira erakitzen dut, ikusten dudana hori azaleratuz; eta ikusleei komunitate gisa ditugun jarrerak eta jokamoldeak ikusaraziz, herritarrengan eragitea izaten dut helburu. Zentzu horretan, antzerkia galderak egin edo zalantzak eta kontraesanak

«ANTZERKIA KOMUNITATEA ELKARTZEN DUEN ERRITU BAT DA»

plazaratzea ere bada. Momentuan ikusten ditudan gatazkek bideratzen dute nire antzerkigintza. Era berean, antzerkiak alor aunitz bateratzeko bide ematen dit. Horrela, guri (edo dugun antolaketa sozial eta politikoari) buruz solastatzen du eta horrek identifikatuta sentitzea eragiten du. Azken batean, komunitatea elkartzen duen erritua da, dantzak izan daitezkeen bezala.

Ikuslearengan eragin hori lortzeko, zer estrategia erabiltzen duzu?

Musika, soinuak... aunitz baliatzen ditut. Irakurle eta ikuslea zeinahi delarik ere, horrek guztiak izan dezakeen eragina aurreikusten saiatzen naiz. Noiz eta zein hitzekin eragin zehaztuta uzten dut. Istorioa kontatzerakoan baliabide horiek ustiatzeak garrantzi handia du, momentuaren arabera ikuslea aztoratu edo lasaitzeko. Tarteka ikuslea geureganatzeko isiluneek, argiek... ere indarra hartzen dute, kontatzen ari zaren horretan murgilduaraziz.

Kontaiguzu antzerkigintzan egin duzun ibilbidea.

Nire ibilbidea Mairu Antzerki Taldera lerratua izan dela erran dezaket. 1998aren bueltan Bortzirietako Euskara Man-komunitateak gazteake euskal

antzerkigintzara hurbilarazteko, eginiko ikastaroan izan nuen antzerkigintzarekiko lehendabiziko hartu-emana. Ramon Albisturren gidaritzapean, gorputz adierazpenak izan genituen langai. Ikastaro horretan esku hartu genuen kide batzuk gogoz gelditu ginenez, bortz lagun elkartu eta Mairu Antzerki Taldea sortu genuen.

Trizikloan lehendabiziko lana...

Bai, Fernando Arrabalen *Trizikloa* antzerki-lana euskaratu eta plazaratzea erabaki genuen. Urte eta erdiko lan-ketaren ondotik, 1999an plazaratu genuen, Albisturren zuzendaritzapean. Lan horrek antzezleonek eta herritarren arteko hartu-emana eraikitze-ko zubi-lana egin zuen. Ondotik, madrildar batek, Zugarramurdiko sorginei buruz idatzirikoa lan bat euskaratu genuen. Herriko dantza taldearekin bat egin genuen ikuskizuna prestatzeko.

Itzulpenetik sormenera...

Bi lan horien ondotik gure lanak sortzeko momentua ailegatu zen. Lehendabiziko sormen lana zazpi bakar-solasez osatua izan zen. Bakoitzak berea landu zuen. Hortik aitzinera Mairu Antzerki Taldeak eginiko lanak nik idatzitakoak izan dira.

Erleak, satorrak eta beleak liburuak, hiru antzezlanen bilgune.

Urak ttiki dire Gilkirtxaro antzerki taldearen eskariaren harira eginikoa; *Lur azpikoak* Café bar Bilbao lehiaketarako prestatutakoak eta *Talaka* lanek osatzen dute liburuak. Hiru lanak absurdoaren ikuspegitik eta surrealismotik idatziak dira. Pertsonaien arteko jokoa, elkarrizketak... eraikitzean, oharkabean, korronte horretatik jotzen dut. Nire antzerkigintza nahiko Beckettianoa dela erran izan didate, eta bere estiloa aintzat hartuz, ezin ezetzik erran. Izan ere, ezohikoak diren egoera aunitzek ohiko jarrerak eta ekintzak nola egiten ditugun erakusteko balio dutela uste



Mairu Antzerki Taldea. UTZITAKO ARGAZKIA

dut. Hori horrela, nire antzerkigintzan helmuga jakinik gabeko elkarrizketek indarra eta garrantzia hartzen dute.

Halere, bakoitzak bere berezitasunak izanen ditu, ez?

Talaka lanak, forma aldetik berritzaileagoa, gogorragoa, hauskorragoa eta zatarragoa denez, talka eragiten duela erran daiteke. *Urak ttiki dire* lanak, berriz, hizkera poetikoagoa du, kokapenak, hau da, naturak, basoak... hala bideratuta. Kasu horretan mamia politikoagoa da. *Lur azpikoak* hizkera aldetik, ez da horren poetikoa, ostatuak, toki itxia izaki, horretara bideratu ninduelako akaso. Azken horretan lanaren muina sozialagoa da. Baina bereiz-

«**IDAZKERA
ESPASIO ETA
EGOEREK
BIDERATZEN DUTE**»

keria horiek ez dira inondik inora kontziente eginikoak, gaiak, pertsonaiak, espazioak, egoerak... bideratuak dira.

Zein da Txoriak eta zauriak azken lanaren abiapuntua?

2015ean Organerok argitaraturiko *Batallón de pico y pala* liburuan ditu erroak. Lesako Agiña eta Aritxulegiko errepidea egiten ibilitakoen inguruan eraikitako saiakera horren harira, Toledoko Unibertsitateko historialari batek lanean ibili zirenen ikerketa egin zuen. Bukaeran langileen izena, jaioterria eta lanbidea bildu zituen. Zerrendatik Juan eta Isabeloren lanbideek atentzioa eman zidaten, ikazkina eta musikaria baitziren, hurrenez hurren. Areago, 500en artean

«**AMATEURREN
SAREA GENUENEAN
ERRAZAGO
MUGITZEN GINEN**»

ikazkin eta musikari bakarra zeuden. Ildo horretatik, Lesakan ikazkinaren figurak eta ikatzak izan duten garrantzia tarteko, bitxia iruditu zitzaidan. Herrian horren barneratua dugun Olentzeroren jatorriarekin Toledotik etorria izan zitekeela erranez gero... Buruari eraginez, bi pertsonaia horiek eskapatzea eta gaur egunera bitarte inguruko batorren batean bizirautea lortu zutela gogoratu zitzaidan eta abiapuntua hori izan zen. Horrek memoriaz solastatzeko, bai Gerra Zibileko bai eta egungo gatazkari tarte egiteko ere, bide eman zidan. Errelatoa eta hitzak, joratu nahi nituen gaiekin bateratuz, osatu nuen antzerki-lana.

Non egin dituzue emanaldiak?

Txoriak eta zauriak momentuz Lesakan eta Beran eskaini dugu. Amateurrak izaki gure helburua ez da ahal bezainbertze saltzea, kontatu nahi dugun hori ahalik eta txukunen kontatzea baizik. Formatu ttikiko lanak errazago hedatzen dira. Helburua hori bada eremu ttikitik mugitzeko lanak egitea komeni da, aunitzetan herriek ez baitute antzerkiak behar duen adinako espazio edo baliabiderik. Erraterako, *Errege, soldadu eta bufoia* lana edo bakar-solasak dezente mugitu genituen. Maulen, Barkoxen, Bermeon, Bilbon, Gasteizen, Etxarrin, Oiartzunen, Oreretan, Itziarren... ibili izan gara. Garai batean, amateurren artean sare handi eta sendo bat zegoenez, errazago mugitzenginen. Orain zailagoa da. Gero eta antzerkilan gehiago egiten dira, eta horrek ere badu bere eragina.

Etorkizunera begira, baduzu bertze egitekorik buruan?

Berriki arte Fuchs anaiek argitara emandako *Zazpi senideko* obrarako idazten ibili naiz. Orain, bertze zerbait idazten ari naiz, baina ez dakit horrekin zer egingen dugun... Momentuz ongi pasatzen ari naiz, gero gerokoak. Bere bidea egingen du.

«Nire ahotsa aurkitzeko utzi nuen herria»

XARRE BIDEGAIN DANBORIENA SAN FRANTZISKON (AEB) BIZI DEN LEKAROZTARRA

Bizi erdia baino gehiago darama San Frantziskon Xarre Bidegain lekaroztarrak. Tabu, estigma eta jazarpenetatik ihesi joan zen duela 32 urte, baina jubilatzen denean, Baztanerat itzuli nahi du

G. PIKABEA LEKAROZ

Badu zer kontatua eta merezi du bere historia aditzeak. Hunkigarria da, ametsakegia bihurtzen ahal direla erakutsi duen adibide garbia eta eredugarria. Oztopo aunitz gaintu behar izan ditu bizitzan, baina 56 urterekin, harro mintzo da bere buruaz Xarre Bidegain Danboriena lekaroztarrak. Urte luzeko borrokaren ondotik, «tabu, estigma eta jazarpenez» inguratuta bizitzetik, «burua tente eta ahots garbia» izatera pasatu da.

Tabuz betetako haurtzaroa eta nerabezaroa

1961eko abuztuaren 11n sortu zen Zizurkilgo Fraisoron (Gipuzkoa), baina Lekarozen egin zituen bizitzako lehen-dabiziko urteak, 25 urte bete gabe, urrats garrantzitsu bat ematera ausartu zen arte. Kontatu digunez, «tabu eta isiltasunez inguratuta hazi nintzen. Ama ezkongabearen alaba naiz eta nire ama haurdun utzi zuena nor zen ez nuen jakin kanpoko norbaitek erran zidan arte». 14 urte zituen orduan. «Ezusteko ikaragarria hartu nuen Lekarozko bertako norbait zela jakin nuenean», adierazi du.

«Hainbertze sekretu eta estigmeekin bizitzeak itotzen ninduen», dio. «'Zu nor zara?' edo 'norena zara?' galdetzen zidatenean, 'ni Xarrekoa, Txefana' erantzun, eta ondotik heldu zen 'aaaaa!' eta galdera egin zuenaren aurpegiak berriz ere sekretu, estigma eta tabuak gogora ekartzen zizkidan».

Ama ezkongabearen alaba izateari, «nerabezaroan, nire aukera sexualaren estigma gehitu zitzaion», erran digu. «Emakumeak gustatzen zaizkit eta arras gazterik lesbiana bezala identifikatu nintzen».

Horrek hainbat galdera sortzen zizkion: «nola planteatu nezakeen Baztanen gelditzea? Zein aukera genituen orduan? Bordatxo eta Maitena neguan, eta herriko bestak udan. Eta lesbiana batendako?».



Xarre ezkerrean, Lekarozen, bere anaia Jexuxekin. UTZITAKO ARGAZKIA



Xarre ezkerrean, Vanya bere bikotekidearekin. UTZITAKO ARGAZKIA

«SEKRETU ETA ESTIGMEKIN BIZITZEAK ITO EGITEN NINDUEN»

«AHAL BEZAIN LASTER IHES EGIN NUEN BAZTANDIK AMERIKETARA»

Etxean eta kanpoan, «urte dezentez», jazarpen sexuala jasandakoa da. «'Eramanen zaitut etxera' erraten zidaten, baina ez zuten Lekarozko *grutan*, hilerrian edo Arraiozko harrobian egin behar zuten geldialdia aipatzen. Akabailan, goizeko hiruretan oinez etxerat. Hurrengo egunean hilerrian bakar-bakarrik utzi zizunak zure ezezkoa ulertzen ez zuelakoz, 'atzo zer gisa, ongi ailegatu zinen?' galdetzen zizun. Egoera horiek ohikoak eta normalak zirela pentsatuz hazi nintzen».

24 urterekin Ameriketara

Garbi dio: «ahal bezain laster ihes egin nuen». 1986a zen, Bidegainen irudiko, «kontaktu edo dirurik ez zuen gazte lekaroztar batendako aukera guti edo batere ez zeuden» garaia. «Gizonezkoek Latinoamerikarako emigrazioaren aukera zuten, baina emakume batendako pentsaezina zen».

Berak sentitzen zuen ezinegona, ordea, haundiegia zen etxean gelditzeko, eta «1986ko sanferminetan, nire ametsakegia bihurtu zen. Lekarozko bi lagun onek Madrilerat eramanez ninduten urdaiazpiko tortilla bokata eta ardo zatoarekin». San Frantzisko (AEB) zuen jomuga: «estigma, tabu, sekretu, isiltasun eta batez ere emakumeekin liluratua zegoenarendako meka zelakoz. San Frantzisko gay eta lesbien meka zen».

Ameriketara ailegatu orduko, euskal komunitatera hurbildu zen, baina «nire aitzineko belaunaldiaren Baztanerat ailegatu nintzela sentitu nuen. Sekretu, jazarpen eta tradizio konformista gehiago aurkitu nituen». Hala, «euskal komunitatetik ere ahal bezain laster egin nuen ihes». Ondoko urteak «gogorrak baina askatzaileak» izan zirela adierazi digu.

Dena berria zen Bidegainen dako Ameriketara, tartean, solasik egiten ez zuen hizkuntza. Hasmentan, ingelesez jakin gabe egiten ahal zituen



Xarre San Frantziskon, Mateo Ameriketako ilobarekin. UTZITAKO ARGAZKIA

lanetan aritu zen: autoak eta ontziak garbitzen, pizzerietan... «Zerrenda amaigabea izan zen, ezinezkoa da denez oroitzea». Hondarrean, «kostatu zitzaidan», baina lortu zuen ingelesez ikastea.

Jende aunitz ezagutu zuen, «arras jende desberdina, baina antzeko esperientziakin. Ni bezalaxe, estigma, jazarpen eta tabuekin biziraun dutenak». Haiek guztiak «izugarri lagundu» omen zioten «nire burua onartzen, maitatzen eta nire errealitatearekin bizitzen. Ez da bide erraza izan, baina bai istorio eta abenturez bete».

22 urte irakasle lanetan

Irakaslea da gaur egun. 22 urte daramazki lan horretan San Frantziskoko hezkuntza sistema publikoan. Tarte horretan, 5 eta 18 urte bitarteko haur eta gazteekin aritu da lanean, berak dioenez, «hiriko zuri pribilegiatuetatik hasi eta sistemako kaltetuenak diren paperik gabekoetaraino». Ongi ezagutzen ditu hiriko eskola elebidun guztiak, «administrazioan, zortzi urtez ibili nintzen eskola guztietako irakasleei laguntzen». Orain dela hiru urte, berriz, berak nahi zuen eskola aukeratu ahal izan zuen eta hortxe segitzen du:

«muga pasatu eta San Frantziskorat ailegatzen diren paperik gabeko haur guztiak etortzen dira eskola ttipi honetara». Haur horiek urte bat edo bi pasatzen dituzte hor: «lehenbizi, beraien hizkuntzan, espainolez, alfabetatzen dira, eta gero ingelesez hasten dira, kultura berria barneratzen duten bitartean».

Bere hitzetan, «estigmatizatuak dauden haurrak» dira, «gehienak indigenak dira, desegituratuak dauden familietatik heldu direnak. Aunitz ama ezkongabeen seme-alabak, indarkeria eta jazarpen sexualaren biktimak dira». Bere lana «beren ahotsa aurkitu dezaten laguntzea» dela azaldu digu: «lehenbiziko eta bigarren mailan erakusten dut eta haur bakoitzarengan potentziala ikusten dut, ihes egiteko aukera bat eta irtenbide posible bat».

Eskolako lanaz gain, San Frantziskoko unibertsitate publikoan lanaldi erdian ari

«GIZONEZKO BATEKIN EZKONDU NINTZEN PAPERAK LORTZEKO»

da: «lan hau udaro Baztanerat itzultzeko dirua behar dudalakoz egiten dut. Erraza da, baina nire bihotza eskola ttipian dago». Agerian utzi du eskola horretako neska-mutiko horiekin lotura berezia duela: «sei eta zazpi urteko Xarre leharoztarra oroitarazten didate».

Haur horien gisa, paperik gabe bizi izan zen bera ere San Frantziskon: «hamabi urtez, herrialdetik atera ezinik egon nintzen, paperak konpondu nahian». Hondarrean, gizonezko batekin ezkondu behar izan zuen paperak lortzeko, «nahiz eta nire orduko bikotekidea estatubatuarra izan, emakumea zelakoz ezin ginen ezkondu, ezta San Frantziskon ere». Bizileku-baimena lortu zuenetik Baztanerat itzultzen da urtero.

Baztanerat itzultzeko ilusioz

Dagoeneko 32 urte daramatza Kalifornian, eta horietatik 31 San Frantziskon. Baina biho-

«HERRIA UTZ DEZAKEZU, BAINA HERRIAK EZ ZAITU SEKULA UZTEN»

tzean darama sorlekua. «Hiru hamarkada pasatu ondotik, herria utz dezakezula erraten ahal dut, baina herriak ez zaitu sekula uzten. Momentu zailenetan, herriak eta kulturak indarra eta sustengua eman zidaten; herriak sustraia eta oinarri sendoak eman zizkidalakoz biziraun nuen». Baina aldi berean, aitortu digu, herriak joan nahi zuela: «nire ahotsa aurkitzeko herria utzi behar izan nuen; bide luzea egin behar izan nuen Xarre topatzeko, eta orain, 32 urte beranduago, eroso sentitzen naiz bere larruan».

Urtero, ekainean etortzen da Baztanerat. «Aunitz errespetatzen dudana amarekin kontaktua behar dut, nire gainerako senideekin eta Baztango betiko berdearekin kontaktua». Legate gogoan du: «Legate izan da beti nire iparra, bai Baztanen eta bai San Frantziskon ere. Lagun aunitz egin ditut, baina hurbilekoak guti, eta oraindik ere, gehienbat baztandarrekin segitzen dut lotura izaten, betikoekin».

Nola diren kontuak, duela 32 urte ihes egin zuen tokira itzuli nahi du. «Nire lan-bizitzako azken txanpan nago, sei urte egiditzen zaizkit San Frantziskoko eskola barrutitik modu erosoan jubilatuta ahal izateko. Argi dut ez naizela hainbertze eman didan hiri eder honetan geldituko». Seguru dago Baztanerat itzuliko dela, «nire Elizondoko pisurat. Han biziko naiz urteko sasoi batzuetan, udan behinik behin, eta neguan ikusiko dugu». Horrek kontradikzioa dirudiela onartu digu: «norabide batean errepikatzen zen bueltarik gabeko bidaiatxartelaren ametsa, orain, kontrako norabideko bueltarik gabekoa bihurtu da». Baina beretako, «ez da kontradikzioa, ziklo baten itxiera baizik. Atera eta Xarre topatu behar nuen berarekin itzultzeko, estigma, jazarpen eta taburik gabe itzultzeko. Burua tente eta ahots garbiarekin itzultzeko». Eta lortu du.

Mugaz Gain antzerki jaialdian aktore gazteak ariko dira

Maiatzaren 10 eta 11n DBHko ikasleen txanda izanen da eta maiatzaren 17 eta 18an herriko ikastetxeetako LHkoena

TTIPI-TTAPA

Mugaz Gain antzerki jardunaldiak egingen dituzte aurten ere Kultur Etxean. Maiatzaren 10 eta 11n DBHko ikasleen txanda izanen da goizez eta Labiaga Ikastolak, Toki Ona institutuak eta Pasaia-Lezo Lizeoak parte hartuko dute.

Maiatzaren 17 eta 18an Jesusen Bihotza ikastetxea, Labiaga Ikastola eta Ricardo Baroja Eskola publikoko Lehen Hezkuntzako ikasleak izanen dira taula gainean. Goizean ikasleentzat emanaldiak eskainiko dituzte eta arratsaldean ate irekiak.

Musika eskolan aurrematrikula epea bukatzeaz

Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolan 2018-2019 ikasturterako aurrematrikula epea apirilaren 30etik maiatzaren 11ra zabalik dago (biakbarne). Edozein zalantza argitzeko, eskolako idazkaritzako ordu-tegia astelehenetik ortzirralera, 16:00etatik 19:30era.

Txotxongilo ikuskizuna larunbatean

Enkarni Genuak eta Manolo Gomezek osatzen duten Txotxongillo taldeak *Itsasminex* txotxongilo ikuskizuna eskainiko du maiatzaren 5ean, larunbatean 12:00etan Kultur Etxean. Labiaga ikastolak antolatutako emanaldirako sarrera 3 euro kostako da.



ALICIA DEL CASTILLO

Xabier Lanzek atera du Lehenbizikoa

Xabier Lanz, 30 urteko beratarrak atera zuen Bidasoko Lehenbizikoa Naza inguruan, kutxarilla erabiliz. 4,750 kiloko pisua eta 77,5 zentimetro luze zuen apirilaren 18an (sasoiko laugarren egunen) arrantzatutako izokin emeak. Iruñeko Ansoleaga 33 jatetxeak erosi zuen, 1.700 euroren truke.

Doninorrez eta Beñat Igerabideren kontzertuak

Maiatzaren 6an, igandean 19:00etan Doninorrez taldeak kontzertua eskainiko du Katakun, Mugiro bila diska aurkeztuz.

Hilaren 12an, larunbatean 20:00etan Kultur Etxean, kontzertua eskainiko du Beñat Igerabideak. Sarrera: 5 euro.

Musika Eskolako Ganbera taldearen emanaldiak

Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolako Ganbera taldeak emanaldiak eskainiko ditu maiatzaren 16an (asteazkena) eta maiatzaren 21ean (astelehena), 17:30ean Musika Eskolan. Bertze aldetik, Bera Kantari maiatzaren 26an izanen da, Illekuetatik abiatuta.


Astelehenetik ortzirralera:
07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandea:
08:00etatik aitzinera
948 631 076 • BERA


Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602


· INGENIARITZA ELEKTRIKOA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK
· BOLETIN INDUSTRIA
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA


JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info


PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa
Itzea 1, behea • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN


www.logurak.com





 Centro Prim  regina tolosaechepare


F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

Nafarroako kenpo kai txapelketa igandean jokoan

Larunbatean, berriz, Felix Errandonearen omenez 41. Txirrindularitza lasterketa antolatu du Gure Txokoak

TTIPI-TTAPA

Maiatzeko lehen asteburua mugitua izanen da herrian kirol arloan. Maiatzaren 5ean, larunbatean 17:00etan abiatuko da Gure Txokoa elkarteak antolatutako Felix Errandonea XLI. Memoriala, junior mailako txirrindulariei zuzendutako lasterketa. 78 kilometro osatu beharko dituzte eta Gure Txokoak boluntarioen laguntza behar du, bai bideguru-tzeetan egoteko, baita mototan joateko ere. Animatzen denak, guretxokoaelkartera@gmail.com helbidera edo 626

309438 telefono zenbakira mezu bat idatzi dezake. Egunean bertan 16:15 aldera lasterrenean egon beharko dira boluntarioak.

Nafarroako kenpo kai txapelketa igandean

Maiatzaren 6an, igande goizeko 10etan hasita, Nafarroako Kenpo Kai txapelketa jokatuko da Toki Ona kiroldegian. Berako Kenpo Kai taldeak antolatu du txapelketa, Nafarroako Karate Federazioa eta diziplina elkartuak eta Berako Udalaren laguntzarekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Liburuaren Egunean Zalakain irakurtzen

Pio Barojaren *Zalakain abenturazalea* eleberriaren ahoz gorako irakurketa publikoak goxatu zuen Altzateko plazan dagoen parkea apirilaren 23an. Liburuaren Eguneko eta Toki Onaren 50.urteurreneko ospakizunek bat egin zuten. Ikasle eta irakasleekin batera, hainbat lagun bildu dira irakurtzera.



BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK
bizikleta estatikoak, lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

www.kateabike.com

Kanttonberri, 1 | BERA | T. 948 631 218 | joxemi@kateabike.com

ETORRI ETA SOLASTUKO GARA



ORBEA

CONDOR

MERIDA

SCOTT

BH

TREK

Sanferminek badute kartela eta egitarauaren azala

Kartela eta portada Garazi Conde Orubek egindakoak dira eta programaren gibelego azala Onintze Iparragirrek margotua

AITOR AROTZENA

Lesakako Sanferminak iragarriko dituen kartela eta besten programako azalean eta kontrazalean joanen diren irudiak aukeratu dituzte. Karteletan, iaz bezala, Garazi Conde Oruberen lan bat saritu dute, *Plazan* goiburua daramana. Lau lan aurkeztu dira lehiaketara. Programaren azalerako lehiaketara ere lau lan aurkeztu dituzte eta hemen ere Garazi Conderen bertze lan bat aukeratu dute, *Fandango II* izenekoak. Bakoitzarengatik, 250na euroko bonoa eskuratuko du saritzat, herriko komertzio, zerbitzu edo ostatuetan erabiltzeko.

Programaren kontrazala

Herrian Lehen Hezkuntza ikasten duten ikasleei zuzendutako programaren kontrazal lehiaketara 130 lan aurkeztu dituzte eta horien artean, Onintze Iparragirre Irigoienek *Zezen artista* aukeratu dute irabazle. Honek, 100 euroko bonoa izanen du saritzat, herriko dendetan eskolako materiala erosten erabiltzeko, bere lana programaren gibelego azalean argitaratua ikusteaz gain.


Aste Santu inguruan Turismo Bulegoan egindako erakusketan herritarrek emandako bozkekin aukeratu dira aurten ere Sanferminetako irudi irabazleak. Erabaki honekin, eta bi hilabete eskas falta direla, besta *usaina* somatzen hasia da herrian. Besta Batzordeak ere lehen bilerak egin ditu eta hasia da uztailearen 6tik 10era egitarauaren xehetasunak lotzen.



Kartel irabazlea. GARAZI CONDE ORUBE



Programaren azala. GARAZI CONDE ORUBE



Zezen artista. ONINTZE IPPARRAGIRRE



JON MARTINEZ

Tantirudantza arrakastatsua izan zen

Herriko Tantirumaitu Euskal Folklore taldekoekin batera, Berako Gure Txokoa, Zumaiako Txori Txiki, Ibarrako Alurr eta Lezoko Murixka dantza taldeko ehun bat dantzari ttikik parte hartu zuten apirilaren 22ko Tantirudantza jaialdian. *Zubigainekoa* ere dantzatu zuten herrikoek.



AITOR AROTZENA

Txamukos mariatxiak Zahar Etxean

Giro ederra paratu zuen Txamukos Mariatxiak taldeak apirilaren 21ean Andra Mari Zahar Etxean. Mexikoko doinuak eta kantuak adituz eta abestuz gustura egon ziren bizilagunak. Ondotik, larunbat arratsean, Irubide jatetxeko afari mexikarrean ere parte hartu zuen Txamukos taldeak.

Abesbatzen Topaketa komentuan apirilaren 12an

Giltzarri Abesbatzak, udalaren laguntzaz Bortzirietako Abesbatzen III. Topaketa antolatu du apirilaren 12an, larunbatean 20:00etan komentuan. Giltzarriekin batera, Burgosko Gambera Abesbatza eta Azkoieneko Udal Musika Eskolako Abesbatza ariko dira.

Salva Yanci zenaren omenez bosgarren Zikloturista Martxa

Salvador Yanci zenaren omenez V. martxa zikloturista ez lehiakorra egingen dute maiztaren 13an, Bete Gazte, Gure Txokoa, Erreka, Aizan, Baztandarra, Urtxintxa eta Iganztziko Biltoki elkarteak eta Lesakako Udalaren laguntzarekin antolatuta (09:00).

XXVI. Gasna eta Artisau Feria ekainaren 3an

Asteburu horretako ospakizunetarako egitarau zabala antolatzen ari da Altxata elkarte

IRUNE ELIZAGOIEN

Ekainaren 3 goizean XXVI. Altxata Gasna Lehiaketa antolatu dute eta inguruko gasna egileek beraien gasna aurkezteko aukera ere izanen dute. Parte hartu nahi duenarentzat hauek dira lehiaketaren oinarriak:

- Bortziriak, Malerreka, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Leitzaldean bizi diren artzain edo gasna egileak parte har dezakete.

- Ardi latxaren esne gordinarekin egindako gasna txapelketa da.

- Lehiaketarako gasnak gutxienez 60 egunez onduak izan behar dute.

- Egile bakoitzak gasna bakarrik aurkez dezake.

- Gasna bakoitzaren truke 15 euro emanen da.

- Gasnak ekainaren 3an, 11:00 baino lehen ekarri beharko dira Etxalarko plazara.

- Hauek izanen dira sariak: Irabazleak 120 euro, bigarrenak 90 euro eta hirugarrenak 75 euro. Etxalarko gasnen artean lehenengoak 50 euro eskuratuko ditu eta bigarrenak

30 euro. Gasnak lehiaketa honen antolatzaileen eskutan geldituko dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero, 619 236611 edo 697 397567 telefonora deitzen ahal dute. Lehiaketaz gain, bertze ekitaldiak ere izanen dira.

Bertze zerbitzua eskainiko du Usoa kooperatibak

Apirilaren 14an Usoa nekazari kooperatibak urteko batzarrara egin zuen. Ondotik, ohitura den bezala, La Basque jatetxean afaria izan zuten bazkideek.

Aipatzekoa da, kooperatibak kudeatzen duen herri sarre-rako gasolindegia hemendik aitzinera bertze zerbitzua eskainiko duela: berunik gabeko gasolina, gasolina 95, hain zuzen ere.

Zerbitzu horretaz eta bertze hainbat kontuz aritu ziren bai batzarrean, bai afarian baita afalondoan ere.



AINHOA ALMANDOZ

Landagain eskolako ikasleak elurretan

Apirilaren 15etik 20ra Landagain eskolako 5. eta 6. mailako 17 ikasle joan ziren Isabara Aste Zuriar gozatzera. Ekintza ugari egin zituzten bertan, tartean Gayarre museoa bisitatu. Eguraldia lagun, giro ederraz gozatzeko aukera izan zuten ikasleek ikasturtearen akabera hurbil daukaten honetan.



ARANTXA BIZENTE

San Migelen etorrera

Urteroko ohiturari segituz, apirilaren 21ean Aralarko San Migel aingeruaren irudia etorri zen Etxalar herrira. Arratsaldeko zazpitan meza izan zen eta ondotik elizako arkupean datorren urtera arte agurtu zuten sinestunen artean debozio handia sortzen duen irudia.

Hemen erabili
DenokBat
kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA
Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

USOA
Nekazari kooperatiba
• Pentu ekologikoak
• Kalefakzio eta ibilgailuendako gasolina
• FORZECAN ZAKUR ETA KATUENDAKO PENTSUA
T. 948 635 214 ETXALAR

Alberto RETEGI
abokatua
abokatua
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL
Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

ARANTZA

Arantzako Mendi Itzulia maiatzaren 20an egingen da

Lagundu nahi dutenei maiatzaren 11n eta 18an egingen diren bileretan parte hartzeko dei egin die Ekaitza Elkarteak

NEREA ALTZURI

Mendia gustuko dutenentzat gozatzeko moduko hitzordua izanen da maiatzaren 20an, Ekaitza Elkarteak antolatuta, Arantzako IX. Mendi Itzulia egingen baita herria inguratzen duten mendietan barna. 07:00-07:30ean plazatik abiatuko den ibilbideak 27,9 kilometro eta 1.600 metroko malda du eta mendizaleek Arantzako mendi-zirkua osatzeko aukera izanen dute Itsaszelaita (515 m), Izu (829 m), Ibintza (1.032 m), Ekaitza (1.042 m), Illurdi (1.075 m) eta Mairubaratza (750 m) puntuetatik pasatuz.

Izen-ematea

Egunean bertan edo maiatzaren 19a baino lehen Internetez eman daiteke izena www.menditzulia.com-en. Facebooken ere bada informazioa.



2016ko itzulian Mikel eta Xuban.

Guztia antolatzeko herritarren laguntza beharrezkoa denez, bi bilera egingen dituzte ondoko asteetan Ekaitza Elkarteak: maiatzaren 11n, lantaldeak osatzeko bilera egingen dute, 19:00etan. Azken kontuak lotzeko, maiatzaren 18an hondarreko bilera izanen da, ordu berean.

Ekaitza Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie babesle eta laguntzaile guztiei.

Harritik Hazia antzezlana maiatzaren 12an

Aitzineko aldi batean erran bezala, oroimen historikoan oinarritutako *Harritik Hazia* antzerkia herrian berean ikusteko aukera izanen da maiatzaren 12an. Emakumeak protagonista dituen antzezlana eskolan eskainiko dute, 20:00etan.

Nerabezaroa hizpide izanen duen solasaldia

Nerabezaroaren inguruko hitzaldiek aitzinera segitzen dute. Hurrengo, maiatzaren 9an izanen da, Baskulan, 17:00etan. Nerabezaroan sustantzien kontsumoak eragiten dituen ondorioak aztertuko dituzte. Izen-ematea: 948 635036 edo info@bortziriakgz.eus.



JOSU GARATE-DANTZAN

Elgoibarren Arantzako Dantza erakusten

Joan den apirilaren 14an, Aintzane Pikabea, Aitziber Lizardi, Leire eta Itziar Mitxelena dantzari eta txistulariak, Elgoibarren izan ziren Arantzako Dantza Luzea erakusten. Dantzan Ikasi programaren barne antolaturiko ikastaroa izan zen. Irudian ageri den moduan, ederki ikasi zuten.



ARANTZAKO HERRI ESKOLA

Eskolako ikasleak bazterrak ezagutzen

Apirilaren 9tik 13ra, DBHko 1. eta 2. mailakoak ikasbidaian izan ziren Bartzelonan eta hango txoko ezagunak bisitatzeko aukera izan zuten. Bertzetik, Aste Zuriaren programaren baitan, 6. mailakoak Izaban izan ziren apirilaren 15etik 20ra. Eskiatzeaz gain, hainbat ekintzetan parte hartu zuten.

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMEDUAK

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

DESINSEKTAZIOAK
ERA

KSAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA

T. 637 40 86 40 • 31780 BERA • andonimatxako@gmail.com

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satellite bidezko interneta
- Internet konexio simetriko ultralasterra

Udaberriko bestak ekitaldiz gainezka datoz asteburuan

Ortziralean herriko dantza taldearen emanaldia, larunbatean kantu poteoa eta bakarriketa eta igandean antzerkia

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, prest ditu Igantziko Euskara Batzordeak Udaberriko Bestak. Iaz bezala, Liburuaren Eguna ere ospatu dute apirilaren 23an eta liburu bidaiariaren hasiera egin zuten frontoian. Apirilaren 24an haurrentzako zinea izan zuten liburutegian; eta apirilaren 29an, joan den igandean, haurrentzako eta helduentzako zinea Erretorbaitan.

Maiatzeko lehen asteburuko egitarau zabala

Halere, ekitaldi gehienak maiatzaren lehen asteburu honetarako utzi dituzte.

Maiatzaren 4an, ortziralean, 20:00etan herriko dantza taldearen emanaldia izanen dute elizan.

Maiatzaren 5ean, larunbatean, 12:00etan kantu poteoa egingen dute Arantzako Mitxelena aita-semeeekin herriko elkarte eta ostatuetan. 14:00etan bazkaria izanen dute Biltokin. 16:00etan haurrentzako zirko tailerra. 18:00etan haurrentzako berendua frontoian. 20:30ean *Txiki Barrez*

Blai umorezko bakarriketa izanen da Baratzondon.

Maiatzaren 6an, igandean, 10:00etan haurrentzako mendi buelta antolatu dute, herriko plazatik Larrondoko ikuztegiara. 17:00etan, eskolako ikasleek *Igantziko hotela* antzezlan eskainiko dute.

Baratzondo elkarteko egun-pasa

Maiatzaren 15ean, San Isidro egunean, Lizarrara joateko asmoa daukate Baratzondo Jubilatuen Elkartekok. Astearte goizeko 8etan abiatuko da autobusa Lizarrarako bidean. Hamaiketako Iratxen jatetxean egingen dute eta *Tesoro de Bartola* kontserba biltegia bisitatuko dute. Iratxen jatetxean bazkalduko dute. Mahai-jokoak eta dantzaldia izanen dituzte. Etxerakoan Garesen geldituko dira. Joan nahi dutenek, bazkide eta ez bazkideek, maiatzaren 5erako eman beharko dute izena.



OSKAR TXOPERENA

Igerilekuen udaldiko zerbitzua

Igerilekuen udaldiko zerbitzuaz arduratzeko eskaintzak apirilaren 13rako aurkeztu beharrak ziren Herriko Etxean. Luis Mari Andueza aranztarrarena izan da eskaintza bakarra, eta baldintza guztiak betetzen dituen, bera izanen da aurtengo udan lantegi horren arduraduna.



OSKAR TXOPERENA

Mikel Begino Cross-country txapelketan

Mikel Begino gazte igantziarra Nafarroako Cross-country moto-lasterketetan lehiatzen ari da. Apirilaren 22an Santacaran jokatuako proban 23. izan zen sailkapen orokorrean eta bigarren bere mailan, etorkizun polita duela nabarmen erakutsiz.

EDERKI tailerra



CITRÖEN
ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoek moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525



Baztan, Malerreka eta Bortziritako udaletako eta Gizarte Zerbitzuetako ordezkariak, ikastaroa aurkezten. A. ARÓTZENA

Helduek DBH titulua eskuratzeko ikastaroa antolatu dute aurten ere

18 urtetik goitikoei zuzendutako ikastaroa Lekarozko institutuan eskainiko dute arratsaldean eta izena emateko epea maiatzaren 11 bitarte irekia dago

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak, Malerreka-ko eta Bortziritako Mankomunitateak, Gizarte Zerbitzuen bitartez, zonaldeko institutuekin eta Cederna Garalurrekin elkarlanean, eskualdeko helduentzako irakaskuntza

programa publikoa eta doakoa indarrean jartzea lortu zuten 2015ean. Lehen ikasturtean 8-10 lagunek izena eman zuten eta 2016-17 ikasturtean 20 bat lagunek lortu dute DBHko titulua. Aurten hamar lagun ari dira. 2018-19 ikasturterako

izen emateko epea maiatzaren 11 bitarte dago zabalik.

Nafarroako hainbat eskualdetan indarrean zegoen helduentzako irakaskuntza zerbitzua, eta Baztan-Bidasoaldean, berriz, 2015. urtera bitarte ez. «Huts handia suma-

tzen genuen, ikasketak bukatu gabe utzi zituenak aukerarik ez baitzuen ordura arte inguruan ikasketak bukatzeko», aipatu zuen Xanti Uterga Doneztebeko alkateak.

Zerbitzu honekin eskualdean bertan, aukera eman nahi izan diete bere garaian ikasketak akitu gabe utzi zituzten herriarrei. 18 urtetik goitiko herriarrei oinarrizko ikasketak eskaintzea izan da helburua; doakoa eta hezkuntza sare publikoaren bitartez. Parte-hartzaileek Bigarren Hezkuntzako titulazioa eskuratzeko aukera izan dute. Irailetik ekainera izaten dira ikastaroak eta lau hilabeteko lau modulu osatzen dituzte, bi ikasturtean titulua ateratzeko moduan.

2018-2019 ikasturtean ere DBHko titulua eskuratzeko taldean izena emateko, apirilaren 23tik maiatzaren 11ra arteko epea dago eta Lekarozko institutuko bulegoetara deituz egin daiteke. Telefonoa 948 581803 da (astelehenetik ortziralerara 08:00etatik 15:00etara eta asteazkenetan, 16:00etatik 18:00etara). Informazio gehiago Baztan, Bortziriak eta Malerreka-ko Gizarte Zerbitzuan eskura daiteke.





2018-2019 ikasturtea

LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK D EREDUAN (EUSKARAZ)

TOKI ONA BHI BERA

MEKATRONIKA INDUSTRIALA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

MANTENIMENDU ELEKTROMEKANIKOA ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

AURREINSKRIPZIOA MAIATZAREN 7tik 11ra

Telefonoa: 948 625 000

Web orria: <http://iestokiona.educacion.navarra.es>

iesbera@educacion.navarra.es




















VIII. Xabi Telletxea BTT jautsiera eginen dute Igantzin

Maiatzaren 12ko proban Nafarroako txapelketa erabakiko da eta Euskadiko Oponerako puntuagarria izanen da

TTIPI-TTAPA IGANTZI

Xabi Telletxea zena gogoan, aurten ere BTT edo mendi bizikleta jautsiera antolatu du Igantziko Biltoki Elkarteak. Maiatzaren 14an eginen da eta aurtengoa zortzigarren aldia izanen da Xabi Telletxearen omenez, nahiz eta berez, 2002an egin zen lehen edizioa. Izan ere, Xabi Telletxea bera zen proba honen bultzatzaileetako bat (baita parte-hartzailea ere eta Nafarroako txapeldun izana zenbait urtez) eta bere heriotzaren ondotik, herritarrek lekukoa hartu eta



lazko proba. OSKAR TXOPERENA

bere izena jarri zioten jautsierari. Aipatzekoa da, azken urteetan bezala, Nafarroako Txapelketa erabakiko dela Igantziko proban eta gisa berean, Euskadiko Oponerako puntuagarria izanen dela. Beraz, modalitateko Euskal Herriko *biker* edo txirrindulari onenak abiatuko dira Frain kaxkotik herrirako bidean, ikuskizun bikaina eta bizia eskainiz.

Goizean entrenamenduak, arratsaldean lehia

Goizean entrenamenduak eginen dira, 09:00etatik 12:30era eta lehiako lehen txanda edo manga 15:00etan hasiko da. Federatuak izatea derrigorrezkoa da. Egun osoan ostua irekiko dute eta ogitartekoak erosteko aukera ere izanen da.

Informazio gehiagorako 680 704091 telefonora deitu edo igantzikobiltoki@hotmail.com helbide elektronikora idatzi.

Drogen inguruko gurasoendako tailerrak prestatu dituzte Lesakan

TTIPI-TTAPA LESAKA

Drogen inguruko gaietaz hitz egiteko, izan ditzagun gauzak argi goiburupean, Hegoak elkartearen eskutik Bortzirietako gurasoei zuzendutako tailerrak eginen dituzte maiatzaren 17, 24 eta 31n, 17:00etatik 19:00etara Lesakako Harriondoa Kultur Etxeko Zumarra gelan. Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatu du tailerra, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz. Izena emateko 948 635036 telefonora deitu edo info@bortziriakgz.eus helbide elektronikora idatzi behar da.

Arantzan, berriz, maiatzaren 9an, 17:00etatik 18:30era gurasoei zuzendutako tailerra eginen dute Baskulan.



RUTH ILE-APAINDEGIA

948 637 436



ORAIN LPG ENDERMOLOGIE SISTEMA BERRIA!



Azaleko eragina duen kosmetologia eta interbentzio erasokorren artean badago **hirugarren irtenbide bat**, benetan zelulen mugimendua laguntzen duena: **endermologie**

LPG endermologie teknologia frantsesak, fintasunez larruazala estimulatzeko duen jardura zelularra aktibatzen du. Naturala da, ez du minik ematen eta emaitza azkarrak eskaintzen ditu bigarren mailako ondorioz gabe

ENDERMOLOGIE
GORPUTZ
TRATAMIENTUEKIN

- Zelulitisa leundu
- Azala sendotu
- Grasa gutxitu
- Hankak arindu
- Ongizatea lortu

HIRUGARREN SAIOTIK EMAITZA IKUSGARRIAK!!!

Endermologie, zelulen mekanismoa aktibatzen duen estimulazio mekaniko ez inbaditzailea, ez erasokorra eta %100 naturala da

ILE-APAINDEGIKO ETA KABINAKO PRODUKTU NATURALAK:



KolorEko
System
ile-tindua



Perfect body lipout
gorputzerako olio
(LPG tratamenduaren emaitzak hobetzeko)

Ulibeltzak elkarteko juntaren erdia aldatu dute batzarrean

Janire Apeztegia Etxebeste, Iñigo Arrieta Gelbentzu, Aitor Ibarra eta Mari Paz Gelbentzu Almandoz dira kide berriak

MAIDER PETRIRENA

Apirilaren 14an Ulibeltzak elkarteko batzarra egin zen eta bertan hainbat gai izan zituzten hizpide. Bazkideen alta eta bajak, 2017ko kontuak, 2018ko bestak, irailaren 9ko mendi bizikleta ibilaldia eta junta aldaketa landu zituzten, bertzeak bertze.

Azken horri dagokionez, orain arte bi urtetik juntako zortzi kideen aldaketa egiten zen, baina bilera batean erdi eta erdi aldatzea erabaki zuten. Horren ondorioz aurreko juntako lau kidek segitu dute bertze urte batez eta bertze

lau kide aldatu egin dira. Honela gelditzen da Ulibeltzak elkarteko junta (aitzinerago karguak aipatuko ditugu): Iruñe Agirre Maritorea, Daniel Bertiz Bertiz, Unai Bertiz Anzizar eta Xabier Espelosin Jaimerena (lau hauek urte bat gehiago segituko dute).

Juntakide berriak

Juntakide berriak hauek izanen dira: Janire Apeztegia Etxebeste (11 bozka), Iñigo Arrieta Gelbentzu (11 bozka), Aitor Ibarra Mitxelena (9 bozka) eta Mari Paz Gelbentzu Almandoz (8 bozka).

Herriko kirolariak ongi ibili diran eta hemen egindako kirol probetan

M. PETRIRENA

Apirilaren 15ean Berako XIV. Mendi Maratoi Erdia egin zen eta bertan, 21 kilometro baino gehiagoko lasterketa egitera atera ziren 500 kirolari baino gehiagoren artean, Sunbillako Eneko Herrera Urroz, Iñigo Arrieta Gelbentzu, Joseba Gartzia Agesta, Jon Maritxalar Etxenike eta Ana Gomes Coelho. Zorionak!

Horrez gain aipatuko dugu ere Koldo Herrera Urrozek Caja Ruralek antolatzen dituen BTT zirkuituko karrera izan

zuela apirilaren 15ean Tuteran eta bederatzigarren postua lortu zuela. Apirilaren 22an berriz Arnedon ibili zen.

Lodosako ibilbidean

Bertzetik, aipatzekoa da Lodosako XV. Mendi bizikleta ibilbidean ere herriko bartz txirrindularik parte hartu zutela apirilaren 22an: Iker eta Daniel Bertiz Bertiz, Mikel Bertiz Ibarra, Garikoitz Larraburu Bertiz eta Amaia Apeztegia Telletxeak. Zorionak denei, sasoiko zaudete!



OIHANA ARRIOLA, MAITANE IBARRAETA RUBEN IRIGOIEN

Herriko dantzariak Kontxako barandan

Donostiako Kontxako barandan Nafarroa, Gipuzkoa eta Bizkaiko gaztetxo dantzariak parte hartu zuten. Doneztebeko Rebeka dantza akademiak parte hartu zuen, tartean hiru sunbildarrek: Haizea Larzabal Arriola, Maialen Maritxalar Ibarra eta Maren Irigoien Arretxea.



BIXENTE IBARRA

Nafarroako judo txapelketako finaleran

Nafarroako Judoko 2. jardunaldia eta finalak jokatu ziren apirilaren 21ean Mendillorriko kiroldegian, kimu mailan. Bertan Hodei Gastesi Etxebeste, Jon Ibarra Olaetxea eta Uxue Ibarra Mariezkurrena Sunbildarrek parte hartu eta goizaz gozatu zuten. Uxuek bigarren postua eta domina lortu zuen.

San Migelen irudia herrira ere ailegatu da

Apirilaren 22an Aralarko Mikel Goiaingeruaren bisita izan genuen herrian. Igande arratsaldean harrera egin zitzaion udaletxe ondoan egin eta elizaraino prozesioan joan ziren, berriz ere bere bidean segitzeko.



MAIDER PETRIRENA

Osatz
Psikologia- Psikoterapia Haurrak-helduak
Garbiñe Goia Irazoki
GESTALT PSIKOTERAPEUTA ETA BIKOTE ETA FAMILI PSIKOTERAPEUTA
BAKARKAKO TERAPIAK: haurrak, nerabeak, helduak
619 343 755 Altzate 1 BERA

Udaberriko ferian XI. Ahari Lehiaketa eginen dute

Maiatzaren 4an, ortziralean izanen dute eta biharamunean Malerreka Kantuz ekimena eginen da herrian, 12:00etan

MARGA ERDOZAIN

Maiatzaren 4an, ortziralean, Merkatuko Plazan, Udaberriko feria izanen da. 11:00etatik 13:30era bitarte epaimahaikideek herritarrek eramandako dituzten ahariak aztertuko dituzte, ondotik, sariak banatzeko. Guztira, sei sari banatuko dituzte: hiru ahari mutur gorriendako eta bertze hiru mutur beltzendako. Kategoria bakoitzean lehendabiziko saria eskuratzen dutenek ehun eta hogeina euro irabaziko dituzte, bigarren saria lortzen dutenek hirurogeita hamarna eta hirugarren saria irabazten dutenek berrogeita hamarna. Malerrekako eskulangileendako ere hitzordu polita izanen da, salgaiak plazaratzeko aukera izanen baitute.

Udaberriko feria maiatz has-tapeneko hitzordu garrantzitsua bada ere, ez da bakarra. Egun berean, apirilean abiatuturiko *Photoshop* ikastaroaren azken saioa izanen dute, 19:00etatik 21:00etara, Herriko Ostatuan. Herritarrek ekitaldi batzuk akitu orduko, denborarik galdu gabe, bertzeei eginen diete tarte.

Herri Urratsera joateko autobusa antolatu dute

Heldu den maiatzaren 13an Herri Urrats izanen da Senperen. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailako ikasleek joan-etorria egiteko autobusa antolatu dute. Izena emateko ikastetxera joan behar da.



Sei sari banatuko dituzte.

Malerreka Kantuz

Biharamunean, hau da, maiatzaren 5ean, Euskara Batzordeak antolatutako Malerreka Kantuz ekimenak girotuko du herria. 12:00etan dute hitzordua eta herritar zein bisitariak musikariak laguntzaz kantatutako euskal kantez gozatzeko aukera izanen dute. Akitzean, Herrigunean mokadutxoak dastatuko dituzte.

Pintura eta rally fotografikoa

Hilaren 20an, igandean, berri, pintura tailerra eta rally fotografikoa egiteko asmotan dabilta. Dena den, egitarauari dagozkion hainbat kontu lotzeke dituztenez, hurrengo zerbakieta bilduko da horren guztiaren gaineko informazio xeheagoa.

Bartzelonako turismo azokan izan dira

Apirilaren 20tik 22ra bitarte ospatutako ferian Uraren Bailarako kontuak daramatzen teknikaria eta Doneztebeko Turismoko zinegotzia izan ziren. Balorazio baikorra egin dute. Ea lanak fruitu onak dakartzan!

Zergadunen Arretarako Bulegoa urte osorako ireki dute

MARGA ERDOZAIN

Maiatzaren 2an Zergadunen Arretarako Bulegoa ireki zuten herrian, Merkatarien karrikan (6. zenbakian). Hori horrela, hemendik aitzinera Iruñean eskaintzen ziren ogasun arloko zerbitzuak herrian eskainiko dituzte. Zerbitzu horien artean, alde batetik, errenta aitortpenak egiteko zerbitzua (ekainaren 22ra bitarte) aipa daiteke. Horretarako hitzordua eskatu behar da 948 505 505/948 505 506 telefonoetan edo www.navarra.es atarian; eta bertze aldetik, paperen ku-

deketari dagozkion kontuak ere bertan bideratu ahalko dira: informazioa jaso, zerga modeloak betetzeko laguntza, erregistroa etab. (honetarako ez da hitzordurik behar) egiteko aukera eskainiko baita. Bulegoaren ordutegia 08:30etik 14:30era izanen da. Aitzineko aldietan ez bezala, oraingo honetan bulegoaren irekiera iraunkorra izanen da; hau da, ez da errenta aitortpenaren kanpainarekin batera bukatuko. Izan ere, ogasunak bere bulego sarean eskualdekoa, Doneztebeko, gehitu du.

Sorosleak eta ludotekarako langilea behar dira

Udalak igerilekurako hiru sorosle eta ludotekarako begiralea behar ditu. Interesatuek, maiatzaren 4a bitarte, udal-etxeko bulegoetan eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko dute. Hautaketa probak maiatzaren 12an eginen dituzte.

Herri-galdeketa parte hartzeko deia egin du Udalak

Doneztebeko Udalak Anitz Eskuetan taldeak, Gure Esku Dago ekimenaren harira, antolatutako herri-galdeketa babestu du. Era berean, herritarrak parte hartzera animatzen ditu. Udalbatzak egin-dako bilkuran taldeak sartutako mozioa onartu egin du.



UTZITAKO ARGAZKIA

Lan tresnak gordetzeko etxola egin dute

Herri baratzeetan egindako auzolanari esker, bertan ari diren 22 nekazariak hemendik aitzinera lan tresnak gordetzeko etxola polita izanen dute. Giro ederra izan zuten auzolanean eta bertze bat egiteko asmotan ere badabilta. Auto-konposta eta bertzelako hobekuntzak egin nahi dituzte.

Herritarrek Enrike Erregerena omendu eta agurtu dute

Plazan eta Mendaurko presan bildu ziren eta hautsak Mendaurko kaxkoan hedatu zituzten

ARKAITZ MINDEGIA

Martxoaren 26an hil zen Enrike Erregerena Bera iturendarra omendu dute. Lesakakako Laminaciones lantegian LAB sindikatuko ordezkaria izan zen urtetan, eta atxilotua eta torturatua izan zen. Horren arduradun Espainiako Gobernua kondenatu zuten eta Europak ere onartu zuen torturak izan zirela.

Omenaldia goizeko bedertzietan hasi zen plazan. Aitzinetik, joaldunak ibili ziren eta ikurrina zeramaten lagunak joan ziren plaza erdiraino. Erregerenaren senideak zeuden plaza erdian, bere hautsak zituen kutxarekin. Bertsolariak, abeslariak eta txalapartariak aritu ziren eta Aureskua dantzatu zioten.

Ondotik, Iturendik Mendaurko presara abiatu zen



Erregerenaren agurra.

ibilgailu karabana. Berriz ere joaldunen joan-etorrien ondotik, ekitaldia egin zioten Erregerenari. LAB sindikatuko ordezkariak eta lagunak solastatu ziren, berak egindako lanak nabarmenduz eta alargunari oroigarriak emanaz. Ekitaldiaren ondotik, Mendaurko kaxkora joan ziren eta hantxe hedatu zituzten Enrike Erregerenaren hautsak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Alkoi joare eta trikitixa doinupean

Herriko trikitilari eta joaldunak Alacanteko Alkoi herrian ospatutako Moro eta Kristauen Bestan izan ziren. Eguraldi bikaina lagun, jendetza bildu zen herritarren joare, trikitixa eta pandereta doinuen bueltan. Ea heldu den urtean berriz joateko aukera suertatzen zaien!

Bazterrikarentzat ernalkuntza artifizialeko saria

Isidro Bazterrika Arkauteko Itsasmendikoi Nekazaritza Eskolan egindako ernalkuntza artifizialeko lehiaketan saritua izan da. 40 eta 75 ardi arteko artaldeetan %78,46ko ugalkortasuna lortu du.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herriaren etorkizuna erabaki nahian

Maiatzaren 6ko herri-galdeketa esku hartzeko nahikoa sinadura bildu dituzte herrian. Mendaur trikitixa eskolakoek trikitixa eta panderetak astindu zituzten, plaza eta inguruak girotuz.



ARANTXA ARIZTEGI

Javier Sein 23 urtez beheitiko mailan garaile

Sein herritarrak Rural Kutxa BTT lasterketako hirugarren proban, 23 urtez azpikoetan, garaipena lortu du.

Maiatzean han eta hemen ibiliko da: 5ean Euskadiko Opena izanen du, Izkuen; hilaren 19an, aldiz, Pasaian.



UTZITAKO ARGAZKIA

Eskolak Nafarroako ikastetxeetan esnea banatzeko planean parte hartuko du

Osasun Departamentuak eta Hezkuntza Departamentuak antolaturik, Nafarroako ikastetxeetan esnea banatzeko planean parte hartuko du Pulpuna eskolak. Bertako produktuak ezagutaraztearekin batera, elikatze ohitura osungarriak bultzatu nahi di-

tuzte. Programa hori Haur Hezkuntzako ikasle guztiei eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleei bideratua da. Apirilaren 20tik aitzinera, ortziralero, ikasle bakoitzari edalontzi bat esne banatuko diete. Esnea goi kalitatekoa izanen da.

Errota 'Museatu! eta bidaiatu' kanpainan sartuta dago

Kanpainan parte hartzen duten hiru museo edo gehiago bisitatzeko dituztenen artean zozketak egingen dituzte

FERMIN ETXEKOLONEA

Zubietako Errotak Nafarroako Gobernuak sustaturiko 'Pasaportea: Museatu! eta bidaiatu' kanpainarekin bat egin du. Horren helburua, Nafarroako hamahiru museo edo bilduma bilduz, hiri eta herrietako txango motzak antolatzeko eta arte garaikide, arte eder, arkeologia, etnografia eta pertsonaiei buruzko museoetan esperientziak bizitzeko aukera ematea da.

Udaberri-udako denboraldian bisitariak bertaratzea sustatzeko kanpainaren harira, lehiaketak egingen dituzte. Lehiaketan parte hartzeko bisitariak pasaporte pertsonal bat bete (pertsona edo familia bakoitzari bakarria emanen zaio, hamahiru museoetako edozeinetan dohainik) beharko dute. Bertan bisitatutako



Bisitariak bertaratzea da helburua.

erakunde bakoitzaren zigilua bildu beharko dute (zentro bakoitzeko zigilu bat). Ondoren, aipaturiko pasaportea, urriaren 20a baino lehen, zentroetako batean aurkeztu beharko da. Horrela bada, sei zentro edo gehiago bisitatzeko dituztenen artean telefono mugikor bat zozketatuko da; lau edo bost zentro bisitatuta dituztenak tablet bat; eta hiru zentro bisitatuta liburu elektronikoa.



IZASKUN ZUBIALDE

Plaza bete jende musikarien kontzertuan

Joan den apirilaren 23an Doneztebeko musika eskolako ikasleek ikasitakoa plazaratzeko hitzordua izan zuten herrian. Plaza bete jende bildu zen gaztetxoaren emanaldian. Kontzertua akitu zenean, mokadutxo bat egiteko aukera eskaini zitzaion.

67 sinadura bildurik, maiatzaren 6ko herri-galdeketa parte hartuko dute

Maiatzaren 6ko herri-galdeketa babesteko sinadurak bildu zituzten herrian apirilaren 15ean. Herrian erroldaturiko biztanleriaren %15ak, 37 lagunek alegia, sinatu beharra zuten hori aurrera eraman ahal izateko. Guztira 67 herri-tarrek babestu zuten galdeke-

ta. Horrela bada, heldu den maiatzaren 6an, igandean, Gure Esku Dago ekimenaren baitan sorturiko Aunitz Eskuetan Taldeak egindako galderari erantzuteko aukera izanen dute herritarrek. 09:00etan irekiko dute hauteskontzia.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Udaberriko kolekzio berria!

Maindire eskaintza anitza

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634



Belate eta Almandozko lanei jarraipena eginen dien batzordea. NAFARROAKO GOB.

Belateko lanetarako proposamenak ez direla aski uste dute

Nafarroako Gobernuak matrikula zenbakiaren eta egunaren arabera mugatu nahi du Belateko trafikoa egunez

TTIPI-TTAPS

Belate eta Almandozko tuneletako lanei jarraipena eginen dien batzordea bildu zen apirilaren 19an, Manu Ayerdi Nafarroako Gobernuako presidente ordearen gidaritzapean. Hainbat erakundetako ordezkariekin batera, Baztan, Bera, Ezkabarte, Lesaka, Do-

neztebe eta Sunbillako udal ordezkariak ere izan ziren.

Belate eta Almandozko tunelen egokitze lanak irauten duten bitartean Nafarroako Gobernuak proposatu dituen neurrien berri eman zen. Horietako batzuk aitzinetik iragarriak daude, bertzeko batzuk Foruzaingoak proposatu ditu

eta bertze neurri batzuk osagarriak dira. Aitzinetik iragarritako neurrien artean daude trafikoa Belateko errepide zaharretik desbideratzea eta horretarako errepide hori egokitze lanak egitea.

Foruzaingoak NA-1210 errepidea egokitzea eta Iruenerako norabidean aitzintzeko debekua ezartzea proposatu du, bertzeko zenbait seinalizazio eta informazio neurrien artean.

Neurri osagarriak

Nazioarteko zama garraio trafikoa mugatzea NA-1210 errepidean egunez (06:00-22:00). Matrikula bakoitiak eta bikoitiak bereziko dira eta txandaka ibiltzen ahalko dira. Txandakasterokoak izatea ere aztertzen ari da Gobernuak. A-15 autobia izanen da ordeko bidea eta gauaz ibiltzeko aukera ere izanen da. Alde horretatik, ibilgailu astunen A-15eko peajea bere gain hartuko luke Gobernuak, lanek irauten duten bitartean.

Neurri hauek ez dituzte errepide inguruko alkateak asebate eta apirilaren 28rako manifestazioa deitu zuten Elizondon, *Belateko mendi gainetik nazioarteko zama garraiorik ez* goiburuan.

Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina abiatu du UEMAK

TTIPI-TTAPA

UEMAK, bertako kide diren Bortzirietako udalekin (Bera, Etxalar, Arantza eta Igantzi) eta Baztango Udalarekin elkarlanean, errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina jarri du abian aurten ere. Mankomunitateko kide ez diren bertze zenbait udalek ere parte hartuko dute.

Kanpaina berri honekin, herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskarazkoak izan daitezten bultzatu nahi da. Bide horretan, errenta aitortpena euskaraz eginda euskarari bideak irekitzeaz gain, administrazioaren euskalduntzea ere bultzatzen da. Hizkuntzaren normalizazioa lortzeko euskara eremu guztietara hedatu behar da, eta horretarako, garrantzitsua da herritarrek euskaraz osotasunean bizitzeko hautua egitea. «Udalerrri euskaldunetako herritarrok eredu eta aitzindariak izan gaitezke horretan», diote.

Altzari rustikoak
Altzari modernoak
Gazte tokia
Outlet txokoa
Koltxoak
Sukaldeak

MUEBLES TELLETXEA
ALTZARIAK

www.mueblestelletxea.com
Rosa Seminario, 12 | DONEZTEBE
Tel. 948 450 258-948 451 811

Dekorazio proiektu integralak

Inauterietako argazki lehiaketako sariak banatuak

Erran.eus atariaren eskutik, Juan Carlos Olaetxeak jaso du epaimahaiaren saria eta Teresa Rojok publikoarena

TTIPI-TTAPA LEGASA

Ttipi-Ttapa aldizkariak eta Xorroxin Irratiak elkarlanean antolatu dute lehen aldiz inauterietako argazki lehiaketa eta Erran.eus atariaren bidez gauzatu da. Bertara igo dituzte lehiakideek inauterietan aterako argazkiak. Apirilaren 19an sariak banatu zituzten Legasako Arotxa jatetxean.

Publikoa eta epaimahaia

Lehiaketara aurkeztutako 34 argazkiren artean, Berako Juan Carlos Olaetxeak aterako *Ikusiz ikasi* argazkiak irabazi

du epaimahaiaren saria. Hala, Nekatur Nekazalturismo Elkartearen Nekatur Bono orlegia eskuratu du, bi lagunendako bi gau eta bi gosari eskaintzen dituen egonaldia, Ttipi-Ttapa Fundazioko Arantxa Arregiren eskutik.

Erabiltzaileek ere izan dute hitza eta kasu honetan, Lesakako Teresa Rojo Larraldeker aterako *14 ofizio, 15 miseri* txuri-beltzeko argazkiak jaso du boto gehien. Honenbertzez, Elgorriagako bainuetxean bi lagunendako zirkuia eta otordua irabazi ditu. Elgorria-



Saridunak eta sari-emaileak, Arotxa jatetxean. TTIPI-TTAPA

gako Balnearioko Cristina Guelbenzuren eskutik jaso du saria.

Parte-hartzaileen eta eta internet bidez botoa eman dutenen artean Legasako Arotxa jatetxean bi lagunendako otordua zozketatu da eta Legasako Juana Etxeberriari egokitu zaio.

Hain zuzen, Arotxa jatetxe-ko Luismi Lakarrek eta Xorroxin Irratiko Julen Zelaietak eman diote saria.



Bi argazki sarituak. JC OLAETXE/T.ROJO

DONEZTEBEN neurrira egindako etxebizitzak



PROMOCIONES

MALERREKA

T. 629 951 170 (Aitziber) | 650 328 879 (Sergio)



135.000€tik aurrera

Garaje marra + trastelekua prezioaren barruan

✓ Zure beharren arabera **finantziarioa**, Rural Kutxaren babes eta abalarekin



Aukera paregabea Donezteben etxe berria erosteko

EZKAIN ERAIKUNTZAK-ek eraikiak



Leonetik bueltan, hurrengo bidaietara begira daude kideak

Irailean eginen duten Mediterraneoeko itsas-bidaia izanen dute hitzordu nagusia

FERNANDO ETXEBERRIA

Arkupeak Elkarteko 101 bazkide Leonen eta interes kulturala duten inguruko herrietan ibili dira apirilean. Hiru eguneko ateraldian, eguraldia lagun, hainbat toki interesgarri ezagutzeko aukera izan dute.

Lehen geldialdia Quintanapallan egin zuten. Hiru ordu laurdeneko geldialdia egin ondotik, Astorgara joan ziren. Bi gidariren laguntzaz, katedrala eta Gaudik eraikitako Jauregi Episkopala bisitatu zituzten, horien historia ezagutuz. Ondotik, herriko plazan eta kale nagustietan ibili ziren. 14:00etan Castrillo de Polvazares herrian bertako jaki tradizionala den Maragato eltzekaria dastatu ahal izan zuten. Arratsaldean, berriz, Leonera bueltatu ziren, eta ostatu hartu ondotik, atsedean hartzeko aprobetxatu zuten.

Biharamunean, Gaztela eta Leongo Bierzo eskualdera joan ziren. Las Medulas ingurune babestuan erromatar garaiko urre-meategia ere bisitatu zuten. Hala, Ponferradan baz-

kalduta, jateko nagusiak jarritako musikari esker, dantzan eta kantuan ibiltzeko aukera izan zuten. Eguna borobiltzeko gaztelu tenplarioa bisitatu eta Villafranca del Bierzoko karriketan barna ibiltzeko aukera izan zuten.

Hirugarren eguna Leongo interesgune nagusiak ikusiz pasa zuten: katedrala, inguruko karrikak, Gaudik diseinaturiko Botinen Etxea, Guzmantarren etxearen aurrealdea... ikusi ahal izan zituzten. Goiza han eta hemengo txokoak bisitatu pasatu ondotik, etxera buelta egin zuten. Bidean, berriz ere, Quintanapallan egin zuten geldialdia.

Mediterraneoko itsas-bidaia

Apirilean eginiko Leoneko bisitaren ondotik, elkarteko kideak hurrengoetara begira daude.

Aurtengo ateraldi berezietako bat, zalantzarik gabe, Mediterraneoeko itsas-bidaia izanen da. Ekaineko buletinean zehaztasun gehiago bilduko badituzte ere, datak zehaztuta dituzte dagoeneko. Irailaren



Elkarteko 101 kidek, hiru eguneko bidaietan Leon eta ingurua bisitatu dute.

17an, astelehenean, abiatu; eta hurrengo astelehenean, 24an, itzuliko dira. Bartzelonatik abiatu eta Napoles, Civitavechia, Florentzia, Pisa, Livorno, Niza eta Seten barna

ibili ondotik, hasitako tokian bukatuko dute itzulua. Astebeteko egonaldian hainbat eskala eginen dituzte, bidaiariek tokiak ezagutzeko aukera izan dezaten.

Euskal Herriko ehunka mendizale Txindokin bilduko dira

FERNANDO ETXEBERRIA

46 mendizalek, Igantzin bilduta, mendi irteera egin zuten apirilean.

Frain Mendian egin zuten lehendabiziko geldialdia. Ondotik, Unanura joan ziren. Etxalarren bazkalduz borobildu zuten mendi egun bikaina.

Txindokira

Goierriko mendizaleen hamargarren urteurrena dela eta, Euskal Herriko bertze ehunka mendizalerekin batera, Txindokira eginen dute hurrengo irteera. Guztiek Uiduin bazkaltzea aurreikusi dute.



Inguruko parajeei begira egoteko aukera ederra izan zuten Igantzin.

URDAZUBI^{KO} BESTAK

Maiatzaren
9tik 13ra

EGITARAUUA



MAIATZAK 9, asteazkena

20:00 Txupinazoa, ezkil jotzea herriko trikitilariekin eta aperitifa.
21:30 Herri afaria plazan Hauspolariak taldeak alaiturik.



MAIATZAK 10, ortzeguna

11:00 Meza nagusia. **12:00** Ezkil jotzea eta aperitifa txistulari eta dantzariekin. **16:30** Haurrendako jokoak **21:30** Paella jatea Holako taldeak alaiturik. Ondotik dantzaldia goizaldera arte.

MAIATZAK 11, ortziralea

12:00 Gorriti bere animaliekin. **14:00** Ugarana emakume elkarteko bazkaria. **16:00** Haurrendako ipuin-kontaketa, Ameli eta Xirrikituena Jostunen eskutik. **16:30** Globoflexia eta Zirkoloretsu Antzerki Taldearen ikuskizuna. **18:00** Txokolatada plazan. **18:30** Nesken frontenis txapelketa. **20:00** Sagardotegi mugikorra. **23:00** Kontzertuak Zernahi, Herritarrak, Tumaxak eta Ostion taldeen eskutik.

MAIATZAK 12, larunbata

14:30 Zikiri jatea Irungo Atxegifia txarangak alaituta. Ondotik, musikariak herriko karriketan barna. **16:30** Haurrendako jokoak **21:00** Xingar jatea eta Los Tanampas mariatxiak. **00:00** Dantzaldia Gabezin taldearen eskutik.

MAIATZAK 13, igandea

16:30 Ahate jokoak eta herriko zaldunen ikuskizuna. **18:00** Kantaldia Bankako Menditarrak taldearen eskutik. **19:15** Zozketa. **19:30** Pintxoak.

MAIATZAK 20, igandea

10:00 Kontrabandisten lasterketa.



IRIARTEA BENTA

Autozerbitzua · Ostata · Larra...

DANTXARINEA · Urdazubi · T. 948 599 049 · ventairiartea@hotmail.es

LA KOSKA
JATETXEA

ongi pasa bestak!!

948 599 042 · URDAX

ongi pasa bestak!

JOXEMI BENGOTXEA S.L

TEILATUAK | FATXADAK | ESKAILERAK
EGURREZKO ESTRUKTURAK
LEIHOAK | ATEAK | ALTZARIAK | ZOLAK

ESKABAZIOAK | ESKOILERAK
LUR MUGIMENDUAK | HONDAKINAK

HARROBI MATERIALAK HORMIGOIAK

T. 660 501 584 | T. 948 592 111
Etxelekua | URDAZUBI (Na)
joxemibengotxea@yahoo.es | canterasaskape@gmail.com

URDAZUBIKO UDALA

Urdazubiko Udalak
besta zoriontsuak
opa dizkizue
urdazubiar eta
bisitari guztiei!

ETXELEKUA *ongi pasa bestak!*
 ARDI LATXAREN GASNA
7. AK MUNDUAN
 SALMENTA ZUZENA EGUNERO
 Zugarramurdiako karretera
 948 599 169 · Urdazubi
 www.etxelekua.com

Bazteretxea
JANARI-DENDA benta
 Tel.: 948 599048
URDAZUBI
 Ongi pasa bestak!!

Josenea Gasolindegia
 Urdax - Urdazubi Dantxarinea
 www.urdax-dantxarinea.com
 JOSENEA ZONE AUTO
 www.josenea.es

Faustino ETXABE tailerrak
 Autoen konponketa
BESTA ON BATZUK PASA !!
 ☎ 948 599 038 · ZUGARRAMURDI

indianobabaita
ostatua
 barostatua apartamentos rurales
Pasatu ongi Salbatoreak!
 BAZKARIAK
 AFARIAK
 BOKATAK...
 948 599 021
 URDAZUBI

IGELTSERITZA LANAK OROKORREAN
 HORMIGOI ESTANPATUA
 ZOLADURAK
KURRINKA
CONSTRUCCIONES, S.L.
 Barrio Leorlas, s/n - 31711 URDAX (Navarra)
 Tel. (0034)609 878 162 (Antonio) - e mail: antonio@kurrinka.com
 Tel. (0034)600 438 438 (Angel) - e mail: kurrinka@kurrinka.com
 www.kurrinka.com



Valerie LARREBURU
Besta Batzordeko kidea

«Herriko gazte eta xaharrek laguntzeko borondate handia dute»

Non da besta, han da neska errana bere-berea du Valerie Larreburuk, Urdazubin bizi den «neska gazte, saltsera eta alaiak». Halaz ere, ez da besta egunera arte besoak gurutzatuta egoten den horietakoa.

EGINAHALAK EGINEZ

Sei urte daramatza Urdazubin bizitzen eta Besta Batzordean arras murgilduta «bigarren urtea» badu ere, «lehenago ahal nuena egiten saiatzen nintzen». Ibili eta buelta, Urdazubin bere kabia egin zuenetik, herri ttipiko elkartasun handiarekin bat egin zuen: «hemen Besta Batzordean bortz lagun bagara ere, herriko gazte eta xaharrek laguntzeko borondate handia dute, eta hori anitz eskertzen da».

«Zikiro jatea eta ondotik egiten den poteoa hutsik egin gabe bizi beharrekoa da»

EREINDAKOA BILDU NAHIAN

«Inauteak akitu zirenetik, hau da, bestetarako antolaketa lanak banatu zituztenetik, frontenis txapelketa antolatzen eta musika taldeekin hitzarmenak egiten» ibili da, bereziki. Ardura batzuk lehenesteak ez du gainerakoaz atzentzen dituenik erran nahi, lan zama arintzeko «elkar laguntzen saiatzen gara, bakoitzak ahal duena eginez».

Hiru hilabetez bortz eguneko bestak antolatzen ibili ondotik, ereindako haziaren uzta biltzeko gogotsu dago Valérie Larreburu. Asteazkeneko «txupinazoaren, ezkil jotzearen eta aperitifaren tenorea» da gehien gustatzen zaiona, «gogotsu hartzen

dugu». Zalantzarik gabe, larunbateko zikiro jatea eta ondotik herriko ostatueta barrera egiten den poteoa, «hutsik egin gabe bizi beharrekoa» da. Horretarako, bezperan «afaldu bezala etxera» joaten saiatzen da, «eguna indarberrituta hasi eta ahal bezainbertzeko probetxua ateratzeko».

GUSTUKO TOKIAN NEKERIK EZ

«Herrian eta herriarendako ari zarea pentsatuz gero», lana eta besta uztartzeak ez dakar nekerik. Gainera, «gure artean giro arras ona dugu eta horrek anitz laguntzen du». Ez hori bakarrik, «bestek zahar eta gazteak, herriko plazan, elkarrekin ikusteko bide ematen dute eta hori ez da erosten». Hori bermatzeko, «giro ederra eta osasuntsua» eskatu nahi

ditu. Inguruko herritarrei besta giroaz gozatzeko proposamen hori egitearekin batera, Valerie Larreburuk ez du zalantzarik: «ondotik bisitak itzuliko dizkiegu». Urtero bezala,

«Zugarramurdi, Amaiur, Azpilkueta, Elizondo eta hurbil ditugun Iparraldeko herrietara joateko ahalegin tiki bat eginen dugu!».



BESTA
ZORIONTSUAK
OPPA
DIZKIZUEGU!

BIOK

DANTXARINEA · VALCARLOS · IBARDIN

www.ventabiok.com

ZORIONAK
URDAZUBI!

Axular

DANTXARINEA



ZUBIONDOA
 OSTATUA
 AUTOZERBITZUA
 OROIGARRIAK
Ongi pasa bestak!
 (0034) 948 599 041
DANTXARINEA



Mikelen-Borda
 BENTA - JATETXEA
Ongi pasa bestak!!
GURE BASERRIKO ARATXE HARAGIA SALTZEN DUGU
 Dantxarinea - URDAZUBI
 T. 948 599 045 | www.mikelenborda.com



Pinturas
 Iñaki Alzuyet
 margoak
 Tel: (0034) 659 862 417
 31711 URDAZUBI (Na)
 ONGI PASA BESTAK!
FATXADAK, BARNEALDEAK eta PLADURRA
pinturasalzuyet@yahoo.es



CONSTRUCCIONES A. BENGOTXEA
 - Etxebizitzak egin
 - Zahar-berritze lanak
 - Saneamentuak
 - Obra publikoak
 - Zeramika denda
ONGI PASA BESTAKI
 URDAZUBI
 Tel. 948 599 484 | www.carrelagesbengotxea.com



Rakel GARNICA
 Urdazubiko emakumea

«Niretako aurtengo paella jatea berezia izanen da»

Hamaika ogibideko emakume bilakatzen da Rakel Garnica herriko bestetan. Izan ere, eguneroko sukaldari, seme-alaben zaintza eta etxeko-lanak baztertu gabe, azken urteotan bestako saltsan murgilduta, laguntzen ibili da. Bertzeak bertze, joan den urtean tradizio handiko Ahate joko berreskuratzeko lan handia egin zuen; aurten hori antolatzen eta paella prestatzen ibiliko da... Egun horietan egiten dituen lanak bere zaletasunekin estuki lotuak direla erran daiteke, bertzeak bertze, «zaldiketa, sukaldatzea eta gitarra jotzea baititu zaletasun. Zaletasun guztietarte eginahalizateko «goizean goizetik eguna ongi antolatzen» saiatzen da. *Aitzinetik egina geroko egina* atsotitza barneratu eta «gelditu gabe ibiltzen naiz, motorrak irauten duen arte».

lurretan bada ere, Urdazubiko mugatik metro guti batzuetara dagoenez, Urdazubin egiten dugu bizia; mediku eta eskolarako hara jotzen dugu». Gaur egun, herriarekin atxikimendu handia du: «nire buruarekin ongi sentitzeko lagunena laguna izaten eta ahal dudana eskainiz laguntzen saiatzen naiz; eta noski, egindakoa eskertzen badidate, ni kontent!». Areago, «duela bortsu urtetatik» egunerokoan Urdazubiko eta Zugarramurdiko eskolako jantokiko sukaldaria da Garnica. Egiten duena gustuko duela aitortu digu: «batetik, sukaldean aritzea zaletasun dudalako; eta bertzetik, haurrak anitz maite ditudalako. Beraiekin nagoenean ni ere haurra naizela erranen nuke», adierazi digu irria ezpainetan.

«Ahate jokoaren tradizioari eusten diogun herri bakarretakoa gara»

BESTA BAI, LAN ERE BAI

Ez da nolanhiko sukaldaria, herrian «aski ontzat» dute, eta horren gibelean ezkutatu den sekretua ageriko egin digu: «irudimena

erabiliz eta egiten

HERRIAREKIN ATXIKIMENDU HANDIA

Iruñean sortua bada ere, sorterrira utzi eta 2001ean Elizondora joan zen «naturarekin bat egitera». Ez zen aldaketa arrotza izan. Betitik «mendian bizitzea» zuenez amets, «2004an Urdazubiko paraje zoragarria joan nintzen, ametsa egia bihurtzera». Orduz geroztik, «urdazubiartzat» du bere burua: «gure etxea, berez, Arizkungo

dudana maitasun handiz eginez, etxean, jakiak konbinatuz, platerak sortzen ditut. Jolas moduan hartzen dut sukaldaritza, mundu malgu eta aldagarria den aldetik, nire zaporea ematen saiatzen naiz». Bestetan eskolako sukaldaritza-lanak herriko paella prestatzeko eginberrarekin ordezkatu digu: «nik, zorionez, herrian lan egiten dudanez, bortsu egun horietan ez diet eskolako ikasleei bazkaririk prestatu beharko; ez baitago klaserik. Beraz, etxeko



ongi pasa bestak!!

☎ 948 599 267 • URDAZUBI

www.irigoiena.com • reservas@irigoiena.com



TELEFONO GIDA 2018

Zure enpresa sartu nahi?
Milaka pertsonak ikusiko dute zure iragarkia

Informa zaitez
T. 948 63 54 58 | publi@ttipi.eu

Zure enpresaren datuak internet eta app bidez klik batean




ARRETXE ESTANKOA

ZIGARRO PURUEN CAVA




ongi pasa bestak!

DANTXARINEA (Urdazubi) | T. 948 599 018 | F. 948 599 015 | estancoarrechea@yahoo.es



Zure erosketa guzirik hobeenak Euskal Herriko bihotzean

Ongi Pasa Bestak!



KUPELA SAGARDOTEGIA	MIKALA OSTATUA & PINTXOAK	LUGARANA JATETXEA	NUBA DANTZALEKUA
			
			

► **LANDIBAR CENTER:**
Barrio Dantxarinea s/n, 31711 URDAX Ext: 662 | ☎ 34 902 210 800 (es) | ☎ 0820 562 267 (fr)

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
*Abenduaren 25^a eta urtarrilaren 1^a izan ezik

WWW.VENTA-PEIO.COM

Arnegi | Dantxarinea | Behobia | Landibar | Agus Benta | Ibardin

ARMUA JATETXEA




URDAZUBI • Alkerdi auzoa, Km. 3 **ONGI PASA BESTAK!!**
Teléfono: 948599131 • Fax: 948599131

ongi pasa bestak!

Patxi Jaurena

ZURGIN LANAK OROKORREAN
MENUISIER - CHARPENTIER

628 550 490 - URDAZUBI(Na)
ursunear@gmail.com



URDAZUBI-URDAX
Urdazubiko Plaza
T. +34 948 599 477
M. +34 620 021 967

MENUA eta KARTA
Haragi eta arrainki erreak




NIKOLAURENEA ERRETEGIA
URDAX-URDAZUBIKO PLAZAN
www.nikolaurenea.com

ONGI PASA BESTAK!!!

SANTIAGO VILLARES S.L.
Ongi pasa bestak!



LUZERNA-PENTSU ETA FORRAJEAREN
SALMENTA ETA ESPORTAZIOA
LASTOA
LUZERNA

Móvil (Santiago Villares): 609 415 777
T. (0034) 948 59 91 34
Fax. 948 59 91 56

info@santogovillares.com
www.santogovillares.com

lanak eta biharamunak uzten duen kargari aitzin egitea izanen dira egun horietako eginbeharrak». Asteazkenean, «bezperako afarira eta larunbatean zikirora joanen naiz». Bien bitartean, ortzegunean, «paella prestatzen lagunduko dut. Orain artean puntako sukaldaria den Montxok izan duen ardura gure gain hartuko dugu eta». Momentu hori da aurtengoan «bereziena» izanen dena, «sukaldeko erregearen hutsune handia nabarituko dugulako».

«duela 40 urte inguru, lurra lantzeko zaldiak zerabiltzaten herritarrek joko hori egiteko zuten tradizioa guk ere berreskuratu behar genukeela gogoratu zitzaidan». Barride duen «Jose Manuel Etxeberriak, gaztea zelarrik horretan ibili izan zenak ere proposamena egitean», asmoa egingarri eta herritarrentzat gustukoa zela ikusirik, lanean hasi ziren. Aurten Urdazubin, berreskuratu denetik, bigarren aldiz eginen da «ea ohiturari eutsi eta errotzea lortzen dugun!».

BERTZEAK EZ BEZALAKOAK

«Giro ona, musika bikaina eta bereziki bakea eta errespetua nahi dutenak gonbidatuak daude»

BERTZEAK EZ BEZALAKOAK

Urdazubiko bestak «bertze herrietakoak ez bezalakoak» direla uste du Garnicak: «adin guztietako herritarrak elkarrekin biltzen gara, denok elkarrekin giro ederra sortzen dugu... gutitik anitz ateratzeko

TRADIZIO HANDIKO JOKOA

gai gara eta besta ez da gazteendako bakarrik, bertze aunitzetan bezala...». Horrez gain, «bi egunez mokadutxoak doan jateko aukera eskaintzen digute... eta hori, gaur egun, arrontoki gutitan ikusten da... Zugarramurdirekin batera, ahate jokoaren tradizioari eusten diogun herri bakarra edo bakarretakoak gara».

Oro har, bestak egunez «politagoak eta tradizionalagoak» direla uste badu ere, egunaz gozatu eta gaua ailegatzean biharamunekoaz ahanzten da: «zoriotzarrez goizaldera arte egoten den horietakoa naiz», aitortu digu irriz. Giro ona, musika bikaina eta bereziki «bakea eta errespetua lehenesten diren bestaz gozatu nahi duten» guztiak animatuko lituzte.

Baina, nola ez, joan den urtera arte denbora luzez tradizio handia duen ahate jokoa berreskuratzeko lanean «ilusio handiz» ibili ondotik, ekitaldi hori ere «esanguratsua izanen da» Rakel Garnicarentzat. Joko hori berreskuratzeko lehendabiziko urratsak ez dira herrian emanak: «duela lau urte, jokoa galzorian zegoelarik, Juan Luisek, zugarramurdiar gizon batek, bai nik bai eta nire lagun zaldunen batek ere parte hartzeko deia egin zidan». Izan ere, «zaldian, bertzerik gabe, ibiltzea eta lauhazkan edo *galopean* azkar ibiliz esku batekin hilda dagoen ahateari lepoa moztea ez da gauza bera». Ondoko herrian tradizioari eusteko izan zuten jarrerari so eginez,



IRURITA KO BESTAK

Maiatzaren
24tik 28ra



Aritz URRUTIA FRIAS
Iruritako gaztea

«Irurita ez da herriko bestak bakarrik, ekitaldi andana izaten ditugu»

Besta Batzordeak ekitaldiak lotuak dituelarik, «egitaraua etxeetara igortzeko prestatzeaz» arduratzen da Aritz Urrutia herritarra. Oharkabean, luzaroan bere aitak, «marrazkiak, kartelak eta eskulanak egiten zaletua denak», egin duen lanaren ardura bere gain hartu du.

Laguntza gisa hasi zuen lana «urteroko ekarpena da orain». Izan ere, «aitaren azken lanetan digitalizazioa txertatzen hasia zen, eta nire laguntzaz pauso batzuk emanagatik, aurrerapen teknologikoek lasterketa irabazi zioten», kontatu digu irri artean.

OHITURAK BERRIKUNTZEZ ZIPRIZTINDUZ

Anitzendako Iruritako besten berezitasuna herriz herriko bestetatik lehendabizikoetakoak izatea bada ere, Urrutiarentzat «udaberri-usainaren garraiatzaile» izateak indar handia hartzen du: «ikasturte akabailako trantzearen eta udaren, galtza motzen... etorreraren iragarle dira». Ohiturak eutsiz eta berrikuntzak finkatuz bortz egunetarako «egitarau osatua, aukera anitzekoa, gustu gehienei tarte eginez eraikia» antolatzen saiatzen dira. Joan den urtean, erraterako, «Etxalarko herritarrek utzitako erraldoiei esker, erraldoiak dantzan ikusteko aukera eskaini genuen». Joan den urteko berrikuntza ikusleen gustukoa izan zelakoan, «aurten Baztango gaiteroek Jo

ala Jo Kultur Taldearen eskutik bertze bi erraldoi egin zituzten eta horiek ere plazaratuko ditugu. Orain horiek dantzatzen ikasteko ikastaro irekietan gabilta. Hemendik nahi duten guztiei parte hartzeko gonbidapena luzatu nahi diet». Era berean, aurtengo bestetan «herria alaitu eta mugiarazteko batukada ere ekarriko dute».

LANAK AITZINERATZEN

Bestetan sartu aitzinetik dantzetako entsegu eta irakasle lanei dagozkien saioen prestaketak «ahalik eta gehien aitzinatzen» dabil Aritz: «horrela, besta egunetan kalejiran ibili ahal izanen naiz». Libre izanez gero, «ekitaldi guztiak onak» badira ere, aurten aukeraketa egin beharko du. Lanean ari denez, «gaua biharamunean jaiki gabe egoteko dutenen eskuetan» uzten saiatuko da: «azkena luzatzen bada biharamunari aurre hartzeko 0,0 garagardoa edanez itoko dut egarria» dio irri artean. Erraldoien kontuarekin «arratsaldeko zenbait besta ordu giro ezin hobean pasako ditut eta herriko plazan mutil-dantzak dantzatzeko hitzordua ere ez dut barkatuko». Iruritako bestetan hasitako maiatzeko ekitaldiak ekainera bitarte luzatuko direla nabarmendu nahi izan du, «Irurita ez da herriko bestak bakarrik, bertze hainbat ekitaldi ditugu: maiatzaren 26an mendi duatloia izanen dugu, ekain hasieran, berriz, herriko dantzarien dantza erakustaldia».

DOARQ
arkitektura bulegoa
maite & idoloia danborriena olaetxea
T 9 4 8 1 4 0 8 0 6
ONGI PASA BESTAK

IRURITA

KULTURKARIREN
ESKAINITZA BEREZIA

KARTELAK

A3 | A2 | FORMATU BEREZIAK

+
WHATSAPP EZ BIDALTEKO
IRUDI DIGITALA OPARI

Info +: 948 63 54 58

Gureaut 
TAILERRAK

Mekanika, elektrizitatea,
Ibilgailuen salerosketa

Zaldubia Ind. IRURITA | T. 948 580 225
M. 619 328 145 | gureauto2@gmail.com

Composites Baztan
Poliesterezko lanak



- Inpermeabilizazioak: terrazak, igerilekuak, depositoak...
- Fosa septikoak, koipe banatzaileak.
- Karrozerien errebestimenduak, furgonetak, erremolketak, traktoreak,
- Era guztietako molde eta piezak egiten ditugu, produkzioarako



ONGI PASA BESTAK!

Tel-Faxa: 948 581 824
compositesbaztan@hotmail.com
Zaldubia Industrialdea | 31730 IRURITA

BAZTAN MOTOR S.L.

TXAPA ETA PINTURA | MEKANIKA | ELEKTRIZITATEA



JOHN DEERE GOES CFMOTO

ONGI PASA BESTAK!

Zaldubia Industrialdea 31730 IRURITA
T. 948 45 21 19 • 948 58 06 55



Construcciones
URBALLO, s.l.
hargin lanak orokorrean

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!



- 30 urteko esperientzia
- Eraikuntza berriak eta zaharberritzeak
- Teiltuetan esperientzia handiko profesionalak
- Obra txikiak nahiz handiak: Etxebizitzak, nabeak, zangak, ur lanak, ukui luak...

Luis Gaztelu, 6 | 31730 IRURITA | T. 610 367 000 / 610 367 009
c.urballo@hotmail.com

sukaDeco

estudio cocina y baño



www.sukaldec.com
IRURITA 948 580 666



EGITARAUA

MAIATZAK 9, asteazkena

12:00 Txupinazoa. Baztango gaitero eta erraldoiak herriko karrketan barna.
16:00 Haurrendako herri-kirolak eta ondoren, trinketeko pilota txapelketako haurren finalerdia. **18:00** Merendua eta japoniar bonbak. **18:30-20:30** Dantzaldia plazan Salaberri akordeoilariarekin. **20:00** Ezkil jotzea. **21:00** Baztan zopak. **01:00-04:00** Dantzaldia karpan Salaberri akordeoilariarekin.



MAIATZAK 10, ortzeguna

10:00 Dianak. **11:00** Meza nagusia. **12:00** Herriko dantzarienerakustaldia. **13:00** Luntx herrikoa. **17:30** Trinketeko V. Esku pilota txapelketako haurren finalak. **18:15** Trinketeko XI. Esku pilota txapelketako finalak. **19:00** Karrketan barna erraldoiekin. **20:00-21:30** Dantzaldia Ezinke taldearekin. **21:30** Mutil-dantzak **00:30-04:30** Dantzaldia Ezinke taldearekin.



Arotxa



Aroztegia 1890az geroztik

M. 650 53 20 73 · T. 948 58 14 18
31730 IRURITA
arotxa.taller@gmail.com
www.arotxataller.com

GARAJEKO ATEAK | HORMANN banatzaile ofiziala



TOLDOAK - ESTOREAK | Etxea-merkataritza-ostalaritza



Eguzkiaz babestu toldo batekin



MAIATZAK 11, ortziralea

09:00 Dianak baserrietan. **11:00** Haurrendako jokoak Errebote plazan. **13:30** Haurrendako bazkaria karpan. **14:00** Jubilatuen bazkaria Olari jatetxean. Gazte bazkaria Baigorriko merenderoetan. **15:00** Haurrendako jokoak. **18:00** Txokolatada. **18:30** Kalejira erraldoiekin. **20:30** Dantzaldia Trikidantz taldearekin. **21:30** Mutil-dantzak. **23:00** Niarawa batukada eta ondotik DJa Tirri&Terri karpan. **01:00-04:00** Dantzaldia Trikidantz taldearekin.



MAIATZAK 12, larunbata

10:00 Dianak txarangarekin. **12:00** Kalejira erraldoiekin. **14:00** Zikiro jatea txarangarekin. **17:00** Nafarroako goma gaineko sokatira txapelketa, frontoian. **20:00** Dantzaldia Laiotz taldearekin. **21:30** Mutil-dantzak. **01:00-04:30** Gaupasa Laiotz taldearekin.



MAIATZAK 13, igandea

11:00 Zunba saioa plazan. **12:00** Kalejira erraldoiekin. **18:00** Baztango Dantzarien erakustaldia. **19:00-20:30** Dantzaldia Hauspolariek taldearekin. **21:00** Afari herrikoia. Ondotik, beste akabaila emateko, Gaixoa Ni.



J.P AGERREBERE

Karrozeria • Aroztegi Metalikoa



BANATZAILEA



Zaldubi ind. IRURITA • Tel.: 948 580 538 | 630 184 847

ongi pasa bestak!

Carpintería

Lizasoain, S.L.

Erreformak • Leihok • Ateak • Eskailerak • Armairuak • Sukaldeak
948452077 • Zaldubia ind. • 31730 IRURITA

IRURITA
Dukesa plaza
T 948580059
T 948452021
(Obradorea)

ELIZONDO
Santiago kalea 19
T 948452393

www.arkupegozotegia.com

OLARI

— jatetxea —

Sukaldaritza goxoa eta aukera zabala
Sasoiko produktuak
Plater klasikoak eta sortu berriak



T. 948 452 254 • IRURITA
info@restauranteolari.es | www.restauranteolari.es



MIGUELENE
OBRAS Y CONSTRUCCIONES • ERAIKUNTZAK

ongi pasa bestak!

IRURITA | T. 677 225 112



Igandean 09:00etan zabalduko dituzte hautetsontziak. AUNITZ ESKUETAN

Prest dira Malerrekan eta Bertizaranan

Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Legasa eta Zubietako 2.885 herritar deitu dituzte maiatzaren 6ko galdeketa parte hartzera

G.PIKABEA DONEZTEBE

Ate-joka dute eguna. Malerrika eta Bertizarana aldean aspalditik egutegian seinalatua duten eguna gainean dute eta prest daude. Herritarren babesarekin, Aunitz Eskuetan elkarteak lortu du erabakitze-ko eskubidearen aldeko herri-galdeketa aitzinera ateratzea, horretarako protokoloak eskatzen duen guttieneko sinadura kopurua sei herrietan lortu baitu. Hala, Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Legasa eta Zubietan, herri-galdeketa eginen dute igande honetan, maiatzak 6. Herritarren elkarlana izan da orain arteko ibilbidearen oinarri, eta herritarrak izanen dira igandean protagonista, eurek hala nahita, herriaren etorkizunaren inguruan erabakitze-ko aukera izanen dutelako.

Hasieratik edozeinendako ateak zabalik izan ditu Aunitz Eskuetan elkarteak, eta galdera ere ahalik eta modu zabalenean aukeratu nahi izan dute. Joan den apirilaren 13an, sei herrietako hainbat herritar Donamarian elkartu ziren eta bilera ireki hartan adostu zuten galdera: *nahi al duzu nafar gisa burujabe izan etorkizuna libre erabakitze-ko?* 16 urtetik goitiko herritar guztiek izanen dute galdera horri bai edo ez erantzun edota boto zuria emateko aukera; antolatzaileen arabera, erantzuna

**16 URTETIK
GOITIKO GUZTIEK
DUTE BOTOA
EMATEKO AUKERA**

edozein dela ere, galdeketa parte-hartzea delako garrantzitsuen.

Beharrezko agiriak

Guztira 2.885 herritar daude botoa ematera deituak: Donamarian 364 lagun, Donezteben 1.441, Elgorriagan 203, Iturenen 428, Legasan 201 eta Zubietan 248. Herritar bakoitzak errolatua dagoen herrian eman beharko du botoa eta horretarako mahai bat egonen da herri bakoitzean. Bozkatzerakoan, ezinbertzekoa izanen da norbere burua identi-

**IGANDEAN
09:00ETAN
IREKIKO DITUZTE
HAUTETSONTZIAK**

fikatu eta herri horretan bizi dela egiaztatuko duen agiria aurkeztea: NAN edo pasaportea erabil daitezke, eta gidabaimena erabiltzekotan, erroldatze-ziurtagiria ere eraman beharko dute.

Igandean, 09:00etan zabalduko dituzte hautetsontziak eta 20:00 arte irekiak egonen dira. Edozein moduz, igandean botoa eman ezin dutenek edo lehenagotik eman nahiago dutenek Donezteben, Elgorriagan, Iturenen eta Legasan, aitzineko egunetan ere botoa eman ahal izanen dute. Donamarian eta Zubietan, ordea, igandea izanen dute bozkatze-ko egun bakarra.

Hautesle errolda

Herria	Kopurua
Donamaria	364
Doneztebe	1.441
Elgorriaga	203
Ituren	428
Legasa	201
Zubieta	248
Guztira	2.885

ITURRIA: AUNITZ ESKUETAN

Donamarian frontoian

Donamariarrek igandea, maiatzak 6, izanen dute herri-galdeketa botoa emateko egun bakarra. Horrekin batera, eguerdian pintxo-poteoa egingen dute trikitixa doinuen laguntzarekin eta arratsaldean, haurrendako txokolatada antolatu dute.

Donezteben egun osoan ekitaldiak

Donezteben aitzineko asteburuan hasi ziren herritarrek botoa ematen, eta igandea baino lehen, maiatzaren 3an eta 4an berriz zabalduko dute hautetsontzia, bi egunetan 18:30etik 20:30era eliz atarian. Hala ere, igandekoa berezia izanen da, Santa Luzia plazan egonen den mahaiaren bueltan, hainbat ekitaldi prestatu baitituzte. 09:00etan irekiera ekitaldia egingen dute; 11:00 aldera kalejiran ibiliko dira herrian barna; 12:00etan herrikirolak izanen dituzte; 17:00etan dantza saioa antolatu dute eta 18:00etan haurrendako jolasak eta mus eta partxis txapelketak egingen dituzte. Eguna borobiltzeko txistorrada antolatu dute.

Elgorriagan aizkora apustua eta guzti

Elgorriagan, joan den larunbatean ireki zuten hautetsontzia eta maiatzaren 3an eta 4an ere botoa emateko aukera izanen dute herritarrek, arratsaldean.

Igandean, berriz, Herriko Ostatu parean paratuko dute mahaia, eta aldi berean, ez dute aspertzeko astirik izanen: eguerdian aizkora apustua antolatu dute; gero, trikitilariak alaitutako bazkaria egingen dute eta arratsaldean, mus txapelketa jokatuko dute.

Iturenen plazan

Iturendarrak ere joan den asteburuan hasi ziren botoa ematen. Bertze herrietan bezala, igandean ere izanen dute aukera, herriko plazan paratuko duten hautetsontzian.

Zergatik parte hartuko duzu maiatzaren 6an egingen den herri-galdeketa?

NATALIA REKARTE
DONAMARIA

«Nafar bezala, nire eskubidea eta ardura dela pentsatzen dudalako joanen naiz bozkatzera. Gehiagora ailegatzeko zerbaitetik hasi behar da eta aukera orain dugunez, probestu egin nahi dut».



IXIAR BAZTERRIKA
ITUREN

«Igandeko herri-galdeketa parte hartuko dut, elkarrizketak entzuten ikasteko, iritzia desberdinak kontuan hartzeko, eta erabakitze eskubidea oinarri izanen duten herri baten partaide izateko».



PEDRO BAÑARES
DONEZTEBE

«Gizakioi dagokigu zer izan eta eduki nahi dugun aukeratzea. Demokratikoa dela dioen herri honetan, gure etorkizuna erabakitze aukera bat da, batez ere politikoa. Maiatzaren 6an guztiok parte hartzeko aukera eta betebeharra dugu».



NEREA ZELAIETA
LEGASA

«Herritarrengandik sortutako kontsulta batean parte hartzeko aukera dudalako, gure iritzia entzunarazi eta gure kultura, ohiturak edo hizkuntza bera ezagutzen ez duten agintarien menpe ez egoteko».



GORKA ORDAX
ELGORRIAGA

«Erabakitze eskubideak lau urtetik behin egiten den eta alderdi politikoekin lotzen den zerbait baino gehiago izan beharko luke. Guri dagokigu erabakiak hartzea, herritarren eskubidea izan beharko luke».



ARANTZA DIEZ
ZUBIETA

«Egiazko demokrazia batek herrien autogestio eta burujabetza bermatu behar dituelako parte hartuko dut galdeketa, gure buruaren jabe izanda, inguruko herriekin lankidetzan, denon alde egiteko, ez kontra».

Legasan kerrena

Legasan, joan den asteburuan, botoak biltzen aritu ziren Kuku elkarteak. Igande honetan, berriz, plazan zabalduko dute hautetsontzia. Horrekin batera, ez dute ekitaldi faltarik izanen. Goizean, murala margotuko dute eta herriko trikitilariak kalejiran ibiliko dira herrian barna. Eguerdian, kerrena egingen dute eta arratsaldean, haurrendako txokolatada antolatu dute.

nen da, jokoak eta tailerrak antolatu baitituzte.

Zubietan igandera begira

Zubietarrek igandea dute botoa emateko egun bakarra, eta horretarako, herriko plazan paratuko dute hautetsontzia. Horrez gain, eguerdia bitarte, trikitilariak herri bazterrak alaitzen ibiliko dira eta taloak dastatzeko aukera ere izanen dute. Arratsaldean, berriz,

muxikoak dantzatuko dituzte plazan eta txokolate-jatea ere egingen dute.

Emaitzak biharamunean

Igande honetako herri-galdeketa, Malerreka eta Bertizaranako herrietan izanen diren emaitzen berri, TTIPI-TTAPAK biharamunean emanen du ERRAN.EUS atarian, baita maiatzaren 17ko TTIPI-TTAPA aldizkarian ere.



Zinea zena moldatu eta erabilera anitzetako Herri Areto egingen dute.

Herri Aretoa egiteko 300.000 euroko laguntza jasoko dute

Udalak Herri Aretoaren proiektua aurrera eramateko Nafarroako Gobernuako Kultura Sailarekin hitzarmena sinatu du

JUAN MARI BARRIOLA

Udalaketa Nafarroako Gobernuako Kultura Sailak zinema zen tokian moldaketa-lanak egin eta Herri Aretoaren proiektua aurrera eramateko hitzarmena sinatu berri dute. Hori horrela, herriak 300.000 euroko laguntza jasoko du. Moldaketa-lanekin aurtengo udan

hastea aurreikusi dute, uztailean zehazki.

Proiektu horren bidez, zinema zen aretoko arazoak (instalazioei, irisgarritasunari, energia galerari eta ekipazioari dagozkionak, adibidez) konpondu eta funtzio anitzeko-gune bihurtu nahi dute. Horrekin batera, zinemaren

inguruko kaleak urbanizatu eta herritar guztientzat irisgarriago egin nahi dituzte.

Bai proiektua, bai eta zuzendaritza lanak ere Prada Arquitectura estudioak egingen ditu. Behin-betiko proiektua esku artean dutenean, Udalak obrak esleitzeko prozedura abiatuko du. Horrek guztiak daraman denbora tarteko, obrak uztailean hastea aurreikusi dute.

Udala 2017an hasi zen Nafarroako Gobernuako Kultura Sailarekin bilkurak egiten. Orduan, moldaketa-lanen aurreproiektua eta herrian egindako sinadura bilketaren emaitzak (1.445 sinadura, 16 urtetik goitiko biztanleriaren erdiak baino gehiagok sinatu zuen) aurkeztu zituzten. Orain, ordea, beste urrats bat eman dute. Izan ere, Gobernuako Kultura Sailetik, lanak finantzatzeko 300.000 euroko laguntza jaso dute.

Diru-laguntza gehiago

Ez da proiektua babestu duen laguntza bakarra izan. Besteak beste, PILEko izendapen asketik, esaterako, beste zenbait laguntza jaso dituzte.

Era berean, Europatik bideratzen diren (IDAE) laguntzen deialdia ebazteko zain daude.

'Kontzientzia eskuratu iraultza' antolatu dute

Atekabeltz Gaztetxeak, Irurtzongo Pikuxarrekin elkarlanean, *Kontzientzia eskuratzeko iraultza* antolatu du. Apirilaren 28tik ekainaren 23ra bitarte hainbat saio antolatu dituzte, Irurtzunen, Larraunen eta Leitza. Maiatzaren 6an, 18:00etan Atekabeltz Gaztetxean izanen dute hurrengo hitzordua. Ekainaren 9an, errepresioari buruzko mahai inguruan bilduko dira (11:30ean) eta ondotik, bazkaria izanen dute. Txartelak hitzaldietan edo Torrean eros daitezke (6euro).

Nafarroako Karate Txapelketa maiatzaren 5ean

Maiatzaren 5ean, larunbatean, Nafarroako Karate Txapelketaren 5. edizioa jokatu da herrian. Aurtengo honetan herriko kiroldogian izanen dute hitzordua hemeretzi urtetik beherako karatekek. Norgehiagokak 16:30ean hasiko dira.

Urratsez Urrats berrikuntza proiektuaren harira eginiko lanketa aurkeztuko dute

JUAN MARI BARRIOLA

Joan den urtean abiatutako Urratsez Urrats Proiektuari segida eman diete Amazabal institutuko ikasleek. Heldu den maiatzaren 4an, 11:30ean, Udaletxeko Batzar Aretoran ikasturtean gaia jorrazteko eginiko jardueren aurkezpena egingen dute. Honakoak izanen dira landuko dituzten gaietako batzuk: kalejirako jendea gonbidatzeko eginiko eskutitzak; proiektuaren logoa; kalejirako irudiak; Leitzako mugikortasunari buruzko txostena; auto kopuruaren eta



Hilaren 4an udaletxean bilduko dira.

horien abiadurari buruz ataratako emaitzak; estatistikak; sare sozialetan hedaturiko mezuak; diptikoak... Herritarrek aurkezpenera gonbidatu nahi izan dituzte.



UTZITAKO ARGAZKIA

Perurenak azken liburua aurkeztu du

20 lagun inguru bildu ziren Patziku Perurenak, Jon Unanue lagun zuela, azken lanaren inguruan eginiko aurkezpenean. *Leitzalarreko unaiak* lanaren harira 1981 eta 1771 bitarteko hainbat bitxikeria azalera zituen idazleak; entzuleen aurpegietan irribarreak eraginez.

Kultur Aroan maiatzaren 4an hasiko da

Maiatzaren 4an, ostiralean, abiatuko da XLI. Kultur Aroa. Aurtengoan, Kultur Taldeak zuzenean hitzaldiak antolatu beharrean, herriko eragileen proposamenak bildu eta koordinatu ditu. Hainbat dira antolatutako ekitaldiak: tailerrak, Kattalingune zerbitzuaren aurkezpena (hilaren 10ean, udaletxean, 19:00etan); gazteentzako *Ni ta punto* ipuin saioa (maiatzaren 15ean, 20:00etan, Karrapean), maiatzaren 17an *Euskal bideal desarma* lanaren aurkezpena (19:00etan Atekabeltzen), Jeiki Abesbatzaren saioa (Torrean, maiatzaren 18an, 22:30ean)...

Autodefentsa Feminista Tailerra, maiatzaren 5ean

Berdintasun Batzordearen eskutik, maiatzaren 5ean, 10:00etatik 14:00etara bitarte eta 16:00etatik 20:00etara Autodefentsa Feminista Tailerra izanen dute. Hamalau urtetik gorako emakumeei bideraturiko tailerra debalde izanen da eta udaletxean bilduko dira. Aurrez izena ematea beharrezkoa da. Besteak beste, feminismoa, erresilientzia, ahizpatasuna, ahalduntzea, eskubideak eta ongizatea izanen dituzte hizpide.

Ez dok hiru antzezlanak, maiatzaren 12an

Tartean antzerki taldearen Ez dok hiru antzezlan akustikoak gozatzeko aukera izanen da maiatzaren 12an, larunbatean, zineman, 19:00etan. Emanaldi hori zineman eskainiko den azkena izan daitekeenez, Leitza, Goizueta, Areso eta Arano Euskara Zerbitzuak herritarrei antzezlanak ikustera joateko deia egin nahi izan die. Sarrerak Maimur liburudendan eta Torrean eta Peritzan tabernetan jarri dituzte salgai. Helduek hamar euro ordaindu beharko dituzte; 14 eta 18 urte bitartekoek, berriz, sei.



UTZITAKO ARGAZKIAK

XL. Herri Krosa borobila eta ikusgarria

Giro ederrean joan zen XL. Herri Krosa. Ehun heldu inguru eta haur mordoxka bildu ziren. Kategoria absolutuan 9 km egin zituztenen artean Aitor Mimenza izan zen garaile; 4,5 km-koan, berriz, Daniel Parraga. Ikusleek, txalo artean, harrera goxoa egin zieten helmugaratutako lasterkariei.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Illarregi Nafarroakotik Euskal Herrikora

Xabat Illarregik Nafarroako bertsolari gazteen txapelketa irabazi du. Bigarren postua, berriz, Ekhiñe Zapiain beratararentzat izan da. Horrela bada, biak sailkatu dira ekainaren 9an Saran egingen den Euskal Herriko Eskolarterako.



Dorronsoro Erriberriko lasterketan.

Iñigo Dorronsoro Nafarroako garaile errepideko txirrindularitzan

JUAN MARI BARRIOLA

Transbidasoa-Euromaster-Inurrieta taldeko Iñigo Dorronsoro leitzarria, Master40 mailan, Nafarroako txapeldun izan da Erriberrin egindako lasterketan. Guztira berrehun kirolzalek hartu zuten parte Espainiako koparako puntu-garria zen txapelketa horretan. Sailkapen orokorrean Iñigo Dorronsoro 11. izan zen. Maila handiko berrehun lagun bildu ziren Erriberrin. Haizea eskasa izanenez, La Blanca mendatera txirrindulari guztiak tropelean iritsi ziren. Une horretan, Dorronsorok azken indarrak atera eta guztiei aurre hartzen saiatu zen. Ahaleginak ahalegin, 11. postua lortu zuen, txapela eman ziona.

Eskualdeko txirrindulari gehiagok parte hartu zuten

Besteak beste, Transbidasoa-Euromaster taldeko Jabier Ariztimuño leitzarria 81. izan zen; Peio Lizartza leitzarria 83.; Iñigo Lizartza leitzarria 84.; Juan Jesús Irigarai 112.; Txutxin Fernández 125.; Erreka Kirol Elkartekoan artean, berriz, Iñigo Arregi doneztebarra, 93.; Jon Maritxalar sunbildarra 104.; eta Imanol Etxeberria arizkundarra 138. izan dira.



Dragoiak ez du hutsik eginen Txino auzoko fiestetan. ARTXIBOA

Txino auzoko fiestak ospatuko dituzte asteburu honetan

Hamabosgarren urtez bi egunetarako ekitaldi asko prestatu dituzte herriko hainbat eragilek elkarlanean

TTIPI-TTAPA GOIZUETA

Gazte Asanbladak, Guraso Elkartek, Ezker Abertzaleak, Umore Ona Elkartek eta herriko gazteek elkarlanean, Txino auzoko fiestak antolatu dituzte beste urte batez. Aurtengo hamabosgarren edizioa izanen da eta aurrekoetan bezala, zubiaren beste aldean

ez da musika, jai-giro eta ikuskizunik faltako. Bi egunez, maiatzaren 4an eta 5ean, ekitaldi ugari prestatu dituzte.

Maiatzak 4, ostirala

Ostiral ilunabarreko bertso-saioarekin hasiko dira fiestak. Aldi honetan, Agin Laburu eta Eli Pagola gonbidatu dituzte

eta 20:00etan beraien txanda izanen da. Gauean, berriz, 22:30ean, dagoeneko ohikoa bihurtu den mus txapelketa jokatu dute Zubiondo tabernan.

Maiatzak 5, larunbata

Larunbatean jarraituko du auzoko jai-giroak. 11:00etan haur eta gaztetxoek krosa eginen dute, eta 12:00etan botako dute fiestei hasiera ofiziala eman dien txupinazoa. Ondotik, dragoia aterako dute eta trikitilariak ere kale bazterrak alaitzen ibiliko dira. 13:00etan sokatiran ariko dira herritarrek eta 14:30ean herri bazkaria eginen dute. Txartelak Amaiarenean salgai daudela jakinarazi dute antolatzailuek.

18:00etan Papo kubatarrak ikuskizuna eskainiko du eta ondotik, dantzaldia izanen da Irati eta Leirerekin.

Jan-edana auzoan

Fiesta den tokitik mugitu gabe, jatekoa eta edatekoa izanen da auzoan berean. Ostiral arratsalde eta gauean, eta larunbatean, Zubi-Ondo taberna irekia egonen da. Larunbat eguerdian eta arratsaldean bajera ere irekiko dute.

2018rako aurrekontua onartu du Udalak

802.498,46 euroko aurrekontua onartu du Goizuetako Udalak 2018rako. Jendaurrean egon zen epean erreklamazioak aurkeztu ez zenez, martxoaren 15ean behin betikoz onartua gelditu zen. Unai Loiarke alkateak prentsan adierazi duenez, hasierako aurrekontuan, %6a bideratuko dute inbertsioetara, baina hala ere, zenbait proiektu egin nahi dituzte: Xalto eskolako eta Plazako parkeak berri, Artikutzako aparkalekura doan bidea egokitu, Madalenako zubitik Olatxora bidegorria...

Udakolore Balkoi Lehiaketa antolatu du Udalak

Udakolore Balkoi Lehiaketa antolatu du Goizuetako Udalak. Besteak beste, etxearen aurrekaldea, balkoi eta leihoen edertasuna, originaltasuna eta loreen konposizioa hartuko dituzte kontuan. Irabazleak 150 euro hartuko ditu herriko komertzioetan gastatzeko.

Hainbat ekitaldirekin gozatzeko aukera izan dute aranoarrek apirilean

TTIPI-TTAPA ARANO

Joan den urri bukaeran inauguratu zuten Maisuenea. Dagoeneko, hilabeteak pasatu dira Udalak garai bateko maistraren etxea erabilera askotariko areto bihurtu zuenetik, eta ateak zabaldu zituenetik ekitaldi askoren lekuko izaten ari da. Azken aldian ere bide horretatik segitzen du.

Apirilaren 14an, esaterako, Saharari eskainitako arratsaldea izan zuten. Bideo emanaldia, argazki erakusketa, melfa saharar jantzien probaketa eta te dastaketa egin zituzten, besteak beste. Horrez gain, Olga Leibar El Watan saharar elkartearen kideak solasaldia eskaini zuten eta kanpamentuetako bizimoduaz eta emakumeen egoeraz hitz egin zuten. Kori sahararren berri ere eman zuten.

tuzten, besteak beste. Horrez gain, Olga Leibar El Watan saharar elkartearen kideak solasaldia eskaini zuten eta kanpamentuetako bizimoduaz eta emakumeen egoeraz hitz egin zuten. Kori sahararren berri ere eman zuten.

Musika tailerra

Apirilaren 21eko goizean, bestalde, Xabier Peroniek musika esperimentalaren inguruko tailerra eskaini zuen Maisuenean. Hamabi neska-mutiko eta guraso batzuk bildu ziren, eta Peroniek musika elektro-



Gaztetxoek tarte atsegina pasatzeko aukera izan zuten tailerrean. UTZITAKOIA

nikoaren inguruko zertzelada batzuk azaldu zizkien bi ordu iraun zuen saioan.

Hurrek soinuak distortsionatzeko hainbat tresna ezagutu eta probatzeko aukera

izan zuten eta horrez gain, musika tresnen doinuak eta ahotsak grabatuz, erritmo dibertigarriak sortu zituzten. Tailerra karaoke batekin borobildu zuten.



Udalak herritarrei bilerara joateko deia egin die. UTZITAKO ARGAZKIA

Hirigintza Planaren harira, Udalak bilerak antolatu ditu

Maiatzaren 2an izan zuten lehendabizikoa eta maiatzaren 9an eta 16an izanen dituzte hurrengoak

TTIPI-TTAPA

Hirigintza Planeko lehenbiziko fasea ixten joateko parte-hartze prozesua abiatu du Udalak. Parte-hartze prozesu horren bidez herriak etorkizunera begira zer hazkunde eredu izan behar duen eztabaidatzea dute helburu. Horrela bada, hiru proposamen

jarri ditu Udalak mahai gainean: hazkundera bultzatzea, mantentzea edo erdibideko zerbaiten bila jotzea.

Maiatzeko lehenengo asteazkenean egitekoa zuten lehendabiziko bilera eta ondorengo bi asteazkenetan izanen dira hurrengoak; maiatzaren 9an eta 16an, zehazki.

18:30etan dute hitzordua eta udaletxean bilduko dira.

Azalpen orokorretatik xehetasunetara

Aipatu bezala, herritarrek Hirigintza Planean esku har zezaten, hiru bilera antolatu zituen Udalak. Lehenengo bileran Hirigintza Planaren inguruko azalpen orokor bat ematea eta herriak dituen behar, arazo... nagusiez hitz egitea zuten aurreikusita.

Bigarren saiorako, maiatzaren 9korako, berriz, hiru zati jorratzea dute buruan. Hasteko landako lurjabeekin elkartuko da Udalak; gero herrian lurrak dituztenekin; eta bukatzeko gazteekin edo etxebizitza bat lortzeko interesa dutenekin.

Era berean parte-hartze prozesuri bukaera emateko, plazaren ondoan dauden lursailekin zer egin daitekeen ere aztertuko dute.

Herritarrek parte hartzeko deia egin dute

Bileretan herriaren etorkizunaren inguruko erabakiak hartuko dituztenez, lerro hauen bidez herritarrei parte hartzeko deia luzatu nahi izan die Udalak.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Orain arteko Berdintasun Plana berritzen ari dira

JUAN MARI BARRIOLA

Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko berdintasun batzordeak emakume eta gizonen arteko Berdintasun Plana berritzen ari dira. Horretarako, lehendabizi, aurretik zegoen txostena aztertu eta ebaluatu egin dute.

Moldaketak egin ahal izateko, prozesu parte-hartzailea abiatu dute. Horrela bada, batetik, banakako elkarrizketak egiteari ekin diete; eta bestetik, taldekako ekarpenei tarte egiteko, eztabaida taldeak sortu dituzte. Hala, herritarren ekarpen guztiei tarte egitea izan dute helburu.

Banakako elkarrizketak eta talde eztabaidak uztartuz, Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko berdintasun batzordeek plana idazteari ekin diete. Udarako plana martxan jartzeko asmoa dutenez, buru-belarri ari dira lanean.

Planak, besteak beste, generoaren gaineko ikuspuntuak, emakumeen ahalduntzea, parte-hartze sozio-politikoak, emakumeen aurkako indarkeria eta hori kudeaketarako metodologia jorratzen ditu.

Eliza moldatzeko auzolana egin dute herrian

2017ko abenduaren 29an elizan izan zen sutearen arrastorik ez dago ia. Ezkerreko aldea osorik erre zen eta keak paretak zikindu zituen. Garbiketa lanak egiteko lehendabiziko auzolana urtaril bukaeran egin zuten. Orain, berriz, margoketa lanak bukatu dituztenean, herritarrek eliza garbitzeko berriz bildu dira. Argazkiek ederki islatzen dutenez, herritarrek gogotik egin dute lan auzolanetan.



JAIONE OLAZABAL



Aurten ere giro polita izanen dute Berroetako Mendekoste bestetan. MAIALEN IANTZI

Berroetako bestak maiatzaren 18tik 21era izanen dituzte

Mendekoste egunean, igande arratsaldean, Buhaminak Baionako emazte kantu taldea ariko da kantari

MAIALEN IANTZI BERROETA

Maiatzaren 18an, ortziral arratseko 8etan botako den txupinazoarekin hasi eta asteleheneko zikiro eguneko zikiro eta xingar jateak bitarte, lau eguneko Mendekoste besta dotoreak prestatu dituzte Berroetan. Egun handian, Buhaminak taldea ariko da kantari.

ORTZIRALEA 18: BEZPERA

- 20:00 Suziriak beste hasiera emateko.
- 20:30 Txopo goratzea herriko trikitalariekin. Ondotik mutil dantzak.

- 21:30 Baztan zopak eta kantu zaharrak (txartelak sagai).
- 00:00 Dantzaldia Trikidantz taldearekin (gan-torri autobus zerbitzua gau osoan izanen da).

LARUNBATA 19: HAUR ETA GAZTEEN EGUNA

- 11:00 esperientzia birtuala.
- 14:00 Gazteen bazkaria Aizkoan.
- 16:00 esperientzia birtuala.
- 20:00 paella lehiaketa.
- 21:30 Herri afaria (txartelak sagai)
- 00:00 Dantzaldia Salaberriekin.

Egun osoan puzgarriak izanen dira.

IGANDEA 20: MENDEKOSTE EGUNA

- 10:00 Erraldoiak eta gaiteroak herrian barrena ibiliko dira.
- 11:00 Meza nagusia. Ondotik, luntxa plazan eta pilota partida.
- 19:00 Buhaminak Baionako emazte kantu taldearen emantaldia.
- Ondotik dantzaldia Salaberriekin.
- 22:00 Xingar jatea Salaberrik alaiturik.

ASTELEHENA 21: ZIKIRO EGUNA

- 11:00 XLVI. Berroetako bizikleta itzulia.
- 12:00 Mus eta partxis txapelketa.
- 14:00 Zikiro jatea Beñatek alaiturik.
- 21:30 Xingar jatea kantu zaharrekin.
- 00:00 Gaixoa ni bestak akitzeko.

Elizondoko herria fiskalaren kontra hitzaldia

Elizondoko herria fiskalaren kontra edo Baztango ezpata-dantzak nola desagertu ziren solasaldia eskainiko du Fernando Tamayo Goñi musikologoak maiatzaren 4an, ortziraletan 19:00etan Arizkunenea Kultur Etxean. Elizondoko Abesbatzak antolatatu du.

Haur eta Gazte kantarien 7. Topaketa Iruritan

Haur eta Gazte Kantarien Topaketaren zazpigarren edizioa antolatu du Elizondoko Abesbatzak. Maiatzaren 5ean, larunbatean 19:00etan izanen dute hitzordua Iruritako elizan. Honela, azken urteetan bezala, zonaldeko haur eta gazte-txoak bilduko dira.

Arizkun Rock jaialdiko taldeak jakinarazi dituzte

Arizkun Rock ekitaldirako musika taldeak zein izanen diren iragartzen duen kartela atera berri dute. Kaotiko eta Sofokaos taldearen eta Tirri&Tery DJaren emanaldiek giro-tuko dute jaialdia. Ekainaren 22an, 23:00etan hasiko dira kontzertuak (sartzea doan).

zergalan | **asegi**
asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa

- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

**MARMOLES
SOULE**

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

ARIZKUN
M. 688 605 182
T. 948 453 444
marmolessoule@gmail.com
www.marmolessoule.com



Bi erraldoi gehiago izanen ditu Elizondoko konpartsak. A. DEL CASTILLO

Bi erraldoi berrien aurkezpena egingen dute igandean

Markalaingo Aitor Calleja eta Mikel Eraso dira egileak eta Elizondoko plazan egingen dute aurkezpena (11:00)

TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Bi erraldoi berri ibiliko dira Baztango karririk alaituz aurrerantzean, Baztango Gaitariak eta Jo al Jo kultur elkarten eskutik. Izan ere, Baztango eta inguruko herri aunitzetan ez dago erraldoirik eta gabezia hori betetzeko asmoarekin egin dira pertsonai berriak. Bi

figurak egitea inbertsio ederra izanagatik ere, inongo laguntzik gabe erosi direla erran beharra dago, urteetan joaldietatik ateratako sosak erabili baitira horretarako. Emazteki eta gizon batek osatzen dute bikotea eta genero ikuspegi lantzen da orain arteko eredu zaharkituei buelta ema-

nez. Erraldoi egileak Markalaingo Aitor Calleja eta Mikel Eraso dira eta gazteak izanagatik ere, esperientzia handiko artistak dira. Nafarroako eta kanpoko hainbat eta hainbat herrietako erraldoiak eta bertzelakoak egin dituzte. Goraipatzekoa da aldi honetan egin duten lana ere bai.

Aurkezpena igandean

Erraldoiak aurkezteko ekitaldi publiko bat egingen da Maiztaren 6an, igande goizeko hamaiketan Elizondoko plazan (euria eginez gero, Iriarte pilotalekuan) eta jende guztia gonbidatuta dago parte hartzera. Ekitaldian lehenik aurkezpen ttiki bat egingen da eta segituan ohorezko dantza egingen zaie bi baztandar berriei. Segituan balts eder bat dantzatuko dute denendako eta Elizondoko karriketetan barna kalejira bat egingen dute parte hartuko duten bertze erraldoi eta musikariekin batera. Bukaeran, denen artean balts bat dantzatuko da Elizondoko plazan eta ekitaldia akitzeko familia argazkia aterako dute. Gero antolatzaile eta parte-hartzaile guztiek bazkari eder bat gozatzeko aukera izanen dute.

Elizondoko bestetako kartel lehiaketara lanak aurkez daitezke

TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Elizondoko Herriak bestetako kartel lehiaketa antolatu du aurten ere. Lehiaketa irekia izanen da eta nahi adina lan aurkezten ahal izanen dira. Ondoko testua agertu beharko da: *Santioak 2018 Elizondoko bestak, Uztailaren 24tik 28ra*. Ekainaren 1a baino lehen aurkeztu beharko dira.

Kartelaren neurria A3koa izanen da eta euskarri digitalean aurkeztu beharko dira, eta horrekin batera, orri batean inprimatua. Lanak Elizondoko Herriko Etxera bidali beharko dira ekainaren 1a baino lehen. *Elizondoko Herriko Etxea, Jaime Urrutia 4, 31700 Elizondo (Nafarroa)*.

Elizondoko Besta Batzordeko kideek osatuko dute epaimahaia eta ekainaren 8tik aitzinera jakinaraziko dute erabakia. Irabazleak 200 euro eskuratuko ditu. Abuztuaren 4tik aitzinera parte hartzaileek beren lanak berreskuratu ahal izanen dituzte.



Diputazio etorbidea, 7
Tfnoa: 948581805

GOI MAILAKO ZIKLOAK

Administrazio eta Finantzak
Turismoko Ostaturen Kudeaketa

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

Administrazio Kudeaketa
Erizaintzako Zainketa Lagungarriak
Mekanizazioa

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA

Metalezko Elementuen Fabrikazioa

LANBIDE HEZIKETA BEREZIA

Bulego Laguntzailea



Aurrematrizazio
epea

Maiatzak
7-11



Berroeta-Saioa-Berroeta Mendi Maratoi Erdian parte hartu zutenak. M.IANTZI

Gipuzkoarrak garaile Berroetako Mendi Maratoi Erdian

21 kilometroko ibilbidean eta Azkoitiako Ioseba Diaz eta Segurako Ainara Garaialde nagusitu ziren

MAIALEN IANTZI BERROETA Berroeta-Saioa-Berroeta lasterketaren bigarren edizioa izan zen apirilaren 22an. Lasterketan 50 lagunek parte hartu zuten. Ibilbidea Berroetako plazan hasi zen eta inguruko parejeetan barrena Saioara joan ziren lasterkariak, kaskoraino bederasti kilometro osatuz. Handik, Okolin aldera segitu zuten eta Larralden barrena, herrira bueltatu ziren, denetara 21 kilometro eginez. Ibilbidea egiten lehen Ioseba Diaz Lopez azkoitiarra izan zen, 01:58:31 denborarekin. Bigarren postuan, Daniel Iparragirre Iturria arantzarra ailegatu zen (02:00:17) eta hirugarrenean, Mikel Beunza Iraizoz (02:01:39). Emakumeen sailkapenari dagokionez, Ainara Garaialde Zeberio segurarra izan zen lehendabizikoa, 02:42:03 denborarekin. Jarraian, Erkunde San Martin Gonzalez (02:49:15) eta Amairuko Begoña Aroztegi Mikelestora (03:20:54) iritsi ziren, bigarren eta hirugarren postua lortuz. Lehendabiziko baztandarra, Dani Etxeberria Iturbide arizkun-

darra izan zen (sailkapen orokorrean zazpigarrena, 02:13:43). Unai Iantzi Maritoren aniztarra bederatzigarren izan zen (02:16:21), Asier Gamio Igoa berroetarra hamakagarren (02:17:25), Gabon Gamio Etulain aniztarra hamabigarren (02:17:52), Patxi Barberena Ibarra zigatarra hamalagarren (02:24:26), Iñaki Iantzi Maritoren aniztarra hamabosgarren (02:26:12), Jagoba Ramos iruritarra hamazazpigarren (02:27:11) eta Iñaki Zelaieta aniztarra hemezortzigarren (02:27:12).

Oinezko andana

Lasterkariet gain, oinezko andana batek ere egin zuen ibilbidea. Hauek 07:00etan abiatu ziren eta oinez 21 kilometroak egiten zituzten bitartean, lasterkariak ikusi eta animatu zituzten.

Eguraldia ezin hobea izan zen eta plaza bazterrean zein mendian giro bikaina sortu zen. Animatezailerik ez zen falta izan bazterretan. Lerro hauen bitartez, zorionak parte-hartzaile guztiei!



UTZITAKO ARGAZKIA

Hondakinen egutegiko saria Iruritarra

Iruritako Maite Etxenike Iñarrea izan da aurten hondakinen egutegiko zenbakiarekin eskualdeko dendetan gastatzeko 300 euroko bono-txartelarekin saritua izan den bigarrena. Mikel Ortega Arraztoa Baztango Udaleko zinegotziak eta Miren Meoki hondakin teknikariak entregatu zuten saria.



JUAN MARI ONDIKOL

Jolasean musikala jendez gainezka

Josu Elberdinen Jolasean musikalak jendez gainezka bete zuen Elizondoko Baztan pilotalekua apirilaren 21 eta 22an egindako bi emanaldietan. Hasieran larunbaterako bakarrik iragarria zegoen, baina sarrera guztiak saldu zirenez, bigarren saio arrakastatsua eskaini zuten igandean ere.

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
ESTRUKTURALAK

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

Udaberriko Pilota Txapelketako finalak jokatu dituzte

Txaruta elkarteak antolatutako 27. edizioaren azken partidak Elizondon eta Amaiurren izan ziren apirilaren 15ean

TTIPI-TTAPA

Txaruta elkarteak 28. aldiz antolatutako Udaberriko txapelketako finalak apirilaren 15ean jokatu zituzten Elizondoko Baztan Udal pilotalekuan eta Amaiurko Gure Ametsa pilotalekuan. Denera 162 bikote aritu dira.

Umeak A: Mikel Gaztañaga eta Aimar Beroz (Andoain), 18-Jokin Artetxe eta Abel Astigarraga (Azpeitia), 8.

Kimuak A: Aratz Otaegi eta Ioritz Zarrabeitia (Ordizia), 18- Joel Garaimoetxea eta Ugaitz Apeztegia (Oronoz-Elizondo), 6.

Haurrak A: Ugaitz Amundarain eta Martxel Iztueta, (Tolosa), 18-Xabat Sasiain eta Hegoi Telleria (Zestoa-Zegama), 7.

Kadete A: Aimar Eiguren eta Josu Labaka (Azpeitia), 18-Iker Ibarra eta Arai Murillo (Paz Ziganda), 8.

Gazteak: Oier Ariztegi eta Axier Ballarena (Lekaroz-Elizondo), 22-Josu Igoa eta Mikel Zabalera (Oberena), 11.

Umeak B: Axi Astibia eta Ganix Rodriguez (Leitza), 18-Inar Barandiaran eta Mikel Altzua (Ataun), 14.

Kimuak B: Oihan Lantzeta eta Aimar Segurola (Andoain), 18-Eñaut Iburguren eta Markel Iturbe (Lazkao), 17.

Haurrak B: Oihan Etxeberria eta Oier Ibarluzea (Errenteria-Urretxu), 18- Jokin Askarai eta Haritz Goena (Lazkao), 3.

Kadete B: Xabi Gerendiain eta Aitor Elizondo (Ultzama), 18-Oskar Alastuy eta Mikel Otondo (Oberena), 10.

Sari banaketan, Iñigo Martinez eta Julen Martija pilotari profesionalak izan ziren.



Parte-hartzaileetako batzuk, antolatzaile eta sari-emaileekin. FOTO ZALDUA

TELEFONO GIDA 2018 INGURUOTAKO TELEFONO GUZTIAK

Baztan | Bertizarana | Bortziriak | Malerreka | Mendialdea | Urdazuri



- 5.700 ale
- Praktiko eta erraza

- Komertzioak
- Lantegiak
- Zerbitzuak
- Erakundeak
- Partikularrak...

Zure enpresa sartu nahi?

Milaka pertsonak ikusiko dute zure iragarkia

Informa zaitez

T. 948 63 54 58 | publi@ttipi.eus

Zure enpresaren datuak internet eta app bidez klik batean





Muslariak Arizti Elkarte. XABIER MARITORENA

19 bikote hasi dira Arraiozko XIII. Mus txapelketan

Horietatik zortzi gelditu dira bigarren faseari ekiteko eta aspaldian izan den giro onena sortu dute Arizti Elkarte

XABIER MARITORENA ARRAIOZ
Pasa den apirilaren 13an hasi ziren Arizti Elkarteak Arraiozen urtero antolatzen duen mus txapelketa. Aurten inoiz baino jende gehiago animatu da parte hartzera, 38 gizon eta emakume, hain zuxen ere.

Hemeretzi bikote horiek bi multzotan banatu zituzten hasmentan. Multzo bakoitzean denek denek kontra jokatu beharko dute eta multzo bakoitzetik lau bikote sailkatuko dira. Horretarako hiru ortziral izan dituzte eta lehenbiziko fase hau apirilaren 27an akitzekoa zen.

Bigarren bueltan 8 bikote arituko dira, multzo bakoitzetik lau lehenbizikoak, eta hauek ere denek denek kontra jokatu dute. Hoietatik lau finalera pasako dira.

Izena ematerakoan bikote bakoitzak 20 euro ordaindu zituen eta sos honekin sari ederrak erosiko dira bikote onenendako, bildotsak, ardoak, gasnak, etab.

Aspaldian Arraiozko Arizti Elkarte egon ez den giroa sortu da, musa aitzaki, elkarrekin egoteko gune sozial goxo bat sortuz eta herritarrek elkartuz.



MAITANE MARITORENA

Liburuaren Eguna opatu dute Anizen

Aurten, lehenbizikoz, Liburuaren Eguna ospatu dute Anizen. Goizean material birziklagarriekin liburu handi bat egin eta barneko aldea pintatzen aritu ziren. Arratsaldean, berriz, Jauregiko Joxe Juakinek Anizko kontu zaharrak kontatu zituen; Indeko Frantxixkak, berriz, ipuinak.

Musikoterapia haurdunaldian tailerra Elizondon

Agruparte Elkarteak eta Baztango Udalak, lankidetzan, haurdun daudenendako musikoterapia tailerra antolatu dute. Zortzi saioko tailerra maiatzaren 2tik ekainaren 20ra bitarte eskainiko da, Arizkunenea Kultur Etxean (asteazkenetan, 10:00-11:30).

Uhaina Apeztxeren proiektuak laguntza jasoko du

Baztango Udalak, berriz ere, Baztan ikergai duten ikasketa akaberako proiektu edo lanak egiteko diru-laguntza deialdia egin zuen. Eskaera bakarra jaso zuten, Erratzuko Uhaina Apeztxerena, zehazki.

Eskaera egiteko baldintzak betetzen dituzenez, eta epaimahaia onatzen eman duenez, Udalak diruz laguntzea onartu du. Hori horrela, 500 euroko laguntza jasoko du. Lan horren bidez, emakume atzeritarrek Baztanen duten egoera aztertuko du, genero perspektatiba ardatz duela.

NELI YANCI
BIZI eta OSASUN AHOLKULARIA
ASEGURU MOTA GUZTIAK
C007272664074J

Santiago 72B 31700 ELIZONDO
T./F. 948 580 504 • 649 947 182
generalielizondo@hotmail.com

Begiratu aukera gehiago gure web orrian
corneliayanciberrueta.seguros.generalies

ERRENTA AITORPENEAN DESGRABATU NAHI?

ORAIN desgrabatzeko:
Prebisio Plana
Pentsio Plana

ETORKIZUNEAN desgrabatzeko:
PIAS
SIALP

Traspasatu zure plana GENERALIra

Edo kontratatu orain zure etorkizuna ziurtatzeko!



ORBELA
SENDERMADA ATERPENA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia - Mikel
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

Urdazubiarrek dute batez bertzeko errentarik altuena

25 udalerrietako datuak kontuan hartuta, 2008tik 2016ra %4,5 hazi da pertsona fisikoek duten errentaren zerga-oinarria



Ogasunak Donezteben duen bulegoa. TTIPI-TTAPA

TTIPI-TTAPA

PFEZ (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga) kontuan hartuta, Nafarroako aberastasunaren mapa osatzen du urtero Nafarroako Ogasunak. Errenta-aitorpenetatik ateratzen diren datuekin osatzen da mapa hori, herritarren deklaratzeko duten zerga-oinarriaren batez bertzekoarekin zehatzagoak izateko.

Datuen taulan ageri den moduan, Urdazubi da herririk aberatsena. Eta Nafarroa osoko datuak kontuan hartuta, bigarren herririk dirutsuena Urdazubi da, Zizurren ondotik. Horren zergatia mugako merkataritzak, turismoak eta mugaz gairikoen enpleguak herritarren ekonomian duen eraginean aurkituko genuke.

Bilakaera positiboa

2008-2016 urteen artean %4,47 hazi da herritarren zerga-oinarria. Zehatzago begiraturik, zerrendan ageri diren 25 udalerrietatik 18tan gertatu da hori. Sei udalerritan, ordea, jautsi egin da (gehien Etxalarren) eta, bakarrean (Baztan), 2008an zuen neurri berean dirau 2016an ere. Bilakaera positibo nabarmena izan dutenen artean daude Zugarramurdi (%27), Oiz (%21), Beintza-Labaien (%20), Goizueta (%19) eta Elgorriaga (%11).

«14.000 EUROKO ALDEA DAGO URDAZUBI ETA ERATSUN ARTEAN»

2016 / Herririk aberatsenak errentaren arabera

Herria	Errentak osotara	Deklaratzaileak	Zerga Oinarria	2008-2016
Urdazubi	8.822.624,49 €	299	29.507,11 €	% 00,80 ▲
Bera	54.254.678,08 €	2.724	19.917,28 €	% 01,14 ▼
Doneztebe	23.633.068,28 €	1.244	18.997,64 €	% 04,07 ▼
Leitza	43.582.701,89 €	2.186	19.937,19 €	% 04,62 ▲
Urroz	5.538.365,79 €	278	19.922,18 €	% 08,39 ▲
Lesaka	38.461.102,42 €	1.987	19.356,37 €	% 03,28 ▲
Arano	1.626.752,92 €	86	18.915,73 €	% 02,49 ▲
Areso	3.663.129,22 €	195	18.785,28 €	% 00,26 ▲
Sunbilla	10.211.941,87 €	546	18.703,19 €	% 05,62 ▲
Ituren	6.631.647,19 €	359	18.472,55 €	% 19,40 ▲
Goizueta	9.426.282,21 €	512	18.410,71 €	% 02,33 ▲
Ezkurra	1.710.228,63 €	94	18.193,92 €	% 07,58 ▲
Igantzi	8.431.046,97 €	466	18.092,38 €	% 00,93 ▼
Arantza	8.169.046,26 €	453	18.033,21 €	% 04,65 ▲
Etxalar	10.495.466,62 €	588	17.849,43 €	% 03,65 ▼
Baztan	94.750.043,58 €	5.457	17.363,03 €	% 00,00 =
Bertizarana	7.381.723,71 €	426	17.327,99 €	% 08,75 ▲
Oiz	1.590.207,79 €	94	16.917,10 €	% 21,27 ▲
Beintza-Labaien	2.575.797,08 €	153	16.835,28 €	% 20,33 ▲
Donamaria	5.002.959,12 €	299	16.732,30 €	% 02,79 ▲
Elgorriaga	2.546.500,42 €	153	16.643,79 €	% 10,73 ▲
Zubieta	3.407.915,94 €	208	16.384,21 €	% 05,65 ▲
Zugarramurdi	2.889.148,62 €	179	16.140,50 €	% 27,32 ▲
Saldias	1.467.684,84 €	94	15.613,67 €	% 01,21 ▼
Eratsun	1.448.725,93 €	94	15.411,98 €	% 01,23 ▼
	357.718.789,87 €	19.174		% 04,47 ▲

OHARRA:

Nafarroako Ogasuna 2008an hasi zen argitaratzen zenbatekoa den herritar bakoitzaren batez bertzeko errenta. Hartara, errazago ikusten ahal da errentaren deklarazioa egiten dutenen aberastasunak nolako bilakaera duen urte hauetan (2008-2016). Nafarroan dauden 271 udalerririk kontuan hartuta, 46 dira 20.000 euro baino gehiagoko zerga-oinarria dutenak.

ITURRIA: NAFARROAKO OGASUNA

Maiatzaren 31 aitzin aurkeztu behar dira beka deialdiko lanak

Sarako tokiko garapena da Eva Campo Müller izeneko bekaren helburua

TTIPI-TTAPA

Saran gauzatuko den tokiko garapenerako proiektu bat diseinatu edota abian jartzeko helburuarekin Eva Campo Müller bekaren deialdia egin dute. Izen bereko elkarteak lehenbiziko urtez antolatuta du, Sarako Herriko Etxearen laguntzarekin, eta maiatzaren 31ra arte aurkezten ahalko dira lanak: *evacampomuller.elkartea@gmail.com* e-postara edo *Eva Campo Muller elkarte* -Anaka kalea, 20 - 20301 Irun helbidera bidaliz.

Orain dela bi urte, Hiritik At-eko kide Eva Campo zendu zen. Berak tokiko garapena berrikuntza sozialari hertsiki lotua ulertzen zuela eta, bere ideia eta proiektuek segida izan dezaten, hainbat lagun eta eragileren artean Eva Campo Müller elkarte sortu zuten.



MIXEL GUERENDIAIN

160 bat lagun Sara Oinez itzulian

Aro ederrarekin, 160 bat lagunek egin zuten Har Hitz Elkarteak apirilaren 22an antolatutako Sara Oinez mendi itzulia. Gehienak Sara, Bortziriak, Azkaine eta Senperetik hurbildu ziren. Ibilaldiaren lema euskaraz egitea zen, eta antolatzaileak pozik gelditu ziren, helburua bete zelako.

Horren kariatara antolatuta dute tokiko garapenerako beka hori.

Irabazlearen berri ekainean

Jasotako proiektu guztiak elkarteak osatutako epaimahai batek aztertuko ditu eta haien artean irabazlea zein den erabakiko du ekainaren 30a aitzin.

Beka 5.000 eurokoa izanen da eta elkarteak gisa honetara ordainduko dio irabazleari: %60a irabazle izendatu ondoren, eta bertze %40a proiektua finitu, txostena aurkeztu eta epaimahaikoek onarpena emandakoan. Irabazleak sei hilabeteko epea izanen du gehienez lana finitzeko eta txostena elkarteari eta Herriko Etxeari helarazteko.

Proiektuaren emaitzak Saran eta elkarteak erabakitzen duen bertze toki batean aurkeztu beharko ditu irabazleak.



Beti Gazte elkarteko kideek giro ederrean bazkaldu zuten apirilaren 14an. GANEX


Bulegoko kide berriak aurkeztu ditu Beti Gazte elkarteak urteko biltzar nagusian

Beti Gazte elkartearen biltzar nagusia iragan zen apirilaren 14an Lur Berri gelan. Denei ongi etorria egin eta bulegoan izandako aldaketan berri eman zuten: lehendakaria Jean Etcheverrigaray da, idazkaria Maite Imaz, idazkariaren ordaina Colette Ayez, diruzaina Mixel Ferraz, diruzainaren ordaina

Anita Bats eta lehengo kideak Anne-Marie Larregle, Paquita Ordoqui eta Augustine Pradere. Kontuak ere positiboan dituzte, eta denak onetsi zituzten. Ondotik, 75 mahaikidek bazkari ederra izan zuten, baita musika ere. Bertze hitzordua ekainaren 2an egingen dute Pikassarriko jatetxean.

Denis Endara txapeldun izan da trinketean

Trinketean, buruz buruko txapelketako finala jokatu zen apirilaren 22an Arrangoitzen, eta B mailan, Denis Endara saratarrak jantzi zuen txapela. Mathieu Olhagarayri 40-26 irabazi zion.



SARAKO IZARRA PILOTA

Mugako sei herrien arteko besta larunbat honetan

Errugbi Taldeak antolatutako Herri Aitada Eguna maiatzaren 5ean iraganen da, larunbat honetan. Egun horretan, Sara, Urdazubi, Etxalar, Bera, Zugarramurdi eta Ainhoako hainbat herritar hamabi probatan ariko dira. Xehetasun gehiago 708. TTIPI-TTAPAN.

Saiberri elizan hilaren 11n eta Urrats Gaua 12an

Saiberri abesbatzak kantaldia eskainiko du maiatzaren 11n. Elizan ariko dira kantari, 21:00etatik aitzinera. Maiatzaren 12an, berriz, Urrats Gauan, Zakill, Sorotan Babies, Red Dead, Luketze eta Jompakt taldeek kontzertuak eskainiko dituzte kiroldegian.



Inharrian giro polita izan zuten, bistan denez. P. BASTRES



Kostaldekoak kantari. P. BASTRES

Giro ederrean joan da Hiru kantuz kantu bazkaria

Iparraldeko hirur probintzietako kantuez gozatu dute 200 bat kantuzalek Inharrian, lagun-arteke giro herrikoian

PIERRE BASTRES

Aste euritsu baten ondotik, eguzki lagun izan dute Tarrapatan elkarteko antolatzaileek, eta eguerdian plazer handiz ongiatorria egin diote Ibarrunerat jin ziren jendeeri. Iparralde osoko adiskide kantuzaleak elkarretaratzea helburuetako bat izaki, erratan ahal da erdietsi dute sail hontan: izan ere Xiberoko Zalgize, Atarratze edo Barkoxe, Baxe-Nabarreko Urepele edo Mehaine, Lapurdiko Bidarte, Hazparne ala Miarritzeko herritar zombait hor ziren, bertzeak bertze. Horrez gainerat, bai Bizkaitik,

Gipuzkoatik eta Baztan auzotik ere lagun andana bat hurbildu zen, antolatzaileen bozkariorako. Kantu liburuttoari esker, bazkal denboran emanak izan diren 12 abestiak denek segitu ahal izan dituzte. Iparraldeko probintzia bakoitzako lau kantuzaleak zituzten antolatzaileek. Horietarik Jakes Erramuzpek huna zer dioen hautaketa hontaz: «Kantu ainitzek hobeki eza-gutuak izatea hartze dute. Tokika ainitzetan emanak diren abesti zombait bertze eskualdeko kantariak ez dute nehoiz ematen. Hala nola,

Bedatsiaren heltzian (Etxahun Iruri) edozoin Basabürüko bestetan adituko duzu beti, senpenterrek betiz geroztik *Xori errexinoletak* kantatzeko usaia dutelarik». Parte-hartzaile ainitzentzat, lehen aldia zela kantu zombait aditzen zituztela, baina ez azkenekoa agian. Eguna iragan ahala, tarte hunkigarriak ere ez ziren eskas: bakartasunagatik etsitua zen artzain baten pertsu ederrak bezain goibelak Jean-Baptiste Dufau Bidartarrak gogoz kantatu zituen, nigarra begian, edo Zegamako ama-alabek Kukuaren Abestia eman dutenean zilarrezko ahotsez.

Domino Atharraztarra ohararazten den bezala, «holako ekitaldietan, Üskal Herriko hatsa entzuten dük!». Halaber, Jean-Baptisten ahotan, «gure euskaldungoak kantuetan erakusten ahal du bere edertasuna». Azken hitza, Jon eta Izaskun galdakaotarrena: «Holakorik ez dogu Bizkaian, datorren urtean itzuliko gara!».

Bigarren Bildotsaren Besta antolatu dute merkatariek

Joan den urtean bezala, Senpereko merkatariek bildotsaren inguruan besta handi bat zutik eman zuten apirilaren 21ean. 500 pertsonendako bazkari bat sukaldatu zuten nahianteko zombait, herriko bildotskiaz erran gabe doa. Herriko ostatuek ere bertako haragi honi lehentasuna emana zioten beren menuetan. Karrika Nagusia moztua zuten antolatzaileek, artisauen azoka zein erakustaldi batzu egiteko gisan. Oro har, arrakastatsutzat ikusten du Battit Edarra antolatzailetako batek.

VI. Mendi bizikleta ibilaldia igandean ikastolaren alde

Maiatzaren 6an, igandean, 08:30ean kirol-zelaitik abiatuko da ikastolaren aldeko seigarren mendi bizikleta ibilaldia. Pirripitentzat bi ibilbide izanen dira aukeran, bata 20 kilometratkoa (880 metrako malda) eta bertzea 30 kilometratkoa (1.300 metroko malda). Oinezkoentzat ere bi ibilbide proposatu dituzte, zortzi ala 15 kilometrakakoak. Hauek oren erdi bat lehenago abiatuko dira, 08:00etan. Informazio gehiago 0631556097 edo 0686124772 telefonoetara deituz eskura daiteke.

BEROPEL
egurrezko pelletak
ECHEVESTE HNOS. SL

T. 948 637 232 • 618 264 654
31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax 948 637 250
info@echevestehermanos.com
www.echevestehermanos.com

EN plus A1
ES 025

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus

- Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
- 250 lagun eserita
- Klimatizaturia
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAIA IREKIA
102 Meaka auzoa • 20304 IRUN • T.943 623 130

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Dibortzioak, herentziak, alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

«Mendian lasterka estres guztiak kanporatzen ditut»

IÑAKI MIHURA ARIZALETA ARRAIOZKO MENDI LASTERKARIA

XABIER MARITORENA ARRAIOZ
Duela 35 urte Arraiozen sortu zen Iñaki Mihura Arizaleta. Kirol munduan beti ibili da eta oraingoan ere bere maila erakusten ari da. Laugarren izan zen Berako Mendi Maratoi Erdian, eskualdeko lehena. **Noiztik lasterketa munduan sartua?**

Serio errateko moduan hau hirugarren urtea izanen da. 2015ean Nafarroa Oinezeko karreran parte hartu nuen eta karrera hartan barnekaldean horrelako ar bat sortu zitzaidain, gehiago egiteko gogo. Geroztik karreraren egutegiari kasu egiten hasi nintzen eta gero eta gehiago parte hartzen hasi nintzen.

Lehen ere kirol munduan aritua zara, ez da hala?

Lehenbizian, orain baino bastante gazteago nintzenean bizikletan ibili nintzen. Bizi-

kleta alde batera utzi eta gero krosetan eta pistetan lasterka ibili nintzen. Ezin aipatu gabe utzi laxoa, Arraiozko taldean urte aunitzez ibili nintzen.

Berriki sari bat lortu duzu Nafarroa mailan. Zer da sari hori?

Nafarroan lasterketa aunitz egiten dira. Nere modalitatea maratoi erdiak dira. Hauen distantzian 15-22 km tartekoak izaten dira. 2017an puntugarriek ziren zazpi mendiko lasterketa egin ziren eta haue-
tan lortu nuen emaitzekin lehenbizikoa gelditu nintzen. Hortaz eman zidaten sari hau.

Beran ere postu ona lortu duzu...

Bai hala da, Berako lasterketan izan zen. Apirilaren 15ean mendimaratoi erdi bat zegoen eta laugarren postua lortu nuen. Beran, egia erran, maila altua izaten da eta laugarrena gelditu nintzen. Kontent nago egin nuen karrerarekin.



Iñaki Mihura mendian goiti, Berako Mendi Lasterketan. UTZITAKO ARGAZKIA

«JENDE AUNITZ EZAGUTZEKO MODU POLITA DA MENDI LASTERKETA»

Zein helburu jartzen diozu zure buruari?

Nere helburu nagusia lasterketetan disfrutatzea da. Nere hartzeko lasterketetan parte hartzea egunerokotasunarekin

haustea da, nolabait deskonektatzeko modu bat da, estres guztiak kanporatzeko aukera. Bidenabar, jende aunitz eza-
gutzeko modu polita da.

Bertzerik?

2017an hoberena izan nintzen modalitatean, baino horrek ez du erran nahi Nafarroako onena naizenik. Bertze aunitz ez dira aurkezten eta ez zait iduritzen kristorena naizenik. Egiten dudanarekin gustora nago eta horrek du inporta.

Beti Gazteko neskek eta mutilak irabazi dute Nafarroako 4x4 sokatira txapelak

AITOR AROTZENA LESAKA

Nafarroako lau sokatira txapelketako bigarren jardunaldia jokatu zen apirilaren 21ean Lesakan. Gizonezkoen 320 kiloko eta emakumezkoen 255 kiloko txapelak erabaki ziren eta bietan Beti Gazte suertatu zen txapeldun. Kadeteak eta 20 urtez behetikoak ere aritu ziren.

Beti Gazteko mutilak tiraldi guztiak irabazi zituzten, baita Txantrearen kontrako finaleko biak ere. Berriozar A hirugarren izan zen. Beti Gazteko laukotean Karmelo Mitxelena

eta Gerardo Telletxea bezalako esperientzia handiko bi tiralari eta Beñat Ordoki eta Unai Gurrutxaga gazteak aritu dira. Beñardo Iantzi izan dute entrenatzaile eta Joxe Angel Mitxelena laguntzaile.

Emakumezkoetan ere lan bikaina egin zuen Beti Gazte A taldeak eta tiraldi guztiak irabazi zituen, Berriozarren kontrako finala bezalaxe. Beti Gazte B izan zen hirugarren. Talde txapeldunean Aitziber Goienetxe, Udane Arbelaitz (Oiartzun), Oihana Mindegia (Aurtitz) eta Ainhoa Ubiria



Beti Gazteko neskek eta mutilak txapeldun izan ziren herrian. AITOR AROTZENA

aritu ziren. Joxe Angel Mitxelena izan zen entrenatzaile eta Arritxu Muxika laguntzaile.

Sari banaketan, Nafarroako Herri Kirol Federazioak eskerak eman nahi izan zizkion

Joxe Mari Irazokiri, herri kiroleko argazkiak eta informazioa zabaltzen egiten duen lanarengatik. Berak jarri zituen txapelak, Berako Nerea Sorondo aizkolariarekin batera.



Oier Ariznabarretak bortzgarren aldiz segidan irabazi du Berako Mendi Maratoi Erdia. UTZITAKO ARGAZKIA

Ariznabarreta eta Azkorbebeitia irabazle Berako Maratoi Erdian

Durangoko korrikalariak bosgarren garaipena lortu du segidan eta Abadiñoakoarentzat bigarren garaipena izan da, 2012an lortutakoaren ondotik

TTIPI-TTAPA BERA

Oier Ariznabarreta (Durango) ordubete, 40 minutu eta 50 segundoko denborarekin eta Oihana Azkorbebeitia (Abadiño), 2 ordu, 2 minutu 56 segundoko denborarekin izan ziren Berako hamalagarren Mendi Maratoi Erdiko irabazleak. Ariznabarretak arazorik gabe bortzgarrenez segidan irabaztea lortu zuen, Joxe Amunarrizen (Hondarribia) eta Beñat Katarainen (Zegama) aitzinetik, 21 kilometro eta 2.700 metroko desnibela daukan ibilbidean.

Hasieratik gailendu zen Ariznabarreta. Larunen, lasterketako punturik altuenean, bortz minutuko aldea aterata zion bigarren sailkatua suertatu zen Joxe Amunarrizi.

Irabazleak ezin izan zuen bere eskuetan 2014. urteaz geroztik dagoen probako errekorra hobetu (01:37:30). Ibardingo tarteko helmugak 150 euroko sari berezia zeukan, eta hau ere Ariznabarretarentzat izan da. «Lasterketa hau nire Zegama da», aitortu zuen



Oihana Azkorbebeitia, 2012an bezala, garaile emakumeetan. UTZITAKO ARGAZKIA

Durangarrak helmugara iritsi bezain laster.

Emakumezkoen artean, Azkorbebeitiak bigarren txapela lortu zuen 2012an lortutakoaren ondoren, bere gibeletik sailkatu ziren Alizia Olazabal (Irun) eta Enara Oronoz. Lau garren Izaskun Zubizarreta eta bortzgarren Laura Sola (Uztarroz), azken hiru urteetako irabazlea izan zen.

Gazteen lasterketa

Gazteentzako lasterketan, 14 urteetatik 17 urteetara, Aran-

tzako Iñaki Igartua izan zen irabazlea mutiletan eta Lorea Zubietta, Ainhoa Etxegarai eta Oihana Arruti nesketan elkarrekin sartu baitziren helmugan, Beratik Ibardinerako ibilbidean.

Taldeka Oiartzungo Intxixu Trail izan zen azkarrena Hiru Herri nafarraren aitzinetik.

496 lasterkerik parte hartu zuten proban, eta haietatik 480 helmugara iritsi ziren. Ikusle aunitz etorri zen probaz gozatzeraz eta zorionez ez zen arazo nabarmenik egon.

BERAKO MM ERDIA

ESKUALDEKOAK

4. Iñaki Mihura-Arrioz	1:49:17
14. Ibon Erdozain-Bera	1:57:17
15. Iñigo Lasaga-Donetz	1:57:48
16. Pantxo St.Martin-Sara	1:58:42
19. Xuban Eugi-Baztan	2:00:39
22. David Nesprias-Sara	2:01:14
27. Asier Apezetxea-Arantza	2:02:44
52. Panpi Perugorria-Sara	2:05:40
58. Ina Lasaga-Bera	2:05:57
67. Fabien Ezcurra-Sara	2:07:33
68. Miguel Solano-Bera	2:07:37
70. Mikel Urtxegi-Igantzi	2:07:51
73. Beñat Saralegi-Lesaka	2:08:11
75. Julio Cesar Asto-Lesaka	2:08:25
78. Dani Etxeberria-Baztan	2:08:38
84. Aigoitz Altzugarai-Lesaka	2:09:03
90. Imanol Lukanbo-Arantza	2:10:09
99. Fabien Rey-Sara	2:11:23
105. Gabon Gamio-Baztan	2:12:03
106. M. Angel Iñarrea-Baztan	2:12:04
108. Imanol Otero-Baztan	2:12:28
115. Josema Huizi-Bera	2:12:56
120. Joseba Lasarte-Bera	2:13:08
127. Ximun Garcia.B-Sara	2:14:12
134. Olivier Indart-Sara	2:14:54
142. Unai Iantzi-Aniz	2:16:21
146. Xabi Garmendia-Bera	2:16:55
148. Peio Etxabide-Lesaka	2:17:23
153. Iñigo Arrieta-Sunbilla	2:18:10
154. Javier Oteiza-Baztan	2:18:20
162. Asier Irazoki-Bera	2:19:14
164. Patxi Vila-Bera	2:20:07
165. Iñaki Pikabea-Bera	2:20:09
167. Ugoitz Ado-Bera	2:20:54
168. Julen Pikabea-Bera	2:21:04
172. Imanol Moreno-Bera	2:21:22
173. Asier Gamio-Baztan	2:21:25
174. Cesar Sarratea-Baztan	2:21:27
180. Santi Yanci-Baztan	2:21:58
181. Mattin Garbisu-Bera	2:22:39
189. Josu Juanena-Donetz	2:23:35
193. Ganix Arruti-Lesaka	2:24:01
206. Iñaki Larralde-Lesaka	2:25:19
207. Martin Lanz-Lesaka	2:25:20
212. JM Indakoetxea-Lesaka	2:25:42
213. Bruno Renard-Sara	2:25:47
226. Joxe Iturzaeta-Baztan	2:27:10
236. Txema Otxoteko-Bera	2:28:46
251. Patxi Ariztia-Bera	2:29:49
276. Xanti Lertxundi-Baztan	2:33:45
282. Xanti Dendarrieta-Baztan	2:34:30
296. Txutxi Arruti-Lesaka	2:36:25
317. Joseba Garcia-Bera	2:38:46
327. Asier Arburua-Etxalar	2:40:14
331. JM Zamora-Baztan	2:40:39
342. Ana Pikabea-Bera	2:42:19
343. Sergio Morate-Bera	2:42:19
350. Aitor Cerezo-Bera	2:43:17
359. Joseba Errandonea-Bera	2:44:22
381. Txus Unson-Bera	2:48:38
383. Mikel Irigoien-Lesaka	2:48:45
386. Imanol Arretxea-Baztan	2:49:45
404. Mikel Aziproz-Leitza	2:52:13
414. Manuel Gouraud-Bera	2:53:56
417. Unai Telletxea-Igantzi	2:54:42
418. Adur Yanci-Igantzi	2:54:43
430. Mikel Larregi-Baztan	2:57:10
431. Julen Larregi-Baztan	2:57:16
438. Eneko Herrera-Sunbilla	2:59:01
443. M. Ramon Olano-Leitza	3:00:00
446. M. Carmen Urtxegi-Bera	3:02:19
448. Xabier Portu-Lesaka	3:02:23
450. Migel Olano-Leitza	3:02:52
463. Xabi Maia-Baztan	3:08:45
466. Migel Azkarraga-Baztan	3:10:23
462. Aitziber Iturria-Bera	3:24:05
474. Teresa Igoa-Bera	3:26:25
475. Ainhoa Lanz-Bera	3:26:54

AGENDA

MAIATZAK 3 - 17

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: T. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

HITZALDIAK

LEITZA

Urratsez Urrats berrikuntza proiektuaz hizketan

Amazabal ikastetxeko ikasleek eginiko lanen aurkezpena *Udaletxeko Batzar Aretoan, maiatzaren 4an, 11:30ean.*

Autodefentsa Feminista Tailerra

Udaletxean, maiatzaren 5ean, 10:00etan hasita.

ELIZONDO

Elizondo fiskalaren kontra eta ezpata-dantzen desagerpenaz

Arizkuneko sabaian, maiatzaren 4an, 19:30ean.

Harreman osasuntsuei eta mugei buruzko solasaldia

Arizkunenean, maiatzaren 5ean, 10:30etik 13:00etara.

ARANTZA

Sustantzien kontsumoa nerabearoan

Baskulan, maiatzaren 9an, 17:00etatik 18:30era bitarte.

IKUSKIZUNAK

BERA

Txontxongilo ikuskizuna

Itsasminen taldearen eskutik *Kultur Etxean, maiatzaren 5ean, 12:00etan (sarrera 3 euro).*

LEITZA

Ez dok hiru antzezlanak

Maiatzaren 12an, zineman, 19:00etan.

AZOKA

BERA

Bertako ekoizleen merkatua

Ricardo Baroja eskolako arkupeetan, maiatzaren 12an,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

GOIZUETA V. Goizutatrail

Bi ibilbide aukeran: 10,6 eta 25,2 kilometrotakoak. *Maiatzaren 19an, larunbata, 09:00etan.*

10:00etatik 13:00etara.

SARA

Bertako ekoizleen merkatua

Apiriletik irailera bitarte, ortziraletan, 16:30etik 20:30era.

ELIZONDO

Bertako produktuen azoka

Maiatzaren 19an, 10:00etatik 14:00etara.

KIROLA

BERA

Felix Errandonea Memoriale

Maiatzaren 5ean, 17:00etan.

Nafarroako Kenpo Kai Txapelketa

Toki Ona Kiroldegian, maiatzaren 6an, 10:00etan, sarrera doan.

LEITZA

Nafarroako V. Karate Txapelketa

Maiatzaren 5ean, kiroldegian, 16:30ean.

MALERREKA

Malerrekako txokoak ezagutzeko

Solaslagunak antolatua. *Maiatzaren 12an.*

IGANTZI

VIII. Mendi Bizikleta Jaitsiera

Maiatzaren 12an, goizean entrenamenduak eta arratsaldean lehia.

LESACA

V. Zikloturista Martxa

Maiatzaren 13an, 09:00etan. Izen-ematea: www.kirolprobak.com atarian.

GOIZUETA

V. Goizutrail

Maiatzaren 19an, 09:00etan. Izen-ematea: www.herrikrosa.eus.

OSPAKIZUNAK

DONEZTEBE

Udaberriko feria

Maiatzaren 4an.

IGANTZI

Kantu bazkaria

Maiatzaren 5ean, Biltoki Elkartearen.

SARA

Herri Aitada Eguna

Mugako herrien ospakizuna. *Maiatzaren 5ean, Sarako plazan, 09:00etatik goiti.*

IKASTOLNEN BESTA

Sagardotegiko bazkaria eta haurrendako jokoak izanen dira. *Maiatzaren 20an, 11:00etatik aitzinera.*

URDAZUBI

Herriko bestak

Maiatzaren 9tik 13ra.

IRURITA

Herriko bestak

Maiatzaren 9tik 13ra.

BERROETA

Herriko bestak

Maiatzaren 18tik 21era.

SENPERE

Herri Urrats

Maiatzaren 13an.

KONTZERTUAK

IRURITA

Haur eta gazte kantarien VII. topaketa

Iruritako elizan, maiatzaren 5ean, 19:00etan.

SARA

Saiberri Taldearen kontzertua

Maiatzaren 11n, 21:00etan.

BERA

Don Inorrez taldea

Kataku ostatuan, maiatzaren 6an, 19:00etan.

Beñat Igerabideren kontzertua

Kultur etxean, maiatzaren 12an,



UTZITAKO ARGAZKIA

ELIZONDO Txorimaloen tailerra

Sei urtetik goitikoendako.
Maiatzaren 19an, 10:30etik 13:30era bitarte.

20:00etan (sarrera 5 euro).

ELIZONDO Bandaren kontzertua

Braulio Iriarte pilotalekuan,
maiatzaren 19an, 18:00etan.

IKASTAROAK

DONEZTEBE Photoshop ikastaroa

Herriko Ostatuan maiatzaren 4an eta 11n. 19:00etatik 21:00etara.

BERA Osasunez zahartzea lantegia

Lagun Haundiak Elkartearen Berako Egoitzan, maiatzaren 7, 9, 14 eta 16an. 10:00etatik 12:00etara.

ELIZONDO Txorimaloen tailerra

Sei urtetik goitikoendako.
Arizkunenean, maiatzaren 19an. 10:30etik 13:30era. Izen-ematea: maiatzaren 11ra bitarte.

Musikoterapia tailerra

Haurdun daudenendako tailerra, Baztango Udalararen eta Agruparte elkartearen eskutik.

Arizkunenean, maiatzaren 2tik ekainaren 20ra bitarte, zortzi saio.

ERAKUSKETAK

BERA Langile batailoiak Beran

Berako Kultur Etxean, apirilaren 26tik maiatzaren 12ra arte. Ortzegunetik larunbatera 17:00etatik 19:00etara eta igandetan 11:30etik 13:30era.

ELIZONDO 'Gerra eta Bakea' argazki erakusketa

Arizkunenean apirilaren 24tik maiatzaren 18ra, 17:00etatik 20:00etara.

Erraldoiak ikusgai

Elizondoko plazan (euria eginez gero Braulio Iriarte frontoian), maiatzaren 6an, 11:00etan.

Nire aukera

«Egoera latzetako elkartasunik ezak harritu nau gehien»

AINARA ABETE ELIZONDOKO EMAKUMEA

Adin bereko emakumeen «estereotipoa betetzen ez duen» 38 urteko baztandarra da Ainara Abete. «Irakurtzea eta idaztea» du gustuko. «Josteak erlaxatzen» laguntzen dio, eta «lasaia badirudit ere, arras soziala naiz: besta egitea eta abenturak bizitzea, kulturak, ohiturak eta bizimoduak ezagutzea maite dut». Horren lekuko da Grezian, errefuxiatuei laguntzen



UTZITAKO ARGAZKIA

pasatako hilabetea. Kriasiak «hasieratik hunkitu» zuen eta ordutik «laguntza ekonomikoaz gain, soziala eskaintzeko arantzatxoia errotua nuen». Zugarramurdiko lagunari, «proposatze hutsa nahikoa izan zen». Hala, tramiteak eginda, «Lesbos irlako Moria izeneko iheslarien-esparrura joan ginen». Esperientzia «polita bezain gogorra» izan da, bizitza guztirako «arrastoa utzi duena». Hango errefuxiatuek

bizi duten egoera «latza» da, «gudek, pobrezia, bidaiek, mafiak eragindako zama», balizko «Europa baketsu eta aberatserat ailegatzeko ametsak» eragiten dizkien egoerak azpimarratu ditu. Bien bitartean, «bazterkeria, arrazakeria, miseria, zikinkeria, oinarritzko zenbitzuen eskasia... aurkitzen dituzte». Bizitza «eten egiten zaie, hortik ateratzeko nahiak eragindako etsipena gailentzen da». Samintasuna ahal bezala gozarazteko, «janari errazioak justuki banatzen, eri zirenak edo espezialistak behar zituztenak ospitalerat garraiatzen... haurrekin marrazten, jolasten... ia materialik gabe eta elkar ulertu gabe, irudimena erabiliz, ahal genuen guztia eskaintzen saiatu ginen». Bere laguntzaren truk irakaspen batekin bueltatu zen: «egoera larrietan burua eta gorputza aitzinerat eramateko dugun erresilientzia gaitasuna zenbaterainokoa izan daitekeen jabetu nintzen». Ondotik, hori bere buruan «esperimentatu» eta ingurukoengan erreparatzeari ekin zion. Orain «Moriakoa bezalako iheslari-esparrurik behar ez izatea eta bertan ezagaturiko pertsonekin egoera baketsuan -Europan edo beren jatorrizko herrialdeetan- elkartzea» du amets.

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

ITUREN. Hainbat neurritako apartamentuak hagitz prezio onean salgai. ☎ 948 451 337 / 667 275 013.

ERRENTAN EMATEKO

IRUÑEA. Ospitaleen ondoan, pisua errentan emateko. Bi unibertsitateen artean, hirigunetik hurbil. Lau logela. ☎ 626 899349 / 669 993941.



ETXALAR. Herrian bertan dagoen etxea errentan emateko. Hiru logela, bi bainugela, egongela tximeniarekin eta sukaldea. Berogailuak egurrarekin berotzen dira. 40m²ko garajea. 2.000 metroko lursaila. ☎653 298856.



HENDAIA. Hondartzatik hurbil dagoen kanpin batean eta *mobil-home* -a asteburuetarako edo oporraldietarako errentan emateko. ☎ 667 308826.

ERRENTAN HARTZEKO

ELIZONDO. Etxebizitza errentan hartuko nuke. ☎ 664 149530.

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI

LESAKA. Iturrunzubiko plazako 1. behean, 63 m²ko bajera salgai. ☎680 294158.

ERRENTAN EMAN

LESAKA. Iturrizubiko plazako 9. eta 10. zenbakian, ile-apaindegi bezala egokitua dagoen 70 m²ko lokala errentan emateko. ☎ 661 081273 / 948 637703.

LURRAK/ORUBEAK

ERRENTAN HARTU

Belar-soraa errentan hartu nahi dute, haundia eta bordarekin bada, hobe. Urarekin eta bueltan alanbraz itxita dagoena. Behiak edukitzeko. ☎658 015080.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58 🌐 www.erran.eus
☎ 744 48 43 61 @ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

LANA

ESKAINITZAK

BERA. Katakua ostatuan zerbitzari euskalduna behar dute, asteburuetan, txandaka, lan egiteko. ☎ 617 489765/ 948 630858.

BERA. Asteburuetan lan egiteko langile bat behar dute, biltegizain eta kutxazain bezala aritzeko. Interesatuak bidali curriculum *beolae txea@gmail.com* helbidera edo deitu 948 630 709 telefonora.

ELIZONDO. Fabrika batean elektromekanikoa behar dute, mantentze-lanetan aritzeko. Bidali curriculum helbide honetara: 8. posta kutxa, 31700 Elizondo

BERA. Asteburuetan lan egiteko zerbitzaria behar dute. ☎ 948 630392.

IRUN. Ostatu batean, barran lanean aritzeko bi lagun behar dituzte. ☎ 629 210948.

ERRATZU. Landetxe batean 25 lagunendako bazkaria eta afaria prestatzeko bi langile behar dituzte. Ekaineko azken astean hasi eta sei asterako. ☎ 660 731901.

ESKARIAK

Esperientziadun neska **lan egiteko prest.** ☎664 149530.

Garbitasunean, adinduak zaintzen... aritzeko lan bila. ☎644 204353.

Adinekoak zaintzen esperientziadun emakumea lan bila, interna moduan.. ☎602 895536.

Garbiketa lanetan, **adinekoak** zaintzen edo **etxeko lanetan** aritzeko lan bila. Alor horietan esperientzia duen emakumea. ☎644 778212.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,35
- 1.koa 4,13
- 2.koa 3,93

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,37
- 1.koa 4,23
- 2.koa 3,83

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiikiak

- (15 egun inguruokak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 160,00
- Idixkoak 200,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 140,00
- Idixkoak 185,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,29/3,39
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 6,20/6,80
- 8-10 kilokoak: 5,20/6,00

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 63 €

Zerri gizona 1,156 €

Zerramak 0,590€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (apirilaren 13tik 20ra bitarteko prezioak)

Lanik gabe dagoen **mutil gaztea** lan bila. Mantentze-lanetan, eraikuntzan, masajista bezala, adinekoak zaintzen edota baserrietan ganaduarekin lan egiteko prest. ☎ 685 034482.

MOTORRAK

SALGAI



Quad Honda 400 TRX motoa salgai. Oso egoera onean eta lobilgailuen Azterketa Teknikoa pasatu berria. ☎687 736970.

ANIMALIAK

SALGAI

Sei urteko **zezena** salgai, piriniar arrazakoa. Mantsoa, oso ongi zaindua eta janari osasungarri hazia. Etxera etorri gero, ikusteko aukera. ☎ 695 716894.



Zaldia salgai, mendian ibilia. ☎ 616 109050.

Urte eta erdiko piriniotar arrazako **zezena** salgai. ☎ 630 184847.

3 urteko **ahari mutur gorria** salgai, adarrik gabea. ☎ 606 019337.

OPARITZEKO

Bi urteko **setter ingeles** txakurra oparitzeko. Hiru koloretakoa, oso polita eta lasaia. Txipa eta txerto guztiekin. ☎ 628 055178.



744 484 361

ttipi-ttapa

DENETARIK
SALEROSKETAK



Logela mexikarra osorik edo altzariak banaka salgai. Apalak: 190x90x35; mesanotxea: 59x40x40; ohatzea: 105x200 (denak kajoiekin). Koltxoi eta almohada biskolastikoak (Garantia barne). ☎ 661 767398.



Erabili gabeko **ohe artikulatua** salgai, koltxoi eta guzti. Gora eta behera ibiltzeko orgarekin, jaitsi eta igo egiten diren langak bi aldeetatik. 1.100 euro. ☎ 630 160353.

IRAGARKIAK INTERNETEN

Sail honetako iragarkiak **ERRAN.EUS**en ere argitaratzen dira hilabete batez. Ikusi iragarki hauek guztiak Interneten: <https://erran.eus/merkatu-ttikia>

KATEA BIKE **2. eskuko bizikletak**

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com



Pianoa salgai. 800 euro. ☎ 656 752736.

Altzairuzko sei fregadera salgai, 1,73 metro x 34 cmko neurria. Forma borobila. ☎ 948 585036.

BERAKO UDALA

Tokiko Gobernu Batzordearen Akordioa -HIRIGINTZA-

Berako Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak, 2018ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, A121e-ko jarduketa asistematikoan (10. poligonoko 121. lurzatia, Eztegarra Pasealekua, 36) Xehetasun Azterlana onetsi zuen hasiera batez. Espedientea jendaurrean izanen da hoguei egunez, dagokion iragarkia NAO-n argitara eman denetik (2018ko apirilaren 17a, 73. zk.).

Bera, 2018ko apirilaren 17a Alkatea, Josu Iratzoki Agirre

Mendaur Motor
Leitzako bidea • DONEZTEBE
T. 948 450 333

Kotxe salmenta | Marka guztiak

Kotxe berriak **SUZUKI**

SUZUKI GRAND VITARA 2009 urtekoa
46.000 km • Gasolio motorra • 129 CV

OPEL ASTRA J • 110 CV
2014 urtekoa • 40.000 km

4x4

www.mendaurmotor.es

AVIA www.doneztebe.com

E.S. SANTESTEBAN
Leitzako errepidea, 49 | DONEZTEBE | T. 948 451 679

KOTXE GARBITEGI BERRIA!
ShineTecs®

FURGONETA GARBITEGI BERRIA!
2,60 m

"KONPONTZE EFEKTUA"
duen pintura babeslearekin

- > "Acrylonic" formula patentatua. Argizaria baino hobea.
- > Kapa babeslea indartzen du garbiketa bakoitzean
- > Distirak denbora gehiago irauten duela bermatzen du

2,60m bitarteko furgoneta edo kotxea garbitu gurean!

• TTIPI-TTAPA | KULTURKARI •

KARTELAK

A3 | A2 | FORMATU BEREZIAK

• ESKAINTZA •

WHATSAPP ez bidaltzeko
IRUDI DIGITALA OPARI

info + 948 63 54 58
www.kulturkari.com

EMAN KOLOREA MUNDU GRIXARI!

ttipi-ttapa

HERIOTZAK

- **Cristina Mezkiriz Ustariz,**
Arizkungoa, apirilaren 12an, 86 urte zituela.
- **Pilar Irazoki Irazoki,**
Berakoa, apirilaren 17an, 64 urte zituela.
- **Martin Saharrea Ariztizabal,**
Zigakoa, apirilaren 12an, 88 urte zituela.
- **Crispulo Zelaieta Urrutia,**
Irritakoa, apirilaren 23an, 88 urte zituela.
- **Antoni Telletxea Altugarai,** Lesakakoa, apirilaren 25ean.
- **Benito San Millan Somalo,**
Elizondokoa, apirilaren 25ean, 73 urte zituela.
- **Jose Manuel Subizar Mitxeko,** Legasakoa, apirilaren 25ean.

tanatorioak
IRACHE
24 ORDUKO TELEFONOA
948 637 404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

- ▶ **Eskelak, Esker Onak eta Urteurrenak**
Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 €
Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.
- ▶ **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan, (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).

Ttipi-Ttapa: irakurriena
Nafarroa garaiko mendialdean

OROIGARRIA

Gregorio MINDEGUIA LOPEZ

Donezteben, 2018ko otsailaren 18an

Zein erraza izan zen zu maitatzea eta zein zaila zu gabe bizitzea. Ezustean joan zaren arren, beti gure bihotzetan eta oroitzapenean egonen zara. Ez adiorik, gero arte baizik. Beti maiteko zaitugu.

EMAZTEA, SEME-ALABAK ETA FAMILIA

Mila esker gurekin egondu zareten guztiei.



URTEURRENA

Mañolita DAGUERRE MARTINEZ

Beran, 2017ko maiatzaren 15ean, 93 urterekin
I. urteurrena

Beti gurekin

ZURE FAMILIA

Bere aldeko meza maiatzaren 20an egingen da Berako San Esteban Elizan, 10:00etan.



BEILATOKIAK ELIZONDON ETA BERAN
Zerbitzuak Baztan, Beran eta Bortzirietan

URTE OSOAN 24 ORDUKO ZERBITZUA

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

T. 948 05 90 90
izarratanatorio.com

BORTZIRIAK | MALERREKA | BERTIZARANA
BAZTAN | ZUGARRAMURDI | URDAZUBI

24 ORDU | 365 EGUN
948 48 95 50
info@funerariabaztanbidasoa.com

ESKUALDEAN ETXEKO ZERBITZUA

Betiko taldea zu laguntzeka

BERAn San Jose Beilatokian
Laister, tanatorio berriak **DONEZTEBE** eta **ELIZONDON**



KONTATU KONTUAK



Dantzari gaztetxoak Donostian. Nafarroa, Gipuzkoa eta Bizkaitik joandako dantzari andana elkartu zen apirilaren 22an Donostiako Kontxako baranda ezagunaren inguruan. Doneztebeko Rebeka dantza akademiako ikasleak ere, hantxe ibili ziren dantzan: Aroa Cortadi, Daniela Calvo, Haizea Sanz, Lucia Sanz, Amaier Elizalde, Haizea Larzabal, Maialen Maritxalar, Maren Irigoien, Añez Iribarren, Nahia Elizondo, Amaia Martinez eta Angie Murillo.

Kontatu, kontatu!

Baduzu ospakizun edo ateraldiren baten berririk eta argazkia erakutsi nahi zenuke? Zerbait ikusgarria aurkitu duzu eta horren berri ematea gustatuko litzaizuke? Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa edo Whatsapp

Bidali mezua info@ttipi.eus helbidera edo whatsapppez 744 484361 zenbakira, eta idatzi nork, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ttipi-Ttaparen egoitzan

Etor zaitetz Ttipi-Ttaparen bulegora: LESAKA, Koskontako bidea, 07-1.

SORTZEAK

- **Irati Etxeberria Martin**, Elgorriagakoa, apirilaren 2an.
- **Noa Senper Crespo**, Lesakakoa, apirilaren 5ean.
- **Hegoa Irigoien Etxenike**, Doneztebekoa, apirilaren 15ean.

ESKELAK eta HILBERRIAK

eguneratuak

erran.eus
webgunean



URTEBETETZEAK



Goizuetako **Ilargi Indakoetxea Mendizurik** 4 urte bete ditu apirilaren 30ean. Zorionak gure etxeko printzesari Ireber, aita, ama eta Goizueta, Hernani eta Usurbilgo familia guztiaren partetik. Zorionak artista!



Elorri eta Aiert Arotzena Portu lesakarrek 7 urte beteko dituzte maiatzaren 6an. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.




Zorionak **Etxahun!** Maiatzaren 2an 8 urte beteko ditu. Zorionak Lesaka eta Berako familiaren partetik, eta bereziki amatxi Mikeliren partetik. Muxu handi bat.



Berako **Ainhoa Larretxea Agirrek** 22 urte beteko ditu maiatzaren 13an. Ongi ospatu lagun eta familiarekin.



Ainhize Arnedo Mitxelena gure etxeko printzesak 4 urte bete ditu apirilaren 26an! Aunitz urtez eta besarkada bat etxekoen partetik!



Andoni eta Ainhoa urteak beteko dituzte maiatzean. Zorionak Lesaka eta Berako osaba-izeben partetik, bereziki Mikeliren partetik.



Leitzako **Garazi Barandarainek** hiru urte beteko ditu maiatzaren 13an. Zorionak Aresoko osaba, izeba eta Maddi lehengusinarekin partetik. Muxu erraldoiak, soinu eta guzti! Ondo pasa!

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak!

Internet

<http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartu. Egun berean edo hurrengo lanegunean argitaratuko da webgunean, baita hurrengo Ttipi-Ttapa aldizkarian ere.

Bulegoan eta postaz

Etor zaitetz Ttipi-Ttaparen bulegora edo bidali argazkia eta testua

gutun-azal batean: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

Prezioa

Argazki soila: 5 €; bikoitza 10 €.

Ordaintzeko:

- (1) Bulegoan, dirutan.
- (2) Hegoaldetik postaz 0,55 €ko 10 edo 20 seilu.
- (3) Iparraldetik postaz 5 edo 10 €ko txekoa.
- (4) erran.eus bitartez.

PLAZAN BAZAN

MARIPURTZIL

PELLOZIRI

AMETSETAN


Ai, ai, ai.
 Etxeko lanak egiten hasi
 eta loak hartu du Pelloziri.
 Matematika ariketak
 osatu beharrean,
 amets gozotan
 murgildu da gizarajoa.
 Pelloziriren ametsetan,
 alegia hondartzan,
 gelako bertako bederatz
 elementu daude.
 Ikusten dituzu?



Egilea: Garbine Ubeda (Aiuurri)

ARROTZA

Hemen ageri diren animalietatik zeintzuk dira gainerakoekin bat ez datozenak?



INTERNETEN ERE BAI !
<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



Zatoz eta ezagutu gure eskaintza zabala

ATE IREKIAK:
MAIATZAK 9 { 09:00-14:00
16:30-20:00

C.I. **A**GROFORESTAL

<http://ciagroforestal.educacion.navarra.es/web1/>

Atarrabia etorb., 55 31015 IRUÑEA | T. 848 43 11 21
ci.agroforestal@educacion.navarra.es



IZEN-EMATEA
MAIATZAREN
7tik 11ra

ERDI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

- Natura-Ingurunearen Ustiapen eta Kontserbazioko Teknikaria { AUKERA PROFESIONALAK: baso-lanetako langile kualifikatua, basogintzako makinista...
- Lorezaintza eta Loradendako Teknikaria { AUKERA PROFESIONALAK: lorategien instalazio eta mantentzea, landare eta zohien ekoizpena mintegietan...
- Nekazaritza eta Abeltzaintza Ekoizpeneko Teknikaria { AUKERA PROFESIONALAK: laborantza eta abeltzaintzako langile kualifikatua...
- Nekazaritza Ekologikoaren Ekoizpeneko Teknikaria (euskaraz) { AUKERA PROFESIONALAK: laborantza eta abeltzaintza ekologikoko langile kualifikatua...

GOI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

- Abeltzaintza eta Abereen Osasunerako Laguntzarako Goi Mailako Teknikaria { AUKERA PROFESIONALAK: azienda-ustiategiko arduraduna...
- Basoen eta Natura-Ingurunearen Kudeaketako Goi Mailako Teknikaria { AUKERA PROFESIONALAK: basoko enpresen arduraduna, basozain edo gisakoa...
- Paisajismo eta Landaguneko Goi Mailako Teknikaria { AUKERA PROFESIONALAK: lorategi eta parkeen mantentzea, kontserbazioa eta zaharberritzea...
- Ingurumen-Hezkuntza eta Kontrolerako Goi Mailako Teknikaria (**BERRIA**) { AUKERA PROFESIONALAK: ingurumen hezitzailea, ingurumen-hezkuntzako monitorea...

OINARRIZKO LANBIDE-HEZIKLETA (OINARRIZKO LH)

- Nekazaritza eta Abeltzaintzako Jarduerak
- Abeltzaintza eta Lorezaintzako Langilea (BLH)



Ttapi Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTAPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTAPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttapi.eus | erran.eus

www.ttapitxartela.info

708 aleko irabazleak >



ZOZKETAK

Baztan Abentura Park - 2 tiket
Faustino Mariezkurrena Azpiroz | SUNBILLA
Astizko lezeak - 2 sarrera
Angel Sarratea Ezpanda | ORONOZ-MUGAIRI
Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Emma Sanzberro Martikorena | ETXALAR
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Alberto San Miguel Mindegia | OITZ
Buatxabal - Kamiseta bat
Itziar Arregi Kortea | ALMANDOZ
La Rhune - 2 sarrera
Asun Unanua Goñi | IRUÑEA
Elkar - Liburu bat
Gotzone Sestorain Zabaleta | LEITZA
Elkar - Liburu bat
Consuelo Iriarte Ibarra | BERA

2 sarrera



IRRISARRI LAND
www.irrisarriland.com

2 sarrera



ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com

2 sarrera



DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es



2 sarrera helduentzat

ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

LA RHUNE
www.rhune.com/eu



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

**LI
BU
RU
AK**



Gozogilea eta eulia
Oilu txikia

ibaizabal
www.ibaizabal.com

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.katxiporreta.eus



www.onddotapunto.com